

## BIOLUR ELKARTEA: LURRAREN EMANKORTASUNA ZAITZEN

Gipuzkoako nekazaritza ekologikoaren alde lanean dihardu Biolurrek; kide berriak egiteko bazkide kanpaina abian dute / 4



Aretxabaletako Arentza auzoko Mitarte Garai baserrian elkartu dira, martitzenean, Biolurreko Debagoieneko hainbat kide. XABIER URZELAI

**Pandemiak ugaritu dituen botila festen ondorioez kezkatuta, ekimenak lantzen hasi dira udalak / 3**

**Intsumisioaren gaineko erakusketa gaurtik aurrera eta dokumentala urriaren 13an, Bergaran / 24**



**Aitor Otamendi oñatiarra Munduko Raid Txapelketan ariko da, bihartik aurrera, Galizian / 39**

### SINADURAK

 AMAGOIA LASAGABASTER / 8	 JON KORTABARRIA / 31
 GAIZKA ERAÑA / 12	 XABIER IGARTUA / 35
 PERU ABARRATEGI / 19	 AINTZANE OIARBIDE / 48

**TAO sistema jarriko ez duten kaleetako bizilagunek diote aparkatzeko arazoa lekualdatuko dela / 11**

 Biribilguneak: duela 25 urte baino bost aldiz gehiago

Natalia Urteaga biokimikariari elkarrizketa

BACK TO WORK

# 2 MÓ 229€

progresibo erreflexuen aurkako lenteekin



Otalora Lizentziaduna, 18  
Tel.: 943 79 29 95  
ARRASATE

Ibargarai, 16  
Tel.: 943 76 15 75  
BERGARA

www.multiópticas.com


## MULTIÓPTICAS



## KORONABIRUSA

## Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



## Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak biztanleekiko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Arrasate	3	4	3.527	%15,97	<b>31</b>
Bergara	3	3	1.843	%12,26	<b>39</b>
Aramaio	1	2	231	%15,61	<b>202</b>
Elgeta	1	0	84	%7,43	<b>88</b>
Eskoriatza	1	5	524	%12,77	<b>146</b>
Oñati	1	3	1.681	%14,66	<b>34</b>
Antzuola	0	0	294	%13,49	<b>0</b>
Aretxabaleta	0	0	976	%13,79	<b>0</b>
Gatzaga	0	1	14	%5,60	<b>427</b>
<b>DEBAGOIENA</b>	<b>10</b>	<b>18</b>	<b>9.174</b>	<b>%14,16</b>	<b>43</b>

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

# Sei egun izan dira 2021ean kutsatu barik; horietako hiru, irailean

Positiboek beheranzko joeran jarraitzen dute, eta, denera, 153 izan dira irailean; metatutako guztien %1,66. Iraileko hiru egunetan ez da kasurik izan. Azkenik, adinekoen egoitzetako 409 erabiltzailek hartu dute hirugarren dosia aste honetan

## Maialen Santos ARRASATE

Azken zazpi egunetan hamar lagun harrapatu ditu COVID-19 gaitzak Debagoienera –joan den asteko tarte berean baino zortzi gutxiago; hemezortzi izan ziren–, eta, horrenbestez, positibo kasuak beheranzko joeran daudela berretsi da laugarren astez jarraian.

Herrikako errebasoari dago-kionez, Arrasaten eta Bergaran hiruna kasu baieztatu dituzte, eta bana Aramaion, Elgetan, Eskoriatzan eta Oñatin. Antzuolan, Aretxabaletan eta Leintz Gatzagan ez dute kasurik izan azken zazpi egunetan.

Iazko martxoan pandemia hasi zenetik atzora arte, 9.174 kutsatu ditu koronabirusak, eta 175 hil ditu Debagoienera; nahiz eta azkeneko astean ez den inor

zendu. EAEn hildakoak, baina, hogeitaz izan dira hilaren 20tik 26ra bitartean.

Debagoienera etorrita, denera, 153 positibo izan dira irailean –orain arte metatutako guztien %1,66 da hori–, eta azpimarratzekoa da hilabete osoa kontuan hartuta hiru egunetan ez dutela kasurik atzeman. Horri lotuta esan behar da 2021ean sei egun izan direla kasurik atzeman gabe igaro direnak; hots, erdiak irailekoak izan dira. Pandemia hasi zenetik, bestalde, 64 egun izan dira kasurik atzeman gabe igaro direnak.

Azkenik, Debagoieneko Ospitaletik azaldu dute joan den asteko martitzena ezker ez dagoela koronabirusak jota ingratutako lagunik.

## TASAREN EBOLUZIOA

### ESKUALDEA EREMU BERDEAN DA, 60TIK BEHERAKO INTZIDENTZIAREKIN

Azken asteetan nabarmen egin du behera Debagoieneko azken hamalau egunetako 100.000 biztanleko intzidentzia-tasak, eta martitzena ezker eremu berdean da eskualdea; horrek esan gura du intzidentzia-tasa 60tik beherakoa dela; 43koa, zehazki. Herri gehienak: Oñati, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara eta Antzuola. Horiz daude Eskoriatza, Aramaio eta Elgeta; eta gorri dagoen herri bakarra, ostera, Leintz Gatzaga da –hila-

ren 21ean izandako kasu positibo baten eraginez–.

Lurraldeetako tasarekin alderatuta, berriz, azpitik jarraitzen du ibarrekoak. Izan ere, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako tasa antzekoa da, 70en bueltakoa; eta Nafarroako tasa, ostera, 45ekoa da.

## NEURRI MURRIZTAILEAK

### "BESTE MODU BATERA BIZI AHAL IZATETIK GERTUAGO GAUDE"

Gotzone Sagardui Osasun sailburua baikorra da pandemiaren bilakaerari dagokionez. Oraindik Labiren bilerarik aurreikusita ez badago ere, "beste modu batera bizi ahal izatetik gertuago" gaudela esan du astelehen honetan. Halere, maskarekin "denbora luzez" jarraitu beharko dela aurreratu du: "Ez kutsatzeko babes onena maskara da".

## TXERTAKETA-KANPAINA

### 409 EGOILIAR TXERTATU DITUZTE ASTEON HIRUGARREN DOSIAREKIN

Eskualdeko adinekoen egoitzetan bizi diren 409 egoiliarrek hartu dute dagoeneko koronabirusaren aurkako txertoaren

hirugarren dosia. Eskoriatzako Jose Arana egoitzako 29 egoiliar eta Aretxabaletako GSR egoitzako 130 izan ziren hartzen lehenak, astelehenean. Martitzenean heldu zitzaizkien horretarako txanda Oñatiko San Martin egoitzako 63 laguni. Azkenik, atzo ziztatu zituzten Bergarako Mizpirualde egoitzako 92 egoiliar, eta baita Iturbide egoitzako 95 lagun ere.

Iturbide egoitzako zuzendari Olatz Etxabek azaldu du egoiliarrek pozik hartu dutela hirugarren dosia ere, baina oraindik neurriekin jarraitzen dutela ekarri du gogora: "Egoitza sektoretzatuta daukagu, maskara erabiltzen ere jarraitzen dugu, eta irteerak mugatuta daude oraindik, besteak beste".

12 urtetik gorako herritarren %87,8k lortu dute immunitate handiena dagoeneko, eta %89,9 dira lehenengo dosia hartu dutenak. Hala, 3.292.140 dosi jarri dira, guztira –momentura arte Euskal Autonomia Erkidegora iritsi diren %90,5–. Sagardui Osasun sailburuak egindako balorazioaren arabera, gizarteak "ondo" erantzun dio Osakidetza egindako txertaketa-deiari; edozelan ere, onartu du 20 eta 29 urte artekoen taldea "atzeratuta" dagoela: "Datuek hobetu egin behar dira, baina aurrera egitea espero dut", esan du sailburuak azken horri lotuta.

**Maialen Santos** ARRASATE

Osasun-krisiari lotutako neurri murriztaileek ondorio ugari ekarri dituzte; tartean, pandemiaren aurretik ere egiten ziren botila festen areagotzea. Ostalaritza-establezimenduen itxiera ordutegiak aurreratu egin dituzte krisiaren eraginez, eta gazte lokalak itxita egon dira azken hilabeteetan. Horrek eragin du gero eta gehiago izatea kalean edateko asmoz elkartzen den pertsona kopurua.

Herrigunetik aldentuta dauden guñeetan elkartzen dira sarri. Bergarako kasuan, Gazte Gainera edo San Martzialera joaten dira asko; Oñatin, bestetik, Mondragon Unibertsitatearen atarian elkartu ohi dira; eta Arrasaten, aldiz, Santa Barbara parkean. Horri lotuta, Debagoieneko herrietako udal ugari neurriak hartzen hasi dira azken asteetan.

#### "Arazo" bilakatuta

Bergarako Udaletik adierazi dutenez, pandemiak eragindako egoeraren ondorioz "ugaritu" egin den ohitura da kaleko edana, eta horren aurrean lan pedagogikoa egiteko ekimena abiatuko dute. Udalbatza osatzen duten hiru alderdiek –EH Bildu, EAJ eta PSE-EE– adostu dute "lanketa bateratu bat" egitea, eta gazteekin lotura duten eragileekin bilerak egingo dituztela eman dute aditzera.

Hain zuzen, asteon egindako iraileko osoko bilkuran berba-gai izan dute gaia. EH Bilduko bozeramaile Nagore Inurrategiren arabera, bi modu daude "konplexua" den arazo horri aurre egiten saiatzeko: "Bat da poliziaren bidez kontrolatzea eta debekatzea, eta beste aukera bat da eragileekin epe luzeagorako lanketa egitea. Ez genuke arazoa konponduko Bergarako leku zehatz batzuetan debekatuko bagenu, ez dugu horretan sinesten. Sinesten dugu lana beste era batera eginda gauzak alda daitezkeela".

EAJ aspalditik dago kezkatuta. "Oposiziotik gertutik egin diogu jarraipena gaiari. Kontziente gara ez dela Bergarako arazoa bakarrik baina gu bertan bizi gara eta hemen dugun arazoari aurre egin behar diogu, edo gutxienez birbideratu. Egoera pandemikoak hobera egin duen arren garrantzitsua da guardia ez jaistea", esan du

# Pandemiarekin ugaritu egin den beste errealitate bat: kaleko edana

Pandemiaren eraginez azken asteetan kale zurruta areagotu egin dela-eta, lan pedagogikoa egiteko ekimena abiatuko dute Bergarako udalbatza osatzen duten hiru alderdiek. Ertzaintzak esan du jende kopuru handia elkartzen dela bilkuretan



Bergarako sasoi bateko Asto-tokia, gaur egun *Gaztegain*, aurreko eguneko kale zurrutaren arrastoak agerikoak direla. FACEBOOK

EAJko bozeramaile Irune Gallarragak.

Amaitzeko, PSE-EEK uste du "beharrezkoa" dela gazteei erantzukizuna eskatzea: "Irteten ari gara, baina badago arrisku pandemikoa. Konturatu behar dira suarekin jolasean dabiltzala. Gai izan behar gara helarazteko kale edana gaizki dagoela, pandemia aurretik ere debekatuta zegoela. Adostasun politikoa urrats garrantzitsua da".

Helburua da kaleko edanean aritzen direnak "kontzientziatzea, gaueko aisialdiak bizilagunei eragozpenik sor ez diezaien eta zikinkeriarik sor ez dezan".

## BERGARAKO UDALBATZAKO HIRU ALDERDIEK LANKETA BATERATUA JARRIKO DUTE ABIAN

#### "Elkarrizketa eta errespetua"

Gaineratu dute arazoa "globala" dela, eta erantzunak ere hala behar duela, baina, herri mailan konponbidea emateko asmotan, arazoa "elkarrizketaren eta errespetuaren bitartez" bideratu nahi dute: "Gazteekin lotura duten eragileekin bilerak egingo dira. Haien iritzia ere entzun nahi dugulako. Eragile bakoitzak dagokigun erantzukizunez jokatu behar dugu, arazo honen aurrean errespetuz jokatzuz. Izan gazte, heldu, guraso, hezkuntza-komunitateko kide, ardura-dun politikoa...".

Antzuolan, bestetik, gazteekin bilerak egin izan dituztela azaldu du Beñardo Kortabarría alkateak: "Antzuolan gertatzen ari dena denean gertatzen ari da. Guk hitz egin dugu gazteekin eta esan diegu, gutxienez bi gauza zaindu behar direla: txukuntasuna eta bolumena edo zarata.

Izan ere, ulertzen dugu parranda egiteko beharra, gogoa eta eskubidea edukitzea; baina, lo egiteko eta atseden hartzeko eskubidea ere errespetatu behar dago. Gure ustez, bizikidetzatza da gakoa". Eta gaineratu du: "Elkarrekin hitz egin dugunean, argi dago gazteek ere ulertu eta bat egiten dutela jarrera honekin. Kontua da, gero, gauak aurrera egin ahala, hori ahaztu egiten dela eta hor sortzen direla arazoak. Ez dauka konponbide errazik gainera, batzuk ezin direlako besteen jokabidearen erantzule bihurtu. Baina egia da arazoa hor dagoela eta, nola

## IRAILEAN ZEHAR BEDERATZI ISUN PROPOSAMEN JARRI DITU ERTZAINZAK DEBAGOIENEAN

edo hala, konpondu egin behar dela. Kontua da inork ez dakielako nola".

Arrasateko Udalak, bere aldetik, kale-zurruta egiten den guñeetako garbiketa zerbitzua indartu du ekainean, uztailean ere irailean. Hala, 12.443,45 euroko kostua izango du zerbitzu horrek udan.

#### "Liskarrak" ere bai

Bergarako ertzain-etxetik azaldu dute azken asteetan "berezi-ki" Bergaran areagotu direla botila festak: "Eta Arrasaten, Aretxabaletan eta Oñatin egon badira ere, ez dugu igarri ugaritu direla". Diotenez, Antzuolan, adibidez, udan zehar baino askoz festa gutxiago antzeman dituzte. Edozelan ere, gisa horretako bilkuretan jende kopuru handia elkartzen da, "eta, kasu batzuetan, 300 lagundik gora ere elkar daitezke toki berean". Zaborra sortu ez ezik, festan parte hartzen ari direnen arteko "liskarrak" ere sortzen dira batzuetan, baita zurrutean ari direnen eta bizilagunen artean ere.

Zehaztu dute irailean zehar alkohola kalean edateagatik bederatzi isun proposamen jarri dituztela: sei Bergaran, bi Aretxabaletan eta bat Arrasaten. "Botila festekin lotutako aktuzioak Bergaran izan ditugu, batik bat. Normalean, patruilak iristerakoan gazte gehienek alde egiten dute, eta lekuan geratzen diren gutxi batzuei gogoratzen zaie ez dela baimendutako praktika bat, eta alde egiteko esaten zaie. Normalean, arazorik gabe joaten dira", azaldu dute Ertzaintzatik. Gaineratu dute salbuespenik ere egon izan dela: "Kasuren bat egon da patruilei botilak eta bestelakoak jaurti zaizkiela". Gainera, esan dute botila festa batzuetan "jende gehiegi" zegoela, eta, beraz, ez dutela horietan esku hartu, "segurtasun publikoko arazoa handiagoak saihesteko". Arrasaten ere aktuzio batzuk izan direla esan dute, "bertako Udaltzaingoarekin koordinatuta, gehienetan"; eta Aretxabaletan ere egiten dute aktuzio bat.

Azkenik, azaldu dute bizilagun edo herritarren deiak sarri jasotzen dituztela, eta dei edo abisu guztiak ongi etorriak izaten direla: "Denak erantzuteko ahalegin guztiak egiten ditugu".

**Maialen Santos** ARRASATE

1993a ezkerko Gipuzkoako nekazaritza ekologikoaren alde lanean dihardu Biolur irabazi asmorik gabeko elkarteak. Lurraldeko nekazari, abeltzain eta okin ekologikoen bilgunea da, eta, gaur egun, 125 bazkide ekoizlek edo baserritarrek eta 153 bazkide herritarrek osatzen dute, hainbat eskualdetan banatuta.

Debagoiengan daude horietako gehienak; hain zuzen, 56 dira bailarako bazkideak, 47 dira Urolakoak, 44 Goierrikoak, 31 Debabarrenekoak, 23 Tolosaldekoak, 55 Donostialdekoak eta beste 22 Nafarroa, Araba eta Bizkaikoak.

**Elkartera batzeko deia**

Biolurreko zuzendaritza batzordeko kide da egun Nere Aspiazu bergararra, eta adierazi du nekazaritza ekologikoaren alde urte luzez aritu direla lanean, eta horretan jarraitu gura dutela aurrerantzean ere. Bazkidetza kanpaina abiatu berri dute elkarteak indartzeko: "Elkartea handitu nahi dugu, besteak beste, nekazaritza ekologikoaren aldeko jarduna indartzeko; gero eta jende gehiago batu, orduan eta ordezkaritza zabalagoa izango dugu, eta indar handiago izango du gure mezuak erakunde zein herritarren aurrean". Eta gehitu du: "Bazkidetza kanpainaren bidez, jendarteari gure jardunaren berri eman gura diogu, eta erakundeei eta eragileei lankidetzarako mezua igorri. Biolurren helburu nagusia Euskal Herrian elikadura burujabetza sustatzea da, baina argi daukagu helburu potolo hori sistema aldatu nahi duten gainontzeko herritarrekin, erakundeekin eta eragileekin egin behar dugula". Elkartetik gaineratu dute eragile zein norbanako bakoitzak dituen erantzukizunez jabetzea eta "ekintzetera pasatzea" beharrezkoa dela: "Egun bizi dugun krisi ekologiko eta sozialean, entzuten ditugun diskurtso zabal eta sarri urrunekoek gure lurralde eta herrietan nola eragiten duten aintzat hartzea ezinbestekoa

## "GURE JARDUNAREN BERRI EMAN GURA DUGU BAZKIDETZA BULTZATUZ"

NERE ASPIAZU, ZUZENDARITZA



Biolurreko ekoizle eta bazkide ugari, Aretxabaletako Mitarte Garai baserrian, martitzenean. XABIER URZELAI

# la hiru hamarkada lanean, eta hazten jarraitzeko gogoz

Ekoizleek, baserritarrek eta herritarrek osatzen dute Biolur, Gipuzkoako nekazaritza ekologikoaren aldeko elkarteak. Egunerokoan egiten duten lana ezagutzera eman eta esku artean dituzten proiektuak aurrera ateratzeko bazkide berri bila ari dira

zaigu. Testuinguru horretan, elikadura –ekoizpenetik kontsumoraino– ardatz funtsezkoa da. Elikadura osasuntsua bermatzea, nekazaritza jasangarria garatzea eta landa eremu biziak sustatzeko lehen sektoreko erreleboa edota nekazarien lanaren duintasuna bermatzea dira gure lanaren oinarriak".

Horrez gain, esan du bazkidetza kanpainaren helburua Biolurren autonomia ekonomikoa indartzea ere badela: "Elkartearen diru sarrerak dibertsifikatu egin nahi ditugu, etorkizunean irauteko bermea delako". Gehitu du Udalak elkartera batu daitezen ere ari direla lanean: "Udalei eta elkartei ere bazkide egiteko gonbita egingo diegu datozen asteetan, buruan daukaten edo sor dakizkiekeen proiektuetarako lankidetzak eskaintzarekin batera".

Bazkide egiteko jarraitu beharreko urratsak ere azaldu ditu, gainera: 943 76 14 47 telefonora dei egin daiteke, edota [biolur@biolur.eus](mailto:biolur@biolur.eus) helbide elektronikora mezua bidali. Urtean 30 euroko ekarpen ekonomikoa egiten du bazkide bakoitzak, eta trukean elkarteko aldizkaria, *Gure Lurriña*, jasotzen du, besteak beste: "Noski, hori da zuzenean jasotzen duena, baina ulertzen dugu Biolurren jardunak komunitateari egiten dion ekarpena ere jasotzen duela bazkideak".

Batzordekide ez ezik, ekoizle ere bada bergararra; barazkiak

## "BAZKIDE IZATEAK BALIO DIT BAILARAN ZEIN EKOIZLE DAUDEN EZAGUTZEKO"

SABRINA PATO, BAZKIDEA

ekoizten ditu beste bi lagunekin batera. Ortugintzan hasi zen une beretik sartu zen elkartean, bere ustez, "ortugintza ulertzeko era bakarra ekologikoa izatea delako". Hain zuzen, 2013an hasi zen lan horretan, eta haren "erreferentziazko elkarte" izan zen Biolur: "Hastapenetan, beharrik handiena geneukanean, asko lagundu zigun Biolurrek".

**Bazkide eta kontsumitzaile**

Sabrina Pato bergararrak hamaika urte daramatza elkarteko kide izaten. Adierazi du Biolurrek nekazaritza ekologikoa ezagutzera ematen duela, eta haren ustez hori dela "jarraitu beharreko bidea; kontzientziazteko modua baita". Eta gaineratu du: "Bazkide izateak balio dit, besteak beste, bailaran zein ekoizle dauden ezagutzeko, zein aukera dauden produktuak eskuratzeko,

non lor daitezkeen...". Bazkide ez ezik, kontsumitzaile ere bada, gainera: "Ekologikoaren aldeko apustua egiten dut. Nire iritziz, produktuek ekologikoak, bertakoak eta garaikoak izan behar dute. Ahalik eta gutxien industrialena, alegia". Are gehiago, azaldu du azken urteetan produktuak erosteko aukerak handitu egin direla, eta, beraz, horrek erraztasunak ekarri dizkiola: "Lehen, azoketara mugitu behar izaten nuen errotera; orain, aldiz, denda batzuetan ere eskura daitezke bertako ekoizleen produktu ekologikoak".

**Hastapenak, bailaran**

Biolurren sortzaileetako bat izan zen Tomas Larrañaga antzuolarra, eta, are gehiago, elkarteko lehen presidente izendatu zuten sasoi hartan: "1990ean, nekazaritza ekologikoari buruzko lehen ikastaro orokorra egin zen Gipuzkoan, eta hartan parte hartu nuen. Bertan ezagutu nituen Debagoieneko hainbat ekoizle, eta gerora sortu genuen Biolur". Jendearen babesaren beharraz mintzatu da: "Elkarreak beti egon dira euren tokia bilatzen; izan ere, administrazioetatik jasotzen duten babesa minimoa da. Horregatik eska-

## "KOINATUA SENTSIBILIZATUTA ZEGOELAKO EGIN GENUEN JAUZI"

TOMAS LARRAÑAGA, EKOIZLEA

tzen diegu laguntza norbanakoei, funtsezkoa zaigulako".

Emazteak eta haren anaiak eraginda hasi zen nekazaritza ekologikoa egiten: "Koinatua gai honekin sentsibilizatuta zegoen erabat, eta halaxe egin genuen jauzi ekologikora. Edozelan ere, esan dezaket aurretik egiten genuen lana dezente gerturatzeko zela ekologikora". Aitortu du jasangarritasunaren alde ere egiten duela lan, ekologikoa eta jasangarria eskutik lotuta doazela uste baitu: "Kanpotik etortzen diren produktuak ez dira jasangarriak. Kalteak sortzen badituzu edo tokitik kanpoko produktuak behar izanez gero, ez da jasangarria". Bide batez, *ekologikoa* kontzeptuaren esanahia ere argitu du ekoizleak, sarri entzuten den kontzeptua izanagatik ere, esan gura duena ez delako beti jakinekora: "Kontzeptu zabal da, baina, besteak beste, hazi transgenikorik ezin dugu ekoizpenean erabili, ez eta ongari kimiko edota pestizida sistemikorik ere. Eta landatzeko lursailak txandakatu egin behar izaten ditugu".

Egun, emazteak, alabak eta hirurek jarduten dute baratze-gintzan Antzuolan, eta langile gehiagoren laguntza ere jasotzen dute. "Lau hektareako lan esparrua dugu; barazkiak eta frutak kontuan hartuta".

#### Ekologikora jauzia

Duela gutxi, irailean, gazta egiteko ekoizpen ekologikora egin du trantsizioa Lur Pagoaga artzain aretxabaletarrak: "Aspaldi nerabilen ekologikora saltoa egitea buruan, eta, azkenean, hartu dut erabakia". Erabiltzen dituen lehengai guztiak ekologikoak izango dira hemendik aurrera, eta gustura azaldu da hartutako erabakiarekin. "Biolur elkartean sartu naiz aldaketa hori egiteko, euren laguntza funtsezkoa zaidalako", dio.

#### Harrerarekin gustura

Debagoiengan egiten dituzten hainbat azoka antolatzen ditu Biolur elkartek; tartean, joan den asteburuan Aretxabaletako sanmigeletan egin zuten. Udalarekin eta Landa Garapeneko Elkartarekin elkarlanean antolatu zuten, eta, Nere Aspiazuk aitortu duenez, "erosleen artean harrera ona izan du aurten ere". Ekoizleentzat ere egun bereziak izaten dira. "Ekoizle bakoitzak

norbere produktuak merkatu-ratzeko bide ezberdinak erabiltzen dituen arren, azokak dira guztiok elkartzen gaituen tokia"

#### Lau lan-ildo

Biolurren egunerokoa aurrera ateratzeko hiru teknikariren laguntza dute elkartean, eta bertatik azaldu dute baserriarren lan boluntarioa eta beste hainbat kideren laguntza ere "ezinbestekoa" zaiela.

Guztien artean lau lan-lerro nagusi garatzen dituzte elkartean. Batetik, baserriarrei arloz arloko aholkularitza tekniko eta formakuntza eskaintzen diete: "Edonork ekoizpenari lotutako arazoren bat daukanean, dago-kion teknikariarengana edo gainontzeko baserriararengana jotzen du; teknikariek, tarteka, bisitak egiten dituzte baserrietara; formakuntza saioak antolatzen ditugu bazkideentzat zein ez bazkideentzat. Jarduerari ekin nahi diotenei babes handia eskaintzen diegu, bai teknikarientzako, baita bere inguruko gainontzeko baserriarrena ere. Guk argi baitaukagu: zenbat eta ekoizle edota baserriar gehiago izan, orduan eta hobeto". Bestetik, nekazaritza ekologikoaren aldeko sentsibilizazioa egiten dute Biolurren: "Ekoizpen eredu honek naturarengan, tokiko ekonomian eta kontsumitzaileen osasunarengan dituen onuren berri emateko hainbat ekimen egiten ditugu urtean zehar". Hori gutxi balitz, baserriarren eta erakundeen arteko bitartekari lana egiten dute, eta baita agroekologiaren aldeko "apustu politikoa" ere. Azkenik, beste eragile eta erakunde batzuekin batera –EHKO, ENEEK-Ekolurra Neiker, Lurgintza...– arloz arloko proiektuetan hartzen dute parte, eta eta Foru Aldundiak kudeatzen duen Gaztenek gazte instalaziorako programan tutore lanetan aritzen dira baita ere. "Elikadura burujabetza ardatz, ekonomia sozial eraldatzailea, tokikoa, jasangarria, eta gure lur eta herrietan errotua bultzatu eta garatzen dihardugu", argitu dute Biolurreko kideek.

### "BIOLURREN LAGUNTZA FUNTSEZKOA ZAIT ALDAKETARAKO"

LUR PAGOAGA, ARTZAINA

### Bidegi neguko artapen zentro bat egiten dabil Bergaran

AP-1 autobideari eta A-636 autobideari emango die zerbitzua zentro berriak, eta, nagusiki, neguko bide lanetarako zerbitzua emateko bideratuko dute: elurra kentzeko makinak eta gatz biltzea hartuko ditu, besteak beste. Bidegi bi fasetan egingo ditu lanak, eta lehena neguko kanpaina hasi orduko amaitzea espero dute.

### Palmako kaltetuei laguntzeko produktu biltzea abian da

Irlako sumendiak kaltetu dituen laguntzeko produktu biltzea abiatu dute Aita Menni ospitalean. Higienarako produktuak, pijamak, toallak, maskarak eta iraungitze epe luzeko elikagaiak batuko dituzte ospitalean bertan, urriaren 10era arte. La Caixaren bitartez, berriz, ekarpen ekonomikoak egin daitezke, EF26 2100 7109 3122 0015 5652 zenbakian.

### Urriaren 23an egingo dute artile batzea Debagoiengan

Urriaren 23an egingo dute artile batzea Gipuzkoan, eta Debagoiengan hilaren 23an, zapatua, Epeleko zabortegira –Elorregi auzoa– eraman beharko da artilea. Zerbitzua jasotzeko interesa duten artzainek 627 45 23 97 telefono zenbakira dei egin dezakete, eta zenbaki horretan bertan emango diete beharrezko informazio guztia.



Julen Abasolo, Kalkuko abeltzain Aretxabaletan.

# Kaiku,

## Debagoieneko baserriar familien esnea

**K**aiku proiektua abeltzain familiek osatzen dute eta duela 60 urte baino lehenagoetik konpromiso sendoa du sektorearekin. Proiektu horretan denak berdintzat hartuak dira, handiak zein txikiak izan. Horri esker, abeltzain txikiak euren jarduerari garatzen jarrai dezakete, bai baitakite euren ekoizpen osoa jaso egingo dela, baserriaren kokapen geografikoa eta ekoizten duten litro-kopurua kontuan izan gabe.

Maiz ahaztua izan den baina gure gizartearentzat eta hurbileneko inguruarentzat funtsezkoa den sektore honek landa-ingurune lanpostuen sorrera eta ekonomia zirkularra sustatzen ditu.

Kalkuko abeltzain familia horietako bat Julen Abasolo eta bere anaia da. Aretxabaletan dute baserriaren eguneroko egiten dute lan esnea ekoizten.

Abeltzainizan tradizioa duen familia batekoak dira, eta ahaletin handia egin dute euren baserriaren teknologia integratzeko, jarduerari profesionalizatu eta animalien ongizatea hobetze aldera. Ezarri duten aurrerakuntza teknologiko horietako bat jezteko robota izan da, eta, horri esker, behi bakoitza eskariaren arabera jezten da.

Horixe da, hain zuzen ere, animaliak tratatzeko modu naturala. "Inguru honetako jendearen ozaugarria den bezala, gu ere aitzindariak izan ginen eta teknologia bertatu genuen gure baserriari; horrek lagundu egin digu

eraginkorrak eta autosufizienteak izaten eta gure behien ongizatea maximizatzen. Horri esker, hemengo, Debagoieneko, esnea ekoizten dugu, eta, hurbilagokoa denez, freskoagoa, zapora handikoa eta gure ingurunea errespetatzen duena", ziurtatu du Julenek.

Gainera, teknologiak aukera ematen die zehatz jakiteko zein den behi bakoitzaren osasun-egoera. Behien ongizatea eta Aretxabaletako larretako belarrek behiak modu erabat naturalean elikatzea funtsezkoak dira kalitate handieneko eta zapora handiko esnea ekoizteko.

Kalkuko abeltzain familien lanari eta ahaletinari esker, besteak beste, Julenen familiari esker, gertutasuneko produktua lortzen dugu, Debagoiengan bizi diren familiek ekoiztutako, uste baino askoz hurbilagokoa. QR kode hau eskaneatuz gero, zure eremuan zenbat ganadutegi dauden ikusi eta Kaiku km0 ekoizpen jasangarriko esne-brik bakoitzaren atzean dauden familiek ezagutu ahalko dituzu.

#### EZAGUTU



nortzuk garen **KAIKUKO BASERRITAR FAMILIAK** eta zein **HURBIL** gauden zuek

**IRABAZI URTEBETEKO ESNEA DOAN.**

# Piramide demografikoa, inoiz baino irauliago

Debagoiendarren %23,6k 65 urte baino gehiago dituzte; duela 40 urte, ordea, %8,8 ziren 65etik gorako herritarrek bailaran. Ezbairik gabe, bizi-itxaropena handitzeak eta jaiotza-tasaren beherakada biziak gizar-tearen zahartzea ekarri dute

**Uxue Igarza Loiola** DEBAGOIENA

Gaur, hilak 1, Pertsona Helduen Nazioarteko Eguna da; Erkidegoko eta Debagoieneko demografia-datuak ikertu eta gizar-teari erradiografia bat egiteko aitzakia aproposa.

Zenbakiek ez dute zalantzarako tarterik uzten: gizar-tea zahartzen ari da. Demografiari dagokionez, populazioaren zahartzeak esan nahi du herritarren adinen arabera egitura aldatu egin dela. Kasu honetan, jaiotza-tasa murrizteak eta bizi-itxaropena handitzeak eragiten dute aldaketa.

Eustat Estatistika Erakundeak 2020an erregistratutako datuen arabera, Debagoieneko biztanleen %23,6 dira 65 urtetik gorakoa. Datu hori duela lau hamarkadakoarekin alderatuz gero, debagoiendarren %8,8 bakarrik ziren 65etik gorakoak; ia hamabost puntu egin ditu gora 40 urtean. Bestetik, 0 eta 19 urte artekoen taldeari erreparatuta, bailarako biztanleen %19 ziren iaz; 1981ean, berriz, %34, heren bat, osatzen zuten.

## Jaiotzak erdira murriztu dira

Aipatu bezala, gizar-tea zahartzearen arrazoietakoa bat jaiotza-tasa murriztea da; hots, haur gutxiago ekartzea. Bailaran, 40 urtean, ia erdira murriztu dira jaiotzak; zehazki, %46 egin dute behera. Bestelako datu bat ematearren, 1976an ia mila jaiotza erregistratu ziren eskualdean (992); 1991n, berriz, 479ra jaitsi zen kopurua; 2010ean, gora egin zuen, 670ra iritsi arte; eta ordutik, urtez urte, behera egin du datuak. Iaz, 408 haur jaio ziren Debagoiengan; gutxienez, mende erdian erregistratutako datu apalena da.

Joera bera islatu da Euskal Autonomia Erkidegoan ere. Datu berrienak kontuan hartuta, 2021eko lehen hiruhilekoan, 3.298 jaiotza izan ziren; hau da, au-



Ama eta semea, poltsikoko telefonoari begira. XABI URZELAI

## HAMARKADA BATEAN, IA HIRU URTE HAZI DA BIZI-ITXAROPENA EAE-N: 81 URTEKOA IZAN DA 2020AN

rreko urteko tarte berarekin alderatuta, %12,5 gutxiago.


**81 urteko bizi-itxaropena EAEn** 2020an hildako pertsonen batez besteko adina 81 urtekoa izan zen EAEn. Pandemiak pandemia,

datuek erakusten dutenez, hamarkada batean bakarrik, 2,9 egin du gora bizi-itxaropenak.

Asko dira biztanleriaren zahartzeak dituen ondorioak –batez ere, sozioekonomikoak–, eta horietako batzuk ondo ezagunak dira: lan-adinean daudenen karga handitzea, gastu soziala areagotzea, pentsio-sistema eraldatu beharra... Horrek ongizate egoerari eragiten dio, eta, hain zuzen ere, hori da adineko pertsonen gaurko egunez kalera ateratu duten mezua: bizitza duinen alde egitearen garrantzia.

## Debagoieneko bilakaera demografikoa

ITURRIA: EUSTAT



## EKINTZAILTZA GARAIA



Topaketen ostean, enpresetako kideak eraikinaren kanpoaldean. TXOMIN MADINA

## Garaia enpresak euren arteko harremanak estutzen ari dira

Parke Teknologikora batutako lau enpresak euren burua aurkeztu zuten astelehenean egindako topaketetan.

**Uxue Igarza Loiola.** OÑATI

60 enpresa daude Garaia Parke Teknologikoan lanean, eta, guttien arteko harremanak estutzeko helburuarekin, topaketa egin zuten hilaren 27an. Bertan, Parkera batu diren azken zazpi enpresetatik lauk euren burua aurkeztu zuten Garaia "enpresa beterranoen" aurrean. Idurre Albizu Garaia enpresaren garapenerako arduradunaren arabera, halako elkarguneak garrantzitsuak dira; besteak beste, sareak ehuntzeko: "Garaia helburuetako bat bertan dauden enpresen artean harremanak sortzea da, eta baita elkarrekin baliatuz aukerak sortzea ere".

Enpresa berrietako kideek ere Albizuk adierazitako hori bera nabarmendu zuten; adibidez, Excelencia-Tech enpresako Miguel Vanegasen: "Topaketek gure jarduna aurkezteko balio izan dute. Gainera, kontaktu pare bat ere egin ditugu. Ea hemen dik zerbait irteten den".

## Berriak eta askotarikoak

Aurrez aipatu bezala, zazpi dira Garaia aukeratu duten enpresa berriak; horietako bi dira Excelencia-Tech eta Daunert. Lehenengoak 3D inprimaketako irtenbide pertsonalizatuak eskaintzen dizkie hainbat industria-sektoreri. Orain dela hiru hilabete hasi zuten Garaian euren lana, eta, enpresako kide Miguel Vanegasen esanetan, bezeroekin "gertutasuna" lortzea dago erabakiaren atzean: "Gure enpre-

sarentzat oso garrantzitsua da honen moduko inguru industrial batean egotea".

Kataluniako Daunert enpresak, berriz, ehun urte baino gehiagoko esperientzia du makina-erremintaren esparruan, eta horrek ere "estrategikotzat" jo du Debagoienara etortzea. Igor Zabala ordezkariaren esanetan, Garaia leku aproposa da penintsularen iparraldean bulegoa jartzeko: "Irudi aldetik, dituen zerbitzuengatik eta, batez ere, kokapenagatik Garaia Parke Teknologikoa aukera ona iruditu zaigu".

## Garaia, geroz eta handiagoa

Enpresa berrien etorrerak etorkizunera begira jartzeko aukera ere eman zuen asteleheneko topaketetan, eta negozio garapenerako arduraduna itxaropentsu agertu zen. "Gauzak gaur egun doazen moduan badoaz, Garaia hazten jarraituko du. Ez bakarrik enpresa berriak sartzen ari direlako, aurrez zaudenak hazten doazelako baizik". Garaian dauden enpresek "geroz eta leku eta zerbitzu gehiago" eskatzen dituztela adierazi zuen Albizuk, eta horrek "kalitatezko enplegua" sortzen laguntzen duela gaineratu zuen.

## PARKEA, HANDITZEN: ENPRESA BERRIAK BATZEAZ GAIN, LEHENDIK DAUDENAK HAZTEN ARI DIRA

## Eskoriatza eta Kuartuenako bidegorria

JAVIER ERRASTI

ESKORIATZA

Eskoriatzako herrigunea eta Kuartuenako etxeak lotzen dituen bidegorriaren ohiko erabiltzailea naiz. Hori dela-eta, Mazmelako bidegurutzetik Kuartuenara doan bidegorri zatiarekin lotutako bi konturen gainean jarri nahi dut arreta.

Lehenengo kontua: leku horretan ibiltarientzako eremu arriskutsu bat dago, eta ni neu ere ezbehar bat izateko zorian egon nintzen bertan. Errepidetik sartzeko aldapak malda handia du eta bidegorrian sartzen da, metro erdi inguru. Arazoa bistakoa da: bidegorriaren ertzetik bazoaz –bai taldean zoazelako, bai kontrako noranzkoan datorren jendearekin gurutzatzen zarelako, bai beste edozein arrazoiengatik–, eta maldan zapaltzen baduzu, desorekatzeko, irrist egiteko eta erortzeko arriskua handia da; batez ere, adineko pertsona bazara. Hori eragozteko, uste dut nahikoa litzatekeela zerbait jartzea; adibidez, hesi bat edo, estropezu eginez gero, errepidera erortzea saihesteko beste edozein irtenbide.

Bigarren kontua ni neu bezalaxe bidegorriaren erabiltzaile diren hainbat lagunek esan didaten zerbaitekin lotuta dago: oso ondo legoke zati horretan banku batzuk jartzea. Bereziki bidegorriaren erabiltzaile zaharrenek eskertuko lukete. Gainera, uste dut banku batzuk jartzea ez dela batere zaila: ez lioke Eskoriatzako Udalarin inolako arazorik sortu behar, ez gehiegizko gastuarena, ez itxitura beharrezkoa den lekuan atzeratzeko ere –portzierto, duela gutxi, batzuek bidegorriaren ertzeraino aurreratu zuten itxitura–.

Ildo horretan, honako hau kontuan izan behar da:

-Gipuzkoako Errepideen eta Bideen Foru Arauak ezartzen duenez, edozein itxitura gutxienez bide baten ertzetik metro batera egin behar da.

-Eskoriatzako Udalak trenbidearen lurra erosi zituenean, 5 metroko zabalera erosi zuen; bidegorriak egun hartzen duena baino dezente gehiago, beraz. Nik egin dudana bezala, erosketa eskritura irakurtzen duen edonork egiazta dezake aipatutakoa.

Horiek horrela, egindako bi eskaerekin ados dauden herritarrak, batik bat bidegorriaren ohiko erabiltzaileak, animatu nahi ditut nik egin bezala Eskoriatzako Udalarin aipatutako eskaera helaraztera. Izan ere, zenbat eta gehiago izan eskaera egiten dugunok, orduan eta errazagoa izango da eskatutakoa lortzea.

## Pazienteen eta Erabiltzaileen Batzordearen gutuna

AXUN TOTORIKAGUENA IMAZ

ONKOLOGIKOKO PAZIENTEEN ETA ERABILTZAILEEN BATZORDEA DONOSTIA

Onkologikoa Ospitaleko Pazienteen eta Erabiltzaileen Batzordetik iritzi publikora jotzen dugu Onkologikoa bizi duen egoera salatzeko, ospitale-ereduari buruz duen definiziorik ezagatik eta, asistentzia-jarduerari dagokionez, ospitaleak gaur egun gutxiegia erabiltzeagatik.

Paziente eta erabiltzaileok kaltetuta gaude asistentzia-galera horren aurrean. Hori dela-eta, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Kutxa Fundazioari, lotura-prozesuaren arduradun diren aldetik, dagoen arazoari irtenbidea emateko eskatzen diegu, Onkologikoari dagokion espazioa emanez, dauden

osasun-zerbitzu eta baliabideak optimizatuz –Bularreko Unitatea, Ginekologia, Kirurgia, eta abar– eta, aldi berean, ospitale honen ezaugarri izan den asistentzia-kalitateari eutsiz.

Gure ustez, gizarteak parte hartu behar du giza osasun publikoa eta kalitatezkoa eskatzeko orduan. Horregatik, manifestazio-deialdia babesten dugu, eta herritarrak gonbidatzen ditugu Onkologikoko profesionalek datorren larunbaterako, 2021eko urriaren 2rako, Donostiako Anoeta estadioko zabalgunean, antolatutako mobilizazioarekin bat egitera, eguerdiko 12etan.

## Zaharrak gara, eta zer? Nagusien Nazioarteko Eguneko gogoetak

PILAR ETXANIZ KORTABARRIA

DEBAGOIENEN KONTSEILUA DEBAGOIENA

Nagusia gara, zaharrak, geldoagoak, osasun gorabeherekin. Baina pozik gaude gaudeneraino iritsi garelako. Anitzak gara, bakoitza bere bizi-esperientziarekin. Ez dugu bizitzeko gogo galduta. Garrantzi handiko batailak libratu ditugu, batzuk irabaziz eta beste batzuk galduz; baina ahalegindu gara eta saiatzen dihardugu!

Zahartzaroari buruzko pentsamendu sozialak deritzo gaztetasunarena dela merezi duen aro bakarra. Beraz, gure zimurrak ezabatu egin behar dira, itxura gazteagoa eduki. Kontsumo-objektu soil bihurtzen gaituzte, batez ere emakumeak, itxura fisikoa gainbaloratua dagoelako kosmetikoen, kirurgia estetikoaren eta antzerako merkatuaren mesedetan. Edukazio falta omen da adina galdetzea; ideia honek geure burua ukatzera garamatza, gure autoestimua bizkarra ematera. Edo "zure adinean zer nahi duzu, bada?". Zer nahi dugu? Beste edozeinek

nahi duena, jakina: ondo egotea eta dugun bizitza bakarra positiboki bizitzea. Gizarte honi ekarpen baliotsuak egiten dizkiogu eta horrela jarraituko dugu: mobilizazioekin, familiari laguntza eskaintzen, elkarte sozialetan lan egiten eta bizitzaz gozatzen.

Prebentzioan oinarritutako politika publikoak aldarrikatzen ditugu, gure osasun fisiko eta mentala sustatzeko. Gure autonomian eta erabakitze dugu eskubidean oinarrituko direnak. Bizitzeko baldintza egokiak merezi ditugu, gure premien araberrako etxebizitzak, pertsonen arreta integrala eta pertsonalizatua ziurtatuko dituztenak. Zaharrei zuzendutako zerbitzuak ez daitezela negozio-iturri bilakatu, askotan paradisu fiskaletara etekinak bideratzen dituzten multinazionalak bezala. Banakako ahalmen ekonomikoak ez dezala kalitatezko zerbitzu publikoa mugatu. Denon diruarekin ordaintzen diren zerbitzuen kontrol zehatza eta ikerketarako inbertsioak eskatzen ditugu: demenziak, aukeratu ez diren bakardadeak, gureganako indarkeria espezifikoak... ikertzeko eta soluziobideak aurkitzeko.

## Asmakizunen beldur

JULEN ABASOLO GALLASTEGI

ARETXABALETA

Aretxabaletan landa lurra gutxituko dituen proposamen berri bat aurkeztu da: Olatza parkea. Bultzatzaileen esanetan, gaur egun abeltzaintzara bideratutako 2,5 hektarea okupatuko lituzke, eta, esan ez badute ere, askoz gehiagoren erabilera baldintzatu. Abeltzaina naizenez, horrelako albisteek barruak nahasten dizkirate.

Herritarren eskaerei erantzuna emateko bururatu zaiela esan dute.

Idea estrategikoa eta ekologikoa ei da, gainera. Horrela planteatzeko, azterketa ere egin dutela diote. Ez dakit zer aukera eman dien eten gabe behera doan betelanak, bertan igeriputzu bat eraikitzeke.

Hemengo klimatologiak bere erabilera egun gutxitara mugatuko zuela-eta, bere egunean Ibarra inguruan igerileku irekiak egiteko ideia atzera bota zela uste dut. Ez dakit puntu hau den aldatu dena, baina beharra berriro azaldu bada, eremu hori askoz egokiagoa delakoan nago.

Aretxabaleta, ura behar zela-eta, hamabost baserri galdu zituen urtegiarekin, 80tik gora hektarea nekazaritza-lurrekin batera. Galera handia, edonola ere, lehen sektorearentzako. Gerora, industrialdeek eta handitu beharrak errekatik gertuko lurrik emankorrenak irentsi dituzte. Orain, berriz, aisialdi behararen aroan datozkigu erasoak. Ez gara makalak beharrak sortzen.

Gure abeltzaintza jarduera zenbateraino gerturatu daitekeen hirira araututa dago, baina alderantzizkorik ez da existitzen. Kaleak ez du araurik gure eremua okupatzeko. Beti izango gara asmakizunen beldur, beti aterako gara galtzaile.

Holako ideiak bultzatzen dituzuenok, uste dut, balantzan jarriko dituzuela alde onak eta txarrak. Inoiz ez ezazue nekazaritza-lurra hutsaren hurrengo balioan jarri. Ez zuek ez eta eguzki plakak zelai ederrean jarriko dituzuenok ere.

Bizi osoa daramat baserri lanetan, esnea bertan ekoiztu behar dela sinistuta nago, eta ez Noviercasen, haragi, barazki, ardiki edo gainontzeko elikagai guztiak bezalaxe. Baserritarrok ere lur onenetan hobeto moldatzen gara. Gure ogiaren bila ez gaitzazue mendira bultzatu, hantxe ere otsoaren aurka egiterik ez daukagu eta.



ZABALIK

AMAGOIA LASAGABASTER

## Irtenbide magikorik ez

Ostirala, gaueko hamaikak eta ohean The Potes taldearen kontzertua entzuten. Seminarixoko karpatik zetozkidan oihuak, txaloak eta barreak. Nekatuta, ezin lorik egin, baina nire barruan poztasun txiki bat. Pasatuko ote genuen txarrena? Gazteek berriro aurkituko ote dute beraien lekua? Badakit Bergaran arazoak ditugula gazte batzuen eta deskantsurako eskubidea duten hainbat bizilagunen artean. Ez da gai samurra, ez bizilagunendako, ezta seme-alaba gazteak dituztenendako. Batzuek bietatik izango dute, gaueko iskanbila eta, tartean, beraien seme-alabak festan.

Argi dago ohitura batzuk gelditzeko etorri direla. Gazteek edaten dutela; egia borobila. Baina bai oraingoek, bai beraien gurasoen belaunaldikoek eta baita beraien aitonen –nahita jarri dut bakarrik *aitonen*– garaikoek ere.

### ESANGO NUKE GAUEZ OIHUKA IBILTZEN DIREN ASKO IKASLE ETA LANGILE FINAK DIRELA, ARDURATSUAK...

Txikiteoa, poteoa, terrazeoa, litrotzarrak... Adaptazio kontua izan da beti, eta orain, tabernak erdi itxita, ahal den lekuan aurkitzen dute jaia.

Ez dut ikerketa soziologikorik egin, baina

esango nuke gauez oihuka ibiltzen diren asko eta asko ikasle eta langile finak direla, arduratsuak, aitona-amonak maitasunez zaintzen dituztenak, lagunak, emakumeen eskubideak defendatzen dituztenak, planeta zaintzen dutenak...

Baina gazteak diren aldetik, badira ere odol beroak, harroak, ausartak, kirten samarrak batzuetan, eta, batez ere, inkoherenteak. Ostegunean arrisku klimatikoagatik greba egin, baina zapatuan plastikoz josita utziko dugu San Martzial. Eta zer egingo diogu, ba? Akatsak, inkoherentziak ere, bizitzako irakasgai dira. Oreka puntua topatu beharko dugu, kontuak okerrera joan aurretik. Eta berriketa bai, baina irtenbide magikorik ez.

Ez nuke tarte hau amaitu nahi bestelako zarata bat aipatu barik. Honek ere asko izorratzen du gaueko ordu txikietan nire laguna: San Pedro elizako kanpaiak. Horiek isiltzea errazagoa izan beharko luke... baina auskalo!

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Herenamamen memoria galdua

JUNE FERNANDEZ

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Lela eta Josefa deitzen ziren nire aititeren bi amamak. Biak ama ezkongabeak izan ziren. Ez al da bitxia? [...]

Jakin nuenean, inkontzienteki biktimaren rola esleitu nien: herriko jauntxoek bortxatuak edo mutil-lagunek engainatuak izan zirela suposatu nuen. Aitzitik, nire aititek behin esan zidan haien bizimodua hori zela, ez zutela inoren emazte izan nahi. [...]

"Feriantekin ibiltzen ziren", argitu zidan aititek. Horrek esan nahi al du

azoketan ligatzen zuten emakume libreak zirela? Irakurri dudaren arabera, ez dirudi Galiziako landako emakumeek sexu askatasunaz gozatu zutenik. [...]

Aitite hil berri da eta egiteke geratu zaizkidan galderak bota dizkiot haren araba Maria Teresari, baina hura askoz gazteagoa da eta ez zuen Josefa ezagutu. Kontatu dit Lela jorنالaria zela, sasoiko lanak hartzen zituela, gereziak batu eta. Bere alaba –nire aitite eta izeko Maria Teresaren ama– ezkondu zenean, erretiratu zen eta haiekin bizi izan zen hil arte. Txikitari, Maria Teresak Lelari galdetu zion: "Amama, nola deitzen da gure aitite?". "Xan, Xan, Xan\*", hiru aldiz,

bota zion, pikardiaz. Umeak ez zuen txistea ulertu. [...]

Maria Teresak burutik pasa ez zaidan aukera bat iradoki dit: "Feriantekin ibiltzen zirela? Agian, ogia irabazteko modua zuten!". Landa-eremuko emakume pobreak noizbehinka prostituzioan aritzen ziren hipotesia aipatzen dute historialariek... [...]

Nire aitite hil da eta, harekin, nire herenamamen memoria. Honek pentsarazi dit familietan zein istorioak kontatzen diren eta zeintzuk isilean gordetzen edo, askoz jota, haurtzaroko pasadizoetara mugatzen.

\*Xan edo Xoan, galegoz, Juan da.

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

#### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

#### Lehendakaria

Monika Belastegi.  
Zuzendari nagusia  
Iban Arantzabal.  
Eduki zuzendaria  
Eneko Azkarate.

#### Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

#### Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.  
Administrazio zuzendaria  
Agurtzane Gaintzarain.

#### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

#### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

#### Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

#### Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
Maketazioa  
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,  
Amaia Martinez de Arenaza.  
Publizitatea  
Mireia Larrañaga,  
Ziortza Martin,  
Amaia Mundiñano.

#### Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

#### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

#### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
publi@goiena.eus  
EGOITZA NAGUSIA  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
berriak@goiena.eus

#### Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X  
Tirada: 19.000 ale  
Difusioa: 18.723 ale

#### Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

#### LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatikoko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta  
Hizkuntza  
Politika Sailak  
(Hizkuntza  
Politikarako  
Sailburuordetzak)  
diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA



## BERBAGAI

# "Euskarazko aisialdia saretzera dator Kukulaisi"

**NEREA GABILONDO ARANBARRI** KUKULAIISI TOPAGUNEKO LEHENDAKARI ORDEA

**Larraitz Zeberio Lekuona** ARRASATE Euskarazko aisialdi hezitzailearen eremua lantzen duten Euskaltzaleen Topaguneko hamalau elkarte batu dira Kukulaisi sortzeko. Nerea Gabilondo Aranbarri (Bergara - 1978) zuzendaritza taldeko kidea da.

## Zer da Kukulaisi?

Krisialdiek itzalguneak eta argiguneak izaten dituzte, eta Kukulaisi argigune horietako bat da. Koronabirusaren agerraldiarekin ikusi genuen nola gure sektorea ez zen kontuan hartu. Ez zegoen joko eremu garbirik eta ezjakintasun egoera horretan elkartzeko premia ikusi genuen. 2020ko udaldia nola planteatu erabakitzeke, dekretuetan ulertzen ez genituenak kontsultatzeko, ludoteka eta gazte txokoak berriz ere martxan jartzeko... Saretzen hasi ginen, eta, hain zuzen, beharretik eta modu naturalean abiatutako dinamikak, bada, Kukulaisi ekarri du.



Nerea Gabilondo Aranbarri, Arrasaten. L.Z.L.

## Zeintzuk izango dira Kukulaisiren egitekoak?

Forma ematea tokatuko da orain. TopaLABek txosten bat egin du non euskararen biziberritze prozesuan ildo estrategiko moduan jaso duen

euskarazko aisialdi hezitzailea. Lanketa lerroetako bat izango da. Gero, administrazioaren aurrean sektoreari ikusgarritasuna emateko tresna ere izango da.

Lehentasanak finkatzeko daude, baina asmoa da premiak identifikatzea horietan eragiten hasteko ikasturtean zehar. Kukulaisik balioko du, baita ere, administrazioaren aurrean sektoreak duen ikusgarritasun faltari aurre egiteko.

## Hizkuntza ereduak eta murgiltze prozesuak albiste diren une honetan, euskarazko aisialdiak badu zer esanik, ezta?

Hezkuntzaren gain uzten da lan handi bat, baina garbi dago ez dela iristen haur eta nerabe guztiengana, eta aisialdia tresna garrantzitsua izan daiteke horien denbora librean eragiteko. Garrantzitsua da euskarazko aisialdi hezitzaile saretua edukitzea herrietan, eta eskolatik kanpo ere murgiltzea bermatzea. Haurrek eta nerabeek ordu kopuru bat egiten dute ikastetxeetan. Mugatua da. Herrian aisialdi eskaintza gero eta zabalagoa eta saretuago egonda, aukera handiagoa egongo da eskolaz kanpoko orduetan ere euskarak presentzia izan dezan; batez ere, etxean aukera hori ez dutenen kasuan. Aisialdia, gainera, bizipen gozagarriekin lotzen da eta hizkuntzaren

barneraketa arrakastatsua edo errazagoa da.

## Zein da egoera Debagoiengan?

Esango nuke Oñatik arnagune izaten jarraitzen duela, eta Aretxabaletak tinko samar mantentzen diola. Arrasaten, ordea, badira lauzpabost urte euskararen hazkundera apaltzen doala. Gorantz egin du urteetan, baina, EAEko joera orokorrarekin bat eginez, goranzko kurba hori apaltzen eta lautzen joan da.

## Laster aztertuko dituzue Kukulaisin elkarte bakoitzak dituen premiak eta lehentasanak. Txatxilipurdiren kasuan, zer nabarmenduko zenuke?

Euskara joera berriekin lotzea –musika estilo berriak, esaterako–, eta kultura aniztasuna bihurtzea kulturartekotasuna. Hau da, elkar-ezagutza eta elkar-ekintza bermatzea. Ludoteketan, esaterako, islatuta egon beharko luke herriko komunitate guztiak. Detektatu dugu, baita ere, 10-12 urteko erabiltzaileen parte hartzea jaisten doala. Hori nola berraktibatu aztertu behar da. Gazte txokoetan, berriz, maskulinitate hegemonikoaren gaiari heldu behar zaio. Mutilen kodea oso indartsua da eta hori ez da kasualitatea. Patroi bat da.

## ITURRI ONETIK

### Soraluze-Bergara lasterketa ez da egingo aurten ere

Pandemia tarteko iaz egin ezin zituzten kirol hitzordu asko normal antolatuko dituzte udazken honetan: urriaren 9an egingo dute Hiru Haundiak proba, eta Behobia-Donostiak ez du 2021 honetan kalerik egingo. Debagoiengan, berriz, GOIENAK jakin du zenbait lasterketa ez dituztela egingo. Udazkenean egin ohi duten Oñati-Arrasate lasterketa ez dute egingo, eta Antxintxikako taldekideek ere erabaki dute azaroko lehenengo asteburuan egiten duten Soraluze-Bergara lasterketa ez egitea.

## ALBISTE IZAN ZEN



2010-09-28

### Mesedetako Amek, agur Eskoriatzari

Karitateko Mesedetako azken lau mojak Eskoriatzatik joan ziren. Izan ere, haien kongregazioko zuzendaritzak erabaki zuen Euskal Herriko lau komentutan banatzea. Sor Teresa Jauregi, abadesa, Gasteizera joan zen; sor Arantxa Barrutia, Zumarragara; sor Pilar Bedia, Donostiara; eta sor Mari Angeles Aranguren, Nafarroara, Alkotzera. 98 urte egin zuten Eskoriatzan Mesedetako kongregazioko kideek.

## HAU BE BADOGU!

### La Palmako sumendiari jarraipena, gertutik

Sumendiaren nondik norakoak jarraitu dituzte txiolarari euskaldunek, umorez:

*@haritzgarmendia*: "Hain garrantzitsua da euskal herritarrontzat La Palmako sumendia? EITB ikusita ematen du sumendi hori Gorbeian dagoela..."

*@Thomas707*: "La Palmako sumendia urtu egin behar dela dirudi. A ze ikara!!"

*@aintzanemug*: "Sumendia dronetik. Egunkar daramazkit hipnotizatuta".

*@ntxapela*: "La Palmako sumendia atrakzio turistiko moduan erabiliko dute..."

*@gartxot12*: "Ikaragarri polita La Palmako sumendia".

## D2030: ELKARRIZKETA

**Miren Arregi** ARRASATE  
Debagoieneko Antzerki Plataformak bailaran antzerkia bultzatzea du helburu, baita, kulturak eraldaketa sozialerako duen gaitasunetik, eragiteko bideak zabaltzea ere. D2030 ekimenaren baitan ikerketa proiektu bat garatzen dihardute, D2030ek bilatzen duen eraldaketaren parte izan dadin antzerkia ere.

**Debagoieneko Antzerki Plataformak zer eskaini gura dio Debagoienari?**

DAPen helburua bailaran antzerkia bultzatu, indartu eta zabaltzea da.

Antzerkiaren bueltan lanean ari garenon indarrak batu nahi ditugu, elkarri lagundu ahal izateko, batera lan egiteko, jende gehiagorengana iristeko...

Eta, aldi berean, Debagoiengan antzerkiaren presentzia handitzea, herritar gehiagorengana iristeko aukera izan dezan, honek ekarri ditzakeen onurekin, maila pertsonalean zein bailara mailan, kultura eraldaketa sozialerako giltza gisa ulertzen dugu DAPen.

**Hainbat lan-ildo dituzue martxan; badago baten bat besteak baino aurreratuago?**

Bai. DAP Formakuntza martxan jarri dugu dagoeneko. Kurtso honetarako apustua da. Antzerki Formakuntza herritarren zati handi batengana iristeko bide gisa ikusi dugu, ikuslea aulkitik jaiki eta nork bere gorputzean bizitzeko aukera zabaldu dugu, eta interesa dagoela begi-bistakoa izan da.

**Zertan datza?**

Izenak berak dioten moduan, antzerkian formakuntza da. Bi mailatan landu dugu: batetik, hezkuntza formalean, non Iurgi Etxeberriak martxan jarritako Iufala! proiektuarekin jarraitu dugun eta indarrak batzean eskola gehiagotara zabaltzeko aukera izan dugun. Iufala! LH-ko 5. eta 6. mailatan jarri dugu martxan, eta DBH-ko 1. eta 2. mailetarako Baliatu proposatu dugu, hau ere Iurgik aurretik landutakoa. Gainera, Kultura Eskola programan sartu da Baliatu.

# "Antzerkia eta kultura, orokorrean, eraldaketa sozialerako giltza gisa ulertzen ditugu"

**AMAIA CASTAÑEDA URRESTARAZU** DAP-EKO KOORDINATZAILEA

Debagoieneko Antzerki Plataforma arte eszenikoen eta kulturaren mundutik eraldaketa bultzatzeko bokazioz sortu da; oñatiarra da proiektuaren koordinatzailea



Amaia Castañeda Urrestarazu. A.C

Bestetik, eskolaz kanpoko taldeak egongo lirateke, non helduen, gazteen eta haurren taldeak martxan jarri diren Oñatin, Arrasaten eta Bergaran. Hauek Doke Antzerki Taldearekin, Jardun

Euskara Elkartearekin eta Irazan Gunearekin elkarlanean sortu dira; guztiak aurretik lanean zebiltzan antzerki eskolekin, eta DAPek ere egin du hor bere ekarpena.

**Proposatzen dituzuen lan-ildoak dira D2030ek bultzatuta landu duzuen ikerketaren emaitza?**

Ikerketa oraindik martxan dago, baina bai; hein handi batean, hor ikusitako beharretatik irten dira.

**Zein da ikerketaren helburua?**

Ikerketaren bitartez, Debagoieneko antzerkiaren egoera aztertu gura izan dugu, baina ez hori bakarrik, baliatu baitugu beste proiektu batzuk ezagutzeko, arte eszenikoen eta, orokorrean, kulturaren egoera aztertuz, eta kulturatik eraldaketa sozialean zelan eragin daitekeen.

**Zein ikasketa atera dituzue?**

Momentuz, asko irakurri eta galdetu dugu, eta oraindik falta zaigu, baina esango nuke nagusiki egiteko beharra ikusten dela, baina horretarako baliabideak falta direla –ulertu ditzagun baliabideak ez bakarrik baliabide ekonomiko gisa–. Horretaz gain, aipatu nahi nuke proiektu honen bidez debagoiendar sena ere piztu zaigula, hein batean; geure herrian bakarrik pentsatu gabe Debagoien osoan pentsatzean, eraldaketa bat gertatu da hor. Ez gara zuzenean hori bilatzera joan, baina gertatu egin da, eta ederra da horrelakoak ere gertatzea.

**Nola baloratzen duzue egindako lanaketa? Zein ondorio nagusi atera dituzue?**

Lanketak asko lagundu digu gure ideiak ordenatzen, gure

iritzi bakarrik zirenak garatzen; hala, intuizioetatik jaiotako horiek zenbateraino asmatu duten jakiteko aukera izan dugu, aurretik pentsatu ez genituenak ezagutu... Oso baliagarria dela uste dugu, jada ez delako bakarrik gure ustea, baizik eta landutako gaia da, eta beste esperientzia batzuetan ere oinarritzen da. Horrek pisua ematen dio proiektuari. Ondorioak ateratzeko oraindik goiz da, baina Debagoiengan egiteko asko dago eta, aldi berean, horretarako potentzia izugarria dagoela uste dugu.

**Antzerkiak eta kulturak eraldaketarako duten gaitasunari balioa eman gura diozue. Nola gizarteratu hori?**

Hau lanketa zailenetako eta geldoenetako bat da. Teorikoki, denok ulertzen dugu kulturak zein garrantzi duen eta nola eraikitzen dugun gure egunerokotasuna gure kulturaren arabera, baina teorikoki jakitea ez da nahikoa, eta hor dago koska. DAPetik antzerkiak eskaini dezakeena nork bere baitan bizitzeko aukera sortzearekin hasi gara; antzerkiak geuri ere eraldaketa ugari eragin zizkigun –eta dizkigu oraindik–, eta hori debagoiendarrek bizitzeko aukera izatearekin hasiko gara. Ulermen hauek burutik ez ezik, gorputzetik igaro behar dute, eta antzerkiak badu hori egiteko gaitasun izugarria, baita ikusle izanda ere. Hala ere, baditugu beste proiektu batzuk buruan, baina oraindik hasierako ideia besterik ez da, eta garatzeko beharra dago.

**"PROIEKTUAREN BITARTEZ DEBAGOIENDAR SENA ERE PIZTU ZAIGULA ESAN BEHAR DA"**

**"DEBAGOIENEAN EGITEKO ASKO DAGO; ETA, ALDI BEREAN, POTENTZIAL IZUGARRIA"**



TAO gabeko gunea dela dioen seinalea, Erguin auzoko sarreran. E.A.

# TAO gabeko auzoetako bizilagunak, arduratuta

Erdiguneko TAO sistema abenduan jarriko dute martxan, baina sistema aplikatuko ez den auzoetako herritarrek kezka bizi dute, horrek aparkalekuen arazoa lekualdatu besterik ez duela egingo argudiatuz; Musakola, Erguin eta Santa Marina dira batzuk

## Eneko Azurmendi ARRASATE

Arrasaten aparkalekuekin arazoa dagoela inork ez du ukatzen. Arazo horri konponbidea emateko Gobernuak aukeratutako bidea, ordea, ez da guztien gustukoa izan. Erguinen, esaterako, arazoa "larriagotu" egingo du TAO martxan jartzeak, Andoni Altzelai auzo-alkatearen esanetan. "Hemen ez denez TAOrik egongo, inguruko herritarrek hona etorriko dira aparkatzera". Hainbat auzotarrek adierazi diotenaren arabera, Altzelaik aitortu du sistema Erguinen ere jartzea izango litzateke justuena. "Hori eskatu gura diogu Udal Gobernuari. Modu horretan, Erguingo biztanleek lehentasu-

na izango lukete euren auzoan aparkatzeko".

## Birplanteatzeko eskaera

Santa Marinako eta Doneztebe Portuko bizilagunek osatzen duten Avesantes elkarteko kideek diote sistema berriak aparkalekuen arazoa lekuz aldatu besterik ez duela egingo. "Horrelako sistema bat martxan jarri behar denean, herritarren iritzia kontuan hartu behar da. Santa Marinan eta inguruko kaleetan sekulako arazoa daukagu aparkalekuekin, eta, TAO martxan jartzen denean, are larriagoa izango da". Hori dela-eta, Gobernuak proiektua birplanteatu egin beharko lukeela uste dute.

## Musakolan, "arduraz"

Oxel Apraiz Musakolako auzo-alkateak dio "arduraz" ikusten duela gaia. "Herritarrek TAO ez dagoen lekuetara joango dira aparkatzera; Musakolara, esaterako. Egia da hemen leku asko dugula aparkatzeko eta gaur egun ez dugula arazorik, alde horretatik, baina arduraz ikusten dugu sistema berria martxan jartzea, hemengo bizilagunen kalterako izango delako kanpoko autoak etortzea. Hori dela-eta, ikusiko dugu martxan jarrita koan nola eragiten digun gure egunerokoan, arazoren bat eragiten duen, eta horren arabera ikusiko dugu nola jokatu", gaineratu du.

## Herri osoan integratutakoa

EH Bilduk herri guztia eta auzo guztiak integratzen dituen TAO sistema bat gurako luke, mugikortasun planean oinarritutakoa. "Mugikortasuna herri osoan bermatu behar da, bidegorriak, busaren erabilera eta abar. Baserri auzoez ahaztu gabe, garraio zerbitzu publikorik ez dutela gogoratu behar dugu, nahiz eta hainbatetan mahaigaineratu dugun gaia".

Halaber, TAO sistemaren lehenengo orduak dohainik izan beharko lirateke, koalizio abertzalearen ustez, "eta ondorengoak oso prezio murriztuetan". Horrez gain, sistemaren gestio publikoa babesten dute: "Askoz merkeagoa izango litzateke eta langileen baldintzak duinagoak izango lirateke". Horren ondorioz "defizitarioa" izango litzatekeen arren, "herritarren onurarako" baldin bada, ahalbidetu egin beharko litzatekeela uste dute.

## Gestio publikoaren alde

Elkarrekin Arrasatek uste du Gobernuak ez duela aurreikusi erdiguneko TAO sistemak inguruko auzoetan izango duen eragina. Era berean, salatu du herri osoaren egunerokotasunean "eragin zuzena" daukan gaia izanik ezin dela garatu "herritar zati txiki baten" parte-hartzearekin, eta mugikortasun eredia aldatzeko "lan sakonagoa" egin behar dela ere azaldu du, "garraio publikoa are gehiago indartuz eta zerbitzu irisgarriagoak eginenez gehien behar dutenei". Azkenik, gestio publikoaren defentsa egin du. "Tamalez, Udal Gobernuak gero eta udal ondasun gehiago enpresari eta lagunen poltsikora bideratzen dihardu, guztion eskubide eta zerbitzuen kontura".

## Olandixoko tuneleko trafikoa langileek bideratuko dute

Asteon, txandakako zirkulazioa jarri dute tunelean, Gipuzkoako Foru Aldundiak egin dituen mantentze-lanen ondorioz. Dena den, semaforoaren ordean, langileek bideratuko dute trafikoa aurrerantzean, Arrasateko Udalarekin akordioa lortu ostean. Proba modura hasiko dira, eta, eraginkorra bada, jarraipena emango diote.

## 112 argi-puntu LED argiteriara aldatuko dituzte hilabetean

Kale-argiak aldatzen jarraitzen du Udal Gobernuak. Datozen asteetan, Galizia kalean, Santa Teresan, Musakolalo kiroldetiko aparkalekuan, Elkano kalean, Kataide eta Pesa poligonoan, Nao Santiago kalean, Oñati kalean, IFAM eremuan eta Santa Marina kalean aldatuko dituzte, 69.471,53 euroko aurrekontuarekin -BEZa barne-.

## Arrasateko Euskara Zerbitzuak ikastaroak ditu merkatarientzako

Merkatarientzako euskara eskolak dituztela gogorarazi du Arrasateko Udaleko Euskara Zerbitzuak, euskara ikasteko, hobetzeko zein sakontzeko, eta klaseak merkatariei ondoen datorkien ordutegian jarriko dituztela nabarmendu dute zerbitzutik. Interesa duenak 943 25 20 08 zenbakira deitu dezake. Informazio gehiago [Goiena.eus](http://Goiena.eus)-en.

## Matrikulazio epea zabalik!

- Kuota ezberdinak, diru sarreren arabera.
- 18.000 € baino gutxiagoko irabaziekin, **DOAN**.
- Bigarren seme-alaba, **DOAN**

2020-2021  
JAIOTAKOENTZAT

IZEN EMATEA  
Urriaren 1etik 8ra  
ON LINE  
[www.haureskolak.eus](http://www.haureskolak.eus)

Arrasateko  
**HAURESKOLAK**  
Zure lasaitasuna gure helburua



MUSAKOLA haureskola  
Elkano 8 • Tel.: 943 79 13 03

BEDOÑABE haureskola  
Alfontso VIII 1 • Tel.: 943 79 76 86

ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE BORDABUENA

EUSKO JAURLARITZA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

GOBIERNO VASCO  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

# Berezibartarren jatorria, ibilaldi batean kontatuta

Intxorta 1937 Kultur Elkartearen eskutik, errekaldearen jatorriari eta 1936ko gerra aurreko Arrasateri buruzko ibilaldi gidatua egingo dute bihar, zapatua, 11:30ean, Arizmendiarrrieta plazako monolitotik abiatuta, eta Plus Ultra tabernan bukatuko dute

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Berezibartarrak Errekalde etxean bizi izan ziren. "Villa Amparoko ur-parkea dagoen lekuan, Maalako biribilgune alboan, zegoen etxe hura", azaldu du Intxorta 1937 Kultur Elkarteko kide eta bisitako gidari izango den Juan Ramon Garaik. "Ibilaldia monolitoan abiatuko dugu, eta errekaldearekin monolitoarekin duten lotura aztertu. Gero, Olarte kalerantz joango gara. Izan ere, kale horretako atarte batean bizi izan ziren senide batzuk, eta horietako bi erail egin zituzten. Ostean, Biteri eskolara joango gara. Hor egin zituzten ikasketak hainbat berezibartarrek. Hortik Union Cerrajerara egingo dugu, eta ondoren, Arrabal, Errekalde etxea, Okendo-Herriko etxea eta, azkenik, Plus Ultra taberna", gaineratu du. "Berezibartarrak gizartea aldatzeko borrokaren parte izan ziren 1934ko urriko iraultzan: batzuek Bigarren Errepublikaren alde bizia eman zuten eta beste asko, berriz, erbestera ihesi joan ziren".

**Aitor Etxarte Berezibar gogoan**

Iaz abenduan hil zen Aitor Etxarte Berezibar izango dute gogoan biharko ibilaldian. Euskal kulturaren, euskararen, hezkuntzaren eta herrigintzaren alde lan eskerga egin zuen iruindarraren ama, Pilar Berezibar, arrasatearra zen, eta hari esker mantendu zuen familiak Iruñearen eta Arrasateren arteko lotura. Hori baliatu gura dute senideek berezibartarren jatorriari sakontzeko. "Aitor hil zenean indarrean zeuden neurri murriztailen ondorioz, Nafarroa Garaik inor ezin izan zen etorri bera agurtzera, eta ziklo hori ixteko zerbait egin gura genuen, omenaldi modura. Bide batez, Aitorren amaren familia eta jatorria ezagutzeko aukera baliatu gura genuen. Beraz, In-



Aitor Etxarte Berezibar, Euskalerrria Irratiko elkarrizketa batean. EUSKALERRIA IRRATIA

## 2020KO ABENDUAN HIL ZEN AITOR ETXARTE BEREZIBAR OMENDUKO DUTE BIHARKO IBILALDIAN

txorta 1937 Kultur Elkarteari eskatu genion ibilaldi hau egiteko, eta oso eskuzabal hartu gaituzte", adierazi du Hedoi Etxartek, Aitorren semeak.

Gaineratu du Pilarrek "lotura estua" mantendu izan zuela bere jaioterriarekin eta senideekin, "eta horren adierazgarri da bere bi semeak erditzera Arrasatera itzuli izana, nebaren etxera". Hala, Arrasateko Santa Marina auzoan jaio zen Aitor, 1956an. Hedoi nabarmendu duenez, Arrasatek "izugarriko presentzia" zuen haren amona Pilarren egunerokoan, "bereziki gerra aurreko Arrasatek", eta Aitorrek berak ere ondo zekien bere sustaiak Arrasaten zituela.

**Berezibartarren taberna**

1927an, Plus Ultra taberna ireki zuen Amadeo Berezibarrek, Pilarren osabak. "Bartzelonan ihes-

eginda zegoela, bonba batek jo eta hil egin zen", dio Garaik. "Taberna zabaldu zutenean, hegazkin hori izan zen Amerikara joan zen lehena eta fama handia hartu zuen garai hartan. Hori dela-eta jarri zioten izen hori tabernari", gaineratu du.

Horregatik, hain zuzen, Plus Ultra tabernan emango diote amaiera biharko ibilbideari. Gaur egun ere zabalik dago, nahiz eta dagoeneko beste batzuen esku egon. "Hori bai, Plus Ultra hegazkina dagoeneko ez dago, garai batean zintzilik zegoena", azaldu du Garaik.

**Bukaeran, errezitaldia**

Ibilaldiaren amaieran, hilerrian, bi olerki errezitatuko ditu Hedoi Etxartek. Gaur bertan publikatuko du *Sortaldekoak* poema liburuaren aurrerapen bat sarean, gero urriaren 15ean argitaratuko duenaren amu moduan. "Liburu horretan badira gure Arrasateko sendiari erreferentzia zuzenak. Funtsean, bi olerki daude horren ingurukoak: *Dragoiak* eta *Plus Ultra*. Errekaldearen 1936ko gerrako parte-hartzearen eta errepresioaren errepaso bat egiten dut", dio idazleak.

## Udal Gobernuak 993.285 euro eskatu ditu, hiru proiektutarako

Next Generation funts europarren deialdian aurkeztu du eskaera; zati handiena 'Ekobulebar'-erako litzateke

**E.A. ARRASATE**

Arrasateko Udal Gobernuak *Ekobulebar*-aren, Araba etorbidearen eta Foruen plazaren arteko bidegorriaren eta Santa Teresako igogailuen proiektuak aurkeztu ditu Next Generation Udalerrirentzako Laguntza Programaren deialdian. Laguntza-lerro hori "berreskurapenerako Europako tresna gisa" sortu da, "eta enplegu-maila, jarduera ekonomikoa eta Espainiako eredu ekonomikoa iraunkortasunaren, digitalizazioaren eta gizarteratzearen inguruan eraldatzea dute helburu".

Hiru proiektuek 4.233.020,00 euroko aurrekontua dute: 1.828.124 euro *Ekobulebar*-ak; 346.500 euro Araba etorbidearen eta Foruen plazaren arteko bidegorriak eta 2.058.396 euro Santa Teresako igogailuek. Modu horretan, "mugikortasun iraunkorrean" oinarritutako plan hori gauzatzeko eskatutako funtsak 993.285,00 eurokoak dira: 743.285 euro *Ekobulebar*-erako; 200.000 euro igogailuentzako; eta 50.000 euro bidegorriarentzako.

Maria Ubarretxena alkateak adierazi du Arrasatek "etxeko lanak" egin dituela. "Gure ingu-

runea eraldatuko duten laguntzak jasotzeko aukera dugu. 2020-30 Herri Planaren bidez ezarritako gure politika publikoak bat datoz Europako politikekin: Arrasate iraunkorragoa, sozialagoa, bateratuagoa eta herritarren zerbitzura dagoena sortu nahi dugu, eta berdeagoa, klimaren erronkari erantzungo diona".

**Hiru proiektu "estrategiko"**

Alkateak nabarmendu duenez, *Ekobulebar*-aren helburua da kalitatezko hiri-espazio bat diseinatzea, ingurumenarekin jasangarria izango dena, "eta, horretarako, hiria aisia-kalitate ezin hobeko leku batez hornitzea, oinezkoiei eta txirrindulariei laguntzeko, eta zerbitzuen energia eraginkortasuna eta espazioaren ingurumen-kalitatea bultzatzeko neurriak hartzea". Igogailuen proiektuari dagokionez, azaldu du helburu nagusia dela norberaren ibilgailuaren erabilera murriztea zerbitzu eta saltokietara sartzeko, "oinezkoen mugikortasuna sustatuz". Bidegorriak, azkenik, "mugikortasun iraunkorreko sistemen bidez konektatutako udalerrri bat lortzea" du helburu.



NIRE USTEZ

GAIZKA ERAÑA

## Fan noie

GOIENAN zutabetxo hau idazten hasi nintzela zortzi urte pasatu die. Urte asko die, norberan bizitzan aldaketa asko izan ditudenandako, eta gutxi, bizitza antzerako fan jakonandako. Atzeneko bi urtiak, gaiñera, ez die bape goxuek izen, eta danan gaiñetik, bateron bat aittaketiarren, gaztetan gorrixek ikusi eta gero bakarrik hil dien gure nagusixak aittatuko nittuzke. Atzeneko txanpa honetan, etxetik gutxiurten eta ohitturak aldatu dauen makiñatxo bat mondrauetar dau; bilddurre lotsa barik ibilli da kalerik kale.

Holako giro postpandemikuen, ezarritako hainbat arau estu eta itotzaillien kontra egiñez, gaztien bizitzeko gogoe ate joka daukou. AskatasunaREN eta erantzukizunaren arteko marra mehie dala ikusi dou orainguen: bizi ala hil? *That's the question.*

Odola bor-bor daukien gaztiei lekue egitteko ordu eitorri dalakuen nau. Eskerrik asko urte honeittan danetan zutabetxo hau irakurteko patxadie hartu dozueno, eta gure hizkuntza zahar eta zoragarri honetan esaten dan letxe: txarto esanak parkatu eta ondo esanak goguen hartu. Gero arte!

# 'Txiki' eta Otaegi gogoan, urteurrena aprobetxatuz

Francoren erregimenak 1975eko irailaren 27an hil zituen ETAko kide Juan Paredes 'Txiki' zarauztarra eta Angel Otaegi azpeitiarra, eta, urteroko ohiturari jarraituz, Gudari Eguna egin dute urteurrenean: "Euskal Herriaren alde bizitza eman zutenak oroitzeko"

## Eneko Azurmendi ARRASATE

Beste urte batez, Arrasateko Sortuk antolatuta, Gudari Eguna egin zuten astelehenean Arrasaten. *Euskal Herria bihotzean, Aurrera Bolie!* lelopean, manifestazioa egin zuten lehenengo eta ekitaldia ostean, Monterronen. Urtero bezala, *Txiki* eta Otaegi oroitu zituzten. "*Txiki*, Otaegi eta Euskal Herriaren askatasunaren alde bizitza eman zuten horien guztien alde batu gara, haiek oroitzuz", nabarmendu zuen Arrasateko Sortuko kide Amaia Etxabek.

Irailaren 27an fusilatu zituen Francoren erregimenak ETAko kide ziren Juan Paredes Manot



Manifestazioaren ostean Monterron parkean egin zuten ekitaldia. IMANOL BELOKI

*Txiki* zarauztarra eta Angel Otaegi azpeitiarra, eta haiekin batera FRApeko kide Jose Humberto Baena, Jose Luis Sanchez Bravo eta Ramon Garcia Sanz.

Aurrera egiteko oroitzeko "ezinbestekoa" dela aldarrikatu zuten: "Nora goazen jakiteko, nondik gatozen jakitea ere funtsezkoa zaigulako". Era berean, memoria guztiak publiko egiteko eskubidea defendatu zuten. "Ez bakarrik eskubidea, baita betebeharra, herri honetan elkarbizitza eta etorkizuna eraikitzeko memoria guztiak beharrezkoak ditugulako". Halaber, Euskal Herria euskalduna, feminista eta sozialista eraikitzeko lanean jarraituko dutela adierazi zuten.

## Agurtzane Arregi ere gogoan

Monterrongo ekitaldian Agurtzane Arregi Letamendiren senideak ere izan ziren. Agurtzane zein zen kontatu zuten, nolakoa zen, eta baita 1978ko uztailaren 2an A Hirukoitzak Agurtzane nola erail zuen ere. "Horrekin batera, salatu gura dugu haren senideek oraindik ez dutela aitortzarik jaso", esan zuen Etxabek.

## 'Cárceles bolleras' filma proiektatuko dute urriaren 7an

Cecilia Montagut eta Katia Reimberg egileak lana aurkezten izango dira Emakume Txokoak antolatu duen emanaldian. Kulturateko areto nagusian izango da, 19:00etan hasita. Ikuspegi feministatik, emakume presoen errealitatera hurbiltzeko aukera ematen du filmak; solasaldia egingo dute ostean, eta hausnarketarako tartea izango da.

## Udal ordenantza bat aldatzeko prozesua abiatu du Gobernuak

Eguzki energia hartzeko sistemak jartzea arautzen duen eta 2007a ezker indarrean dagoen ordenantza eguneratzeko parte-hartze prozesua abian da; *Arrasate.eus* webgunean egin daitezke ekarpenak. "Ordenantza berriak aurrekoak zituen hutsuneak bete eta egungo testuinguruari erantzun sendoa emateko aldatetarako barneratu nahi ditu".

ALMACENES  
ARRASATE

-%21

Tien21

TIEN 21-EN EROSTEAK SARIA DU

Produktu hauen %21 oparitzeko dizugu.

 <p><b>GARBIGAILU 3TS962BD TXURIA</b></p> <p><b>499€</b> <small>58,80€-ko diru-itzulzea</small></p> <p><small>(ez dago P5Pn sartuta)</small></p> <p><b>3TS962XD INOX. KOLOREA</b></p> <p><b>599€</b> <small>103,96€-ko diru-itzulzea</small></p> <p><small>8 kg 1.200 rpm Autodosifikazioa</small></p>	 <p><b>GARBIGAILUA WTA 8612 XW DR</b></p> <p><b>359€</b> <small>62,31€-ko diru-itzulzea</small></p> <p><small>(ez dago P5Pn sartuta)</small></p> <p><b>beko</b> 8 kg 1.200 rpm</p>	 <p><b>GARBIGAILUA FFB 9458 BV SP</b></p> <p><b>449€</b> <small>77,93€-ko diru-itzulzea</small></p> <p><small>(ez dago P5Pn sartuta)</small></p> <p><b>OPARIA: DETERGENTEA 6 HILABETEZ</b></p> <p><b>Whirlpool</b> 9 KG 1.400 rpm</p>	 <p><b>GARBIGAILUA F4WV3010S6W</b></p> <p><b>499€</b> <small>86,90€-ko diru-itzulzea</small></p> <p><small>(ez dago P5Pn sartuta)</small></p> <p><b>OPARIA: LG TONE FREE ENTZUNGAILUAK</b></p> <p><b>LG</b> 10,5 kg 1.400 rpm</p>	 <p><b>GARBIGAILUA ETA LEHORGAILUA FWDG 961483</b></p> <p><b>599€</b> <small>103,96€-ko diru-itzulzea</small></p> <p><small>(ez dago P5Pn sartuta)</small></p> <p><b>Whirlpool</b> 9 kg 1.400 rpm</p>
 <p><b>LEHORGAILUA DH 9532 GAO</b></p> <p><b>479€</b> <small>83,13€-ko diru-itzulzea</small></p> <p><small>(ez dago P5Pn sartuta)</small></p> <p><b>beko</b> 9 kg</p>	 <p><b>COMBI GKN 26845 FN TXURIA</b></p> <p><b>569€</b> <small>98,79€-ko diru-itzulzea</small></p> <p><small>(ez dago P5Pn sartuta)</small></p> <p><b>GKN 26845 FXN INOX. KOLOREA</b></p> <p><b>589€</b> <small>102,20€-ko diru-itzulzea</small></p> <p><small>(ez dago P5Pn sartuta)</small></p> <p><b>GRUNDIG</b> 186 x 59,5 x 66,5 cm.</p>	 <p><b>COMBI GBP62DSXCC</b></p> <p><b>829€</b> <small>143,80€-ko diru-itzulzea</small></p> <p><small>(ez dago P5Pn sartuta)</small></p> <p><b>OPARIA: LG ULTRAWIDE MONITORE BAT</b></p> <p><b>LG</b> 203 x 59,5 x 67,5 cm.</p>	 <p><b>AEG</b></p> <p><b>INDUKZIO-PLAKA IKB63405FB</b></p> <p><small>(ez dago P5Pn sartuta)</small></p> <p><b>OPARIA: 70C-KO DIRU-ITZULTZEA</b></p> <p><b>459€</b> <small>79,66€-ko diru-itzulzea</small></p>	 <p><b>TEKA</b></p> <p><b>LABEA AIR FRY HCB 6646 P SS</b></p> <p><b>479€</b> <small>83,13€-ko diru-itzulzea</small></p> <p><small>(ez dago P5Pn sartuta)</small></p>

Eskaintza balagarria akats tipografikorik ez dagoen neurrian.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13
Orduetgia: 09:15-13:00 / 15:30-19:30 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

# Tokiko raparen harrobiak hartuko du kalea bihar

'Tatta', 'Mutiko' eta 'Denso' sortzaileen gerizpean, inguruko beste lau rap kantarik jendaurreko emanaldia egingo dute, 17:30etan hasita, Bartzelonako eta Vigoko artista gonbidatuekin batera; 'Gipuzkoan Gazte Tour' dinamikaren lehen atala izango da


**Hasier Larrea** ARRASATE

Gero eta indartsuago jotzen dute, besteak beste, hip-hop eta rap doinuek, eta instituzioak ere jabetu dira horretaz. Foru Aldundiak urteak daramatza, Gipuzkoako udalerriekin elkarlanean, gaztetxoei begirako egitarau kulturalak antolatzen, *Gaztemania* izenpean lehen, eta *Gipuzkoan Gazte Tour* izenarekin orain. Aurtengo aldirako, bogan dauden estilo urbanoen aldeko apustua egin dute; Arrasateko saiorako aukeratutako sortzaileak nortzuk diren ikusi besterik ez dago.

Hard GZ, Anier eta Shaolin Monkey, Bartzelonan mugitzen diren sortzaileak, agertzen dira letra larriz iragarrita; ohituta daude kantuetan kolaborazioak egitera, jende gehiagorengana iristen baitira horrela. Biran ere eskutik joatea erabaki dute. Hala, musika urbanoaren panoraman sona handia lortzen ari diren hiru artista emankor, nor bere ezaugarriekin, igoko dira eszenatokira.

**Bailarako uzta ikusgai**

Baina ez dira bakarrak izango, kanpokoak ez ezik, etxekoak ere gonbidatuta daudelako kontzertuan parte hartzera. Suprim' Records zigiluaren babespean



Mutiko aramaioarra eta Tatta arrasatearra, biharko bi protagonistak. SUPRIM' RECORDS

produzitzen dituzte kantuak Martin Errastik, Hodei Vicariok eta Jon Izagak, raparen munduan *Tatta*, *Denso* eta *Mutiko* ezizenez ezagunagoak badira ere.

Arrasatearrak dira lehen biak; Vicario arduratzen da musikaren produkzioaz, eta Errasti letrak egin eta interpretatzeaz. Izaga aramaioarra, berdin. Berretzat publiko aurrean eskainiko duen lehen emanaldia izango da, eta dio "berezia" iruditzen zaiola plazan batuko diren ezagunei abestea: "Pandemia hasieran argitaratu nuen lehen

abestia, eta jendeak ondo erantzun zuen".

Iritzi berekoak dira *Tatta* eta *Denso*, nahiz eta horiek badakiten zer den oholtza batera igotzea. Hemen inguruan gaztetxeetan eta aretoetan jo dute bereziki; horrenbestez, halako plaza batean proiektio handiko musikariekin aritzea "plazera" izango dela aipatu dute. *Tatta*-k loreak bota dizkio *Denso*-ri, gainera: "Guk burura datorkiguna jartzen dugu paperean, baina bera da musikaren inguruan ezagutza handien daukana; ni edozein baserekin

joan naiteke beragana, eta berak txukundu egiten du, efektuak sartuta".

*Denso*, berriz, eroso sentitzen da bere egitekoarekin: "Musika egitetik bizitzea gustatuko litzaidake, eta ari naiz nire bidea urratzen, pixkanaka, kanpoko artistentzat produzituz, besteak beste".

Zapatuko aukera euren inguruko artistek ere kanta dezaten baliatu nahi izan dute. Hala, *Tatta*-ren alboan Unai Sierra, Oihan Uribarren *Fane*, Mikel Egia *Epso* eta Markel Bengoa *Pxli* egongo dira zenbait momentutan: "Ordu erdian konposizio propioak dituzten lagun ugari igoko dira gurekin batera, emanaldi bizi-bizia egiteko". Bailarakoen ostean izango da Shaolin Monkey, Anier eta Hard GZ-ren txanda, hurrenez hurren.

**Monterronen izango delakoan**

Gazte Bulegoan eta gazte txokoetan jarri dituzte doako sarrerak asteon eskuragai. Hasieran Herriko Plazan egin behar zuten kontzertua, baina sarrera guztiak berehala agortu zirela-eta, Monterron parkera lekualdatzea proposatu diete antolatzaileek artistei: "Sarrera gabe geldituko direnak etor daitezten". Albiste idazterakoan tokia baieztatu gabe zegoen. Emanaldia 21:15ean amaituko da, eta, euria eginez gero, Amaia antzokira lekualdatuko dute ekitaldia.

Maria Ubarretxena alkateak azaldu du halako apustuen helburua "12 eta 25 urte bitarteko gazteentzat aisialdi aktibo eta parte-hartzaile segurua" sustatzea dela. *Gipuzkoan Gazte Tour* ekimenaren hurrengo geltokia Zumarraga izango da, hilaren 16an.

## Hitzaldi musikatua La Basurekin

Egun berean, 16:00etan, Etxebarriko abeslariak tailerra eskainiko du Pablo Uranga kaleko gaztegunean. Euskarazko musika urbanoaren sortzaile aitzindarietako bat da La Basu, eta dio gazteek "asko" pentsatu behar dutela rapa euskaraz egiteko orduan. Orduete inguruko jardunaldia raparen eta hip-hoparen gaineko apunte batzuk emanaz hasiko du, "bi generoak desberdintzerakoan desinformazio handia" dagoela iritziatuta. Ostean, inprobisatu egingo dute, "trikimailu batzuk" erakustearrekin bat. Gazte txokoetan, Gazte Bulegoan edo *arrasate.eus* webgunean erreserba daiteke tokia, doan.

Gainera, Herriko Plazako kontzertua irekiko du. Emanaldiaz galdetuta, "gaur egun oraindik Anier moduko emakume indartsu bat holtzan ikustea arraroa" dela nabarmendu du.



La Basu, uztailean Bergaran. I.S.

## Opera, zarzuela eta euskal kantak domekan Herriko Plazan

Ozenki elkarteak 'Lirika kalean' izeneko kantu emanaldia antolatu du etzirako, 19:00etan hasita


**H.L.** ARRASATE

2012an sortutako herriko operazaleen Ozenki elkarteak ere hasi da, pixkanaka, publikoaren aurreko kontzertuak antolatzen. Manu Gallardok, Ozenkiko ki-deak, adierazi du azkenaldian

Gabonetako gala egiteko aukera baino ez dutela izan, eta "gustu handiz" ibili direla urriaren 3ko gala lirikoak Ibai-arterekin eta Udalarekin batera aurrera ateratzen. Era berean, adierazi du Arrasate Blues jaialdiaren an-

tzeko baldintzekin egingo dela ekitaldia: "Ikus-entzuleendako mahaiak eta aulkiak jarriko ditugu plaza osoan sakabanatuta, gerturatzen diren guztiek tokia izan dezaten".

Musikeneko hiru ikasle izango dira kontzertuko protagonistak: Aitor Garitano tenore bergarra, Estibaliz Arroyo soprano gasteiztarra eta Julen Garcia baritono bilbotarra. Gallardok aipatu du "ibilibidea oparoa garatzeko irteera-puntuan" daudela hiru abeslariak.



Aitor Garitano tenorea. I.S.

Garitanoren esanetan, "aspaldi" ezagutzen dute hirurek elkar, eta oholtzara "banaka, binaka zein hirurak batera" irtengo dira. Arkaitz Mendoza piano-jolearen eta Josean Garcia zuzendari artistikoaren laguntza izango dute Pablo Sorozabalen, Jesus Guridiren edota Jazinto Guerreroren piezak interpretatzeko orduan.

Euria bada, Herriko Plazatik metro gutxira, San Juan Batailatzailearen parrokiaren inguruan dute emanaldia, ordu berean.



2019ko aldian, petardo-ikuskezuna mirariaren momentuan. MIRARI ALTUBE

# Miraririk gabeko bigarren Maritzu Kajoi

lazko neurri murriztaileak leunagoak izango dira aurten, eta, beraz, herritarren arduraren esku egongo da ospakizunen joan-etorria. Ohiko egitaraurik antolatuko ez den arren, eraso matxisten aurkako zerbitzua martxan egongo da gauean zehar

**Hasier Larrea** ARRASATE

Iritsi da Maritzu Kajoi eguna, eta ama birjinak aurten ze erabaki hartuko zain zeudenez garaiz jaso zuten Komisiñuaren erantzuna: "Oinarri epidemiologikorik gabeko neurriekin zorabiatuta segitzen dugu, baina oinarritzko neurriak hartzen jarraitzea dagokigu; ondorioz, ez dugu jairik antolatuko".

Txosna batzordeak ere asteon komunikatu du ez dutela txosnagunerik jarriko: "Horrek ez du esan nahi herri mugimenduko taldeok geldi egongo garenik; kaleak gure aldarriekin beteko ditugu".

Arrasateko Udalak, berriz, "jaieguna bertan behera" gelditu dela adierazi du. Baina gauean gerta daitezkeen eraso matxisten jakitun, Berdintasun Sailak eta Arrasateko Mugimendu Feministak "informazioa, aholkularitza, eta, beharrezkoa baltz edota erabiltzaileak propio eskatu gero, aurrez aurreko arreta eta laguntza" eskainiko dituzte. Zerbitzu hori 688 80 91 37 telefono zenbakiaren bidez egongo da eskura, 20:00etatik 08:00ak arte.

**Jatetxeak eta elkarteak**

Azken Maritzu Kajoi egunarekin zerikusirik ez du izango gaur eguerdian zein gauean jatetxe eta elkarte gastronomikoetan ikusiko denak. Iaz ez bezala, aurten baimenduta dago kua-drilla-bazkariak egitea –zortzi laguneko mahaietan–, eta arrasatear askok ez dute aukera alferrik galduko.

Hala, tokia gordetzeko eskari ugari jaso dituzte erdiguneko zein auzoetako jatetxeek, eta, orokorrean aipatu dute "despistatuek zaila" izango dutela "mahai bat edo beste libre topatzea; bereziki, bazkaltzeko". Erreserbarik gabe lan egingo duen jatetxeren bat egon badago; 1990, adibidez.

Herriko elkarte gastronomikoek aspaldiko edukiera handiena jasoko dute gaur. Hala ere, beste urte batzuekin alderatuta elkarrean mugimendu gutxiago egongo delakoan daude Saburdi harategian: "Normalean, menu piloa prestatzen ditugu elkarrean bazkalduko dutenendako, baina aurten, jendeak nahiago izan du kaleko jatetxeetan otordua egin".

**CITROËN C5  
AIRCROSS  
HYBRID**

**HIBRIDO  
ENTXUFAGARRIA**

55 KM-ko AUTONOMIA  
%100 MODU ELEKTRIKOAN

KARGA AZELERATUA  
2 ORDU BAINO GUTXIAGOTAN



**CITROËN C4  
BERRIA**

**%100 ELEKTRIKOA  
350 KM-rainoko AUTONOMIA**

**GASOLINA EDO  
DIESELA**

**CITROËN  
Ë-BERLINGO  
BERRIA**


**%100 ELEKTRIKOA  
280 KM-rainoko AUTONOMIA**

*Gu ere  
arrasatearrek!*



**CHAPIME TAILERRAK**  
Debagoieneko Citroën kontzesionario ofiziala

SAN ANDRES AUZOA 5,  
ARRASATE





# Txertoa ez, baina gripearen aurkakoa bai

Pfizer, AstraZeneca eta Moderna farmazia-enpresek ekarri dute koronabirusaren aurkako sendagaia, baina 'A gripea' bogan egon zen garaian ama birjinak 'Mariflu' izeneko pilulak banatu zituen kalean, festazaleak osasuntsu mantentzeko

**Hasier Larrea** ARRASATE

Aldiro egiten ditu mirari harri-garriak txikiteroen zaindaria. Kostako zaio, urriko lehen ostiralaren jarraitzaile sutsuenari ere, Maritxuk egindako ateraldi guztiak zerrendatzea. 2009an proposatu zuenak, baina, egungo testuinguruarekin badu loturarik. Orduan, koronabirusa ez, beste gaixotasun kutsakor bat zegoen gizaratean errotuta: *A gripea*. Birus hark gorputzaren barrenean ahalik eta kalte gutxien eragin zezan, *Tamiflu* izeneko pilulak errezetatzen zituzten medikuek. Badirudi Maritxuk ere bata zuria jarri zuela bere ospakizun eguna bai-



2009ko Maritxu Kajoi eguneko mirarian, Erdiko Kale gainezka. GOIENA

no lehen, gaueko hotzari aurre egiteko sendagai propioa sortu zuelako, eta, aurreko pilulari erreferentzia eginez, *Mariflu* izena jarri zion.

Medikamentua irensteko zenbait aholku eman zituen, gainera: "Norberaren edariaren alkohola maila neurtu, gurasoen eta umeen aurrean itxura mantendu eta, zalantzaren bat izanez gero, konfiantzazko tabernari bati galdetu".

**Gaizki-ulertuak**

Herriko Plazako ikuskizunera gerturatu ziren askok, miraria pilula horiek zirela frogatzera koan, euren modura interpretatu zuten ekintza hura, gripearen aurkakoak baino gehiago, biharamuneko pilulak zirela pentsatu zutelako. Esanak esan, jakina da, gutxienez, herritarrak *A gripe*-tik babestu zituela; izan ere, hurrengo egunean gorputzaldi eskasarekin esnatu zirenei biharamuna bakarrik diagnostikatu zieten osasun zerbitzuek.

Baliteke konponbide harekin Maritxu Kajoi bukatutzat eman izana bere osasungintzako ibilbidea, baina batek jakin.

## Bost urte kajoitik alde egin zuenetik

Ez da ziurra 40 urte bete zitelako edo egun hartan jaieguna zelako izan zen, baina 2016ko urriaren 6ko Maritxu Kajoi egunean ama birjina ez zegoen kutxan.

Maritxutako Komisiñuak honako iritzi hau partekatu du: "Maritxu oin dala 5 urte kajoitik urten zan, parrandazale amorratua dalako; guk ez dakigu ezer be mirarixen inguruan, berak egiten dittu... Eta urte haretan kajan ez uela ikusitta, geu be harritu egin gizen. Berak komentau zauenan arabera, aspertuta euen kajan egotiaz eta inguruko auzuetan euen girua ikustera juen zan".

Hala, Zigarrola, Bedoña, Oñati eta Aretxabaletatik pasa zen, berriz kutxara itzuli aurretik.

**Ostalaritza AURRERA!**

**EZ DUGU IZATERIK ASKE HAIEK GABE**  
*Unai, Arbe eta Peixoto Arrasatekoa!*

**IRATI • TAUPA • BASATI • ILUNTZ**  
**JAI ZALE • DAT • ETXOSTE**





# Herritik kanpo daudenak gogoratu dira



**AINARA BORDES**  
MALTA

"Aurten, gutxi ospatuko dut Maritxu Kajoi; gustatuko litzaidake, baina arrasatear bakarra naiz hemen. Kuadrillakoak Saloun daudenez, ziur bideo-deiren bat egingo dugula, gorbata edo pajarita bat lepotik zintzilik dugula, edo, gutxienez, garagardo bat eskuan. Zerbait egingo dugu, ziur! Gainontzekoan, gogoratu oraindik koronabirusa dagoela, eta distantziak mantenduta ere gozatu daitekeela jaiaz. Maltan hala gabilta, zentzuz jokatzeko, eta disfrutatzen. Ahal den guztia egin eta ondo pasa!"



**BEÑAT BARBERENA**  
TXINA

"Hangzhou herritik agurtzen zaituztet, Zhejiang probintziatik. Seigarren urtea dut hemen, eta beti izaten dugu gogoan hitzordu hau. Urtero legez, aurten ere gogoratu dugu gaurko eguna ospakizun eguna dela. Ohitura den bezala, Shanghaiko euskal etxean zeremonia egingo dugu, baina ez gaur, urriaren 23an baizik. Ni ere bertan egongo naiz. Arrasaten zaudetenontzat, honako mezu hau: ondo pasa familian eta lagunartean. Hori bai, arduratsuak izan. Gora Maritxu Kajoi!"



**ANDER RUIZ DE AZUA**  
MEXIKO

"Egia esan, pandemia honekin eta etxetik kanpora nagoenez, ez dut beste aldi batzuetan bezain presente izan egun hau. Hala ere, ospatuko dut. Arrasaten egon nintzen azken aldian gazta, txorizoa eta saltxitxoia ekarri nituen handik. Lankideekin elkartuko naiz etxean garagardo batzuk edateko; beraz, modu batera edo bestera, ospatuko dugu Maritxu Kajoi. Arrasaten zaudeteno, EH Sukarraren abestiak dioen bezala, argi ibili eta burua erabili! Eta zaindu, baita ere. Ikusiko dugu elkar bueltan!"



**ANE LOPEZ**  
GREZIA

"Nik, urtero, nagoen lekuan nagoela, soineko beltz bat janzten dut egun honetarako. Bakarrik egon arren, Maritxu Kajoiari keinua egiten diot, ahal dudan bezala. Ez nago ziur nondik nora ibiliko naizen gaur, baina dakidana da ardotxoren bat edo beste edango dudala, ama birjinaren eta Arrasateren omenez. Eta herrikideei, senide eta lagunei zer esan? Ba, modu asko daudela jai honetaz gozatzeko, eta ziur bakoitzak bere modua aurkituko duela aurten. Musu bat guztioi eta gozatu!"

**ALDEDI**

*Gu ere arrasatearrekin!*

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

# "Literaturaren bidez bizitzaz hitz egiten dugu"

**AINHOA ALDAZABAL** IRAKURLE TALDEKO DINAMIZATZAILEA

Ikasturte berria hasiko dute astelehenean euskarazko irakurle klub feminista taldekoek. Izena eman daiteke 'berdintasuna@gorbeialdea.eus' helbidera idatzita

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO  
Irakurle Klub Feministak urriaren 4an hasiko du ikasturtea. Antxine Mendizabalen *Odolekoak* liburua izango dute berba lehenengo saioan.

**Urriaren 4an, astelehena, hasiko da ikasturtea. Izena emateko modurik badago?**

Bai; Berdintasun teknikariarekin harremanetan jartzea izango litzateke, Udalera deituta.

**Laugarren ikasturtea duzue Aramaion. Taldea egonkortuta dago?**

Esan daiteke taldea eginda dagoela; hala ere, urtero etortzen da norbait berria. Momentuz, talde txikitxo da, baina egia da fidelak eta leialak direla.

**Antxine Mendizabalen *Odolekoak* liburua aztertuko duzue. Ze jasotzen du?**

Lehenengo, komentatzen dugu ea irakurritako liburua gustukoa izan den edo ez, eta zergatik. Hortik abiatuta, pertsonaietara heltzen gara; kasu honetan, emakumeen belaunaldi batez hitz egiten da *Odolekoak* liburuan. Emakumeen harremanen gainean: ama-alabak, ahizpak... Gerra ere tartean dago, eta liburu bakoitzak ematen digu askotariko gaiez hitz egiteko aukera. Askotan gertatzen da irakurri dugun hori gure bizitzetara eratemana dugula, eta, horrenbestez, bizitzaz hitz egiten bukatzen dugu.

**Liburuak proposatzerakoan, ze irizpide izaten duzu kontuan?**

Nik aukeratzen ditut; ikasturte bat lehenago irakurtzen ditut hurrengo ikasturtean proposatuko ditudanak. Hala ere, taldekideek egiten dituzten eskaerak kontuan hartzen ditut. Irakurle klub feminista denez, saiatzen naiz emakumeak irakurtzen, eta, gizonak baldin badira idazleak, begirada feminista dutenak izan daitezela. Beti irakurtzen dugu komikiren bat, poesiaren bat, autobiografia, saiakera... Genero literario askotariko li-



Ainhoa Aldazabal dinamizatzailea. A.A.

**"NIRE LELOA BETI DA: EZ BAZAIZU GUSTATZEN LIBURUA, EZ IRAKURRI, UTZI; MILA LIBURU DAUDE"**

buruak irakurri nahi izaten ditugu, informazio ezberdina ematen dutelako, sortzeko moduak ezberdinak direlako...

**Nobedadeak bai, baina garai bateko begiradak ere irakurtzen dituzue.**

Saiatzen gara nobedadeak irakurtzen, baina baita beste garai batekoak ere; adibidez, *Zergatik panpox?* Mundua eta feminismoa ez dira hasten orain gurekin. Beti saiatzen gara aitortzen aurrekoek egindako ekarpena. Feminismoa, batzuetan, ez da hain esplizitua, pertsonaien bitartez bilatzen dugu, guk daukagun irakurtzeko moduan, zelan begiratzen diegun pertsonaiei... Gelan egiten dugun lana hortik enfokatzen da.

**Irakurle klubaren helburua zein da?**  
Profila emakume irakurzailea da. Berez gustatzen zaie irakurtzea; hortaz, zaletasun hori partekatzea da helburuetako bat.

Taldea euskarazkoa denez, batzuek izena ematen dute euskaraz irakurtzera derrigortzeko euren burua. Gainera, beste modu batera irakurriko ez genukeen materiala irakurtzea ere bada helburua. Elkartzea, egotea eta literaturaren bitartez bizitzaz berba egiteko aukera izatea ere eskaintzen du klubak. **Liburuak liburutegian eskura daitezke?**

Bai; liburuzainak liburutegi sarean eskatzen ditut, eta handik ekartzen ditut.

**Zeintzuk dira taldearen erronkak?**

Beti dago erronkaren bat. Irakurtzen ditugunean, adibidez, hain gustukoak ez diren literatura generoak, nire erronka beti da aurreiritziak ditugun material horiekiko irekitasuna izatea. Poesia, adibidez, ez zaigu gustatzen ez dakigulako irakurtzen literatura mota hori. Erronka da material horietara irekita gerturatzea. Gero, gustuko izan daiteke edo ez, zukua atera eta disfrutatu irakurketa horrekin. Eta nire leloa beti da: ez bazazu gustatzen liburua, ez irakurri, utzi; mila liburu daude irakurtzeko. Ondo egotera eta gozatzera gatoz hona.

## Komunitate energetikoen gaineko hitzaldia martitzenean

Kultura etxean izango da, 18:30ean; Goiener-eko eta Araba Bizirik plataformako kideak izango dira hizlariak

**A.E.G. ARAMAIO**

Komunitate energetikoen gaineko hitzaldiak antolatu ditu Gorbeialdeko Kuadrillak; hiru izango dira, eta horietako bat Aramaion izango da, urriaren 5ean, martitzena.

Aramaio gaia *Komunitate energetikoak eta makroproiektuen mehatxua* izango da. Kultura etxeko areto nagusian izango da, 18:30etik 20:00etara. Saioa euskaraz izango da eta Goiener taldeko kideak eta Araba Bizirik plataformako kideak izango dira hizlariak. Hitzaldian parte har-

tzeko, aurrez eman beharko da izena.

Atzo hasi zuten hitzaldi sorta, Izarran. *Komunitate energetikoen inguruko informazio jardunaldia* egin zuten Oresako alkate Eneko Maiozek eta Goiener taldeko ordezkariak.

Hirugarren saioa urriaren 14an izango da, Legutian: *Komunitate energetikoen inguruko informazio jardunaldia* izango da. Legutioko kultura etxean izango da, 18:30ean hasita. Hitzaldia euskaraz eta gaztelaraz izango da.

## Negozia dutenei bideratutako hainbat ikastaro udazkenean

Gorbeialdeko Kuadrillak formakuntza saioak antolatu ditu, enpresa edo negozioa dutenei bideratuta. Urrian eta azaroan egingo dituzte hurrengo ikastaroak.

Eskualdeko langileei, enpresei, ekintzaileei eta langabeei zuzendutako formakuntza saioak izango dira. Ikastaro gehienak Murgian izango diren arren,

beste herriren batean egiteko aukera zabalik utzi dute antolatzaileek.

Matrikulazioa doan izango da eta izena eman beharko da Gorbeialdeko Kuadrillan, 945 43 01 67 telefono zenbakian edo *ekonomia@gorbeialdea.eus* helbidera idatzita. Ikastaroek plaza mugatuak izango dituzte; hori horrela, izen-ematearen hurrenkera jarraituko da taldea osatzeko. *Excel, Negozioaren kudeaketa* eta *Erakusleihen dekorazioa* izango dira saioak.



ARAMAIOKO UDALA

## Material berria dute Masustan

Umeek esploratzeko eta ikertzeko duten grina kontuan hartuta, eguneroko dinamikan erabiltzeko espazio berria sortu dute Masusta haur eskolan. Egurrezko egitura egiteak 2.789,96 euroko aurrekontua izan du. Haur eskolako hezitzaileen esanetan, "espazio aldaketa ondo" etorriko zaie bertako haurrei.

# "Genituen abestiei buelta bat eman diegu diskoan"

THE CLAYTON MUSIKA TALDEA

'Phoenix' diskoarekin hara eta hona ibili ondoren udan zehar, hilabete batzuetako geldialdia egingo dute orain. Izan ere, bi taldekide Aramaiotik kanpo bizi izatera doaz

**Arantzazu Ezkibel** ARAMAIO

Ekain amaieran argitaratu zuten aramaioarrek *Phoenix* diskoa. Bederatzi abestiz osatutako lanak lehendik zituzten abestien bertsioak jasotzen ditu.

**Zer jasotzen du *Phoenix* diskoak?**

Jokin Larrañaga: Phoenix hezagtiaren metafora bat erabili izan nahi dugu. Egiten genituen abestiekien gustura egon ez, eta egiten genuen horri buelta bat ematea zen asmoa. Bederatzi abesti dira, Bilboko Silver Recording estudioan grabatutakoak.

**Nolako abestiak dira?**

Mikel Ullibarriarana: Esan daiteke orain bai hartu dugula norabide bat, orain arte ez genuena. Rock-and-roll estiloa da nagusi, baina egia da gure artean ere ezberdinak garela. Influentzia ezberdinak ditugu. Diskoko abestiek blues ukitura ere badute, abesti ilunagoak daude, punk-rock ukituarekin...

**Aldaketa horretan, euskaraz abes- tearen alde egin duzue.**

J.L.: Euskaraz eta ingelesez abesten dugu. Lehenengo bertsioetik bigarreneko salto horretan erabaki genuen gaztelerez ez egitea. Ingelesa gustatzen zaigulako rock-and-rollerako, eta euskara gure hizkuntza delako. Lehen, gaztelerez egiten genuen gehiena.

**Nolako harrera izan du diskoak?**

Manex Zalakain: Espero genuena baino hobea.

J.L.: Nik uste dut, ze egoeratan gauden kontuan hartuta, oso ondo joan dela. Legazpiko emaldian, esaterako: inguru hartan inoiz ez gara egon, eta, hala ere, jendeak bazekizkien abestien letrak. Baita Eibarren, Elgoibarren... Diskoa entzun duten seinala.

**Zeintzuk dira zuen jarraitzaileak?**

J.L.: Denetarik ditugu. Punk-rock oi! munduko jendea dela esan daiteke.

M.U.: Jende nagusiagoa rock-zaileagoa da. Horrelako musika faltan igartzen duten jende asko dago; izan ere, inguruan eta bailaran punk eta oi! musika egiten duten taldeak daude. Eta gu irten egin gara bide horretatik.

J.L.: Rockaren munduan zerbait ezberdina eskaintzen dugu, guri gustatzen zaiguna.

**Pandemia egoera honek nola eragin du zuzenekoetarako?**

**"IZAN DUGUN ABANTAILA IZAN DA TALDE ASKO DESAGERTU EGIN DIRELA"**

M.Z.: Guk jotzen dugun estilorako, jendea jesarrita egotea ez da egokiena.

J.L.: Horrez gain, edukiera mugak daude. Pandemia aurretik, Discipulos-ekin jo genuenean, 400 bat ikusle zeuden. Gaur egun, jendea sarrera eske etortzen zaigu.

M.Z.: Aire zabaleko emanaldiak, parkekoak, esaterako, ez dira gure plaza gustukoena. Hortaz, egoerak ez digu lagundu.

J.L.: Guk izan dugun abantaila izan da talde asko desagertu egin direla. Lehen, talde asko zeuden, eta orain, aktibo egon garenak gutxiago izan gara. Talde gehienak grabazioetan ibili direla esango nuke, ez zuzenekoetan.

**Sortzeko balio izan zizuen itxialdiak?**

M.U.: Abestiren bat sortu genuen, baina, esan bezala, abesti gehienak lehen egindakoen bertsioak dira.

**Orain, taldeko bi kideren egoera pertsonalagatik, etena izango duzue?**

M.U.: Ez dakigu zer egingo dugun. Geratzen garen hirurok jarraitu egingo dugu entseatzeko, eta ea zerbait berria egiten dugun. J.L.: Egia da orain arteko entsegu guztiak kontzertuei begira-koak izan direla, eta ni, zelanbait, aspertu egin naiz horrekin. Modu askeagoan entseatzeko gogoia



Ullibarriarana, Zalakain, Muñez, Larrañaga eta Arriolabengoa. MIKEL SERRATO

dut, ea zerbait berria irteten den. Orain da momentua horretarako.

**Pandemia garaian Sastiñan egon zarete entseatzeko, eta orain, lokalerantz itzuli zarete. Igarri duzue aldea?**

J.L.: Bai; hemen hobeto. Gainera, lokala berritu egin dugu, eta askoz hobeto dago orain.

M.U.: Talde asko gaude hemen, bederatzi, guztira, baina ez dugu arazorik izaten entseatzeko orduak hartzeko; izan ere, Whatsapp talde bat dugu, eta hor idazten dugu noiz entseatu gura dugun. Momentuz, toki egokia da, eta, talde gehiago sortzen baldin badira, ba, ikusi egin beharko da. Bestalde, lokalari dagokionez, igartzen da aldea Sastiñan entseatu edo hemen entseatu: kontuan hartu Sastiña eliza bat dela eta oihartzun handiak dituela.

**Musikarekiko zaletasun handia dago Aramaion. Zuei nondik dator- kizue?**

M.Z.: Lokala izateak asko egiten du. Udalak lokal bat uztea doan, gaztea zarenean... Gu horrela

hasi ginen. Aspertuta geunden, eta ezer jakin barik hona etorri ginen.

M.U.: Txikitatik ikustea beste talde batzuk, Gorroto, adibidez, horrek eragiten du.

M.Z.: Gainera, beste talde batzuek bidea ireki zutela esan daiteke. Gu hasi ginenerako bagenuen material pixka bat.

J.L.: Nik uste dut Eguzkierripa jaialdiak ere balio duela zaletasuna sortzeko. Aramaioko ekitaldi polit bat da, musikaren inguruan dabilena.

**Ze helburuekin sortu duzue elkar- tea?**

J.L.: Helburu nagusia burokratikoa da, Udalean dirulaguntzak eskatu ahal izateko... Horrela-koetarako. Adibidez, entseatu ahal izateko ere baimen berezi bat behar izan dugu egoera honetan; izan ere, edukierak, distantzia... kontuan hartu behar izan ditugu. Diskoarekin genbiltzanez, egiaztagiri sozioekonomikoa lortu genuen, eta entseatzeko baimena izan dugu horrela.

## Erretiratuen azokan postua jartzeko deialdia zabalik dago

Urriaren 30ean, urriko azken zapatuan, Aramaioko Erretiratuen Eguneko azoka egingo dute. Herriko abeltzainen eta artisauen postuak jarri nahi ditu Udalak, eta horretarako deialdia egin du. Erretiratuen azokan postua jarri nahi duen abeltzain edo artisauak izena eman beharko du udaletxean urriaren 15a, egubakoitza, baino lehen.



NIRE USTEZ

PERU ABARRATEGI

## Atzerako kontaketa

Uda amaitzearekin batera hasi gara ni eta nire ingurukoak atzerako kontaketa; oraindik gazteak gara, goitik jota hogeita bost urte inguru, baina atzerako kontaketa bizi gara gu ere. Lehenengo helburua berez inor gutxi ospatu nahiko lukeen zubia, ospatu nahi ez baina noiz iritsiko den desiratzen gauzkan. Aste pare bat geratzen zaizkigu, horrenbeste

entsiko diogu. Ondoren, komeriak handiagoak izan litezke, azaroa ez dugu maite deskantsu gutxiegi dakartza berekin, hilabete honek duen onena pasa egiten dela eta atzetik datorrenak albiste goxoak dituela. Jesus izeneko pertsonaia ezagun baten jaiotza abenduan, hori bai ederra, elizarik zapaldu ez duenak ere bankete erraldoiekin ospatuko du lanera

joan beharrik ez duela. Hurrengo maratoi luzea, ia-ia apirilera arte korrika, Aste Santuari deika eta, zorte pixka bat izanez gero, San Prudentziori errezuka. Santu guztiak deabrukeriatan ospatu ondoren berriro udari begira jartzen gara... Oporrak nork asmatu zituen ez dakit, baina ez du meritu makala: ordutik hona, atzerako kontaketa batean bizi gara.

# Domekan jarriko da abian Arkupeko denboraldia

Logela Multimedia taldeak umeei eskainiko dien 'Tartalo, gaztaren sekretua' antzezlanaren izango da domekan; horrez gain, beste bi lan ere egongo dira urrian, baita bi ikus-entzunezkoren emanaldiak eta liburu baten aurkezpena ere

**Mirari Altube** ARETXABALETAKO

Uda sasoiaren azken egunak dira eta ekitaldirik Arkupen, eta Zaratza aretoan bat ere ez. Urriarekin batera denboraldi berriari ekingo diote, eta antzezlanei eta ikus-entzunezkoei egingo diete tokia, bereziki.

Umeendako antzezlana irekiko ditu aretoko ateak domekan, urriaren 3an (17:00). 3 eta 9 urte bitarteko haurrei bideratutako *Tartalo, gaztaren sekretua* lana eskainiko du Logela Multimedia konpainiak. Joxemiel izeneko pertsonaiaren bitartez, mendian bizi den Tartalo jentilaren kondaira kontatuko die neska-mutikoei. Antzerkia, bideo-animazioa, interakzioa eta musika uztartzen dituen ikuskizuna da.

Ipuin-kontakteta ere izango dute umeei. Ines Bengoa kontalariak *Karabi karaba* saioa eskainiko die 4 eta 8 urte artekoek, hilaren 20an.

**Helduendako antzezlana**

Horrez gain, beste bi antzezlana ere iragarri dituzte, horiek helduendako. Urriaren 24an, Huts Teatroak eta Artedramak *Atzerrian lurra garratz* ikuskizuna taularatuko dute. Amancay Gaztañaga zuzendariak eta Lander Lipus eta Laura Penagos antzezlariak idatzitako lana da eta immigrazioa eta sorkuntza gaiak lantzen ditu, jatorrizko herritik irten den emakume sortzaile baten bizipenak erdigunean jarritako. Hilaren 31n, osteran, emakumez osatutako Ausartak antzerki talde eskoriatzarrak *Las brujas se salem* antzeztuko du.

**'Herriaren hauspoa' dokumentala**

Dokumentalei ere egingo diete lekua. Hilaren 8an, *Bideak* ikus-entzunezkoa emango dute. Aritz Ganboa artzainak ekoiztutako lana Sakanako Arruazu eta Erronkariko Izaba elkartzeko egindako mendi-korrikaldien kronika da. Bigarren doku-



Tartalo, gaztaren sekretua antzezlanaaren une bat. LOGELA MULTIMEDIA

## Egitaraua:

**Urriak 3**

• **17:00** Antzerkia: *Tartalo, gaztaren sekretua*.

**Urriak 8**

• **19:00** Dokumentala: *Bideak*.

**Urriak 15, 22 eta 29**

• **19:30** Dokumentala: *Herriaren hauspoa*.

**Urriak 16**

• **12:00** Liburua: *Historia de las iglesias y ermitas de Aretxabaleta*. Aitor Antxia.

**Urriak 20**

• **18:00** Ipuin kontakteta: *Karabi Karaba*. Ines Bengoa.

**Urriak 24**

• **19:00** Antzerkia: *Atzerrian lurra garratz*.

**Urriak 31**

• **19:00** Antzerkia: *Las brujas de salem*.

mentalak UDAREN historia jasotzen du, *Herriaren hauspoa* izenarekin. 75 urteko ibilbidean bizitakoak batuko dituzte, testigantzekin osatuta. Urriaren 15ean, 22an eta 29an izango dira emanaldiak.

Eta liburu aurkezpen bat ere izango dute herritarrek: historia kontuen ikertzaile Aitor Antxia Leturiak idatzi duen *Historia de las iglesias y ermitas de Aretxabaleta* liburuarena, hain zuzen ere.

**Zinema, urtea bukatu aurretik**

Zinema emanaldiak berreskuratu gura ditu Udalak, eta, horretarako, zinema digitaleko proiektore bat erosiko duela jakinarazi du. Aurrekontuetan 55.000 euro bideratu dituzte, kreditu aldaketa baten bidez. Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiak horrelako inbertsioetarako ematen dituen dirulaguntzetara aurkeztuko da. Eskaraeren prozesua bideratu eta Foru Aldundiaren ebazpena ezagutu arte denbora pasatuko dela jakitun, proiektore bat alokatuko du Udalak filmak eskaintzen hasteko; urtea bukatu aurretik izan dadin lanean dabilta.



Gorka Gabilondo, Ion Albizu, Mikel Uribetxebarria eta Jone Ojea. MIRARI ALTUBE

## Energiaren gaineko gogoeta taldea sortu du EH Bilduk

Hausnarketa sustatu gura dute eta ekarpenak jaso; proposamen batzuk dagoeneko landuta dituzte

**M.A. ARETXABALETAKO**

Argindarraren eta, orokorrean, energiaren gainean kezkatuta agertu dira Aretxabaletako EH Bilduko kideak komunikabideen aurrean, eta urteak daramatzatela hori lantzen, "erraza ez izan arren", adierazi dute. Energiaren kontsumoa jaitea izan behar dela helburu nagusia diote, hala nola garraioan, industrian eta eraikinetan.

Horretarako, "esfortzuak indartzea" erabaki dute eta energia-mahaia sortu, Ion Albizuk azaldu duenez: "Horren helburua da hausnarketak eta proposamenak egitea: batetik, Udalera begira, baina herritarrei begira ere bai". Taldea hasita dago lanean, baina interesa duen edonorentzako zabalik dituzte ateak; hona hemen ekarpenak egiteko helbidea: [ehbildu@aretxabaleta.eus](mailto:ehbildu@aretxabaleta.eus).

Proposamen batzuk dagoeneko landuta dituztela adierazi du,

eta horiek bultzatzeko asmoa dute, Udalak "trakzio lanak" eginda eta beste erakunde batzuekin elkarlanean. Honako eskaera hauek egingo dituzte: komunitate energetikoak lantzeko neurriak hartzea; Aretxabaletako teilatuen ahalmen fotovoltaikoen azterketa egitea; eta aholku bulegoa sortzea, herritarren kezkek argitzeko.

**Hitzaldia martitzenean**

*Etorkizuneko energia* izenpean hitzaldia egingo du EH Bilduko legebiltzarkide Mikel Oterok urriaren 5ean, martitzena, Arkupen (18:30). Krisi ekologikoaren, klimaren eta energiaren gainean egingo du berba.

Bestetik, urriaren 8rako (22:00-22:30) argindarraren prezioaren igoeraren aurka iragarrita dagoen itzalaldian parte hartzeko gonbidapena egin diete herritarrei, "une horretan zarata ateraz".

## Aretxabaleta Lagunkoia ezagutzeko hitzaldia martitzenean

*Herri lagunkoi bat eraikitzen* izenburupean hitzaldia egingo du Aretxabaleta Lagunkoia urriaren 5ean, martitzena, mojen komentuan (18:00). Taldea hamabost bat lagunek osatzen dute, gaur-gaurkoz, baina kopurua behera egiten hasita dago eta kide berrien beharra atzeman dute. Juan Tomas Zabalak eta Pedro Etxebarriak orain arte

egindako lanaren nondik norakoen berri emango diete gerturatzeko direnei, eta hemendik aurrerako asmoak ere jakinaraziko dizkiete.

Orain dela bederatzita abian jarritako taldeak Aretxabaletaren gaineko diagnostikoa du egina, gabeziak identifikatu eta horiei konponbidea topatzeko helburuarekin, besteak beste. Han zortzi arlo dituzte jasota; horien artean zabalena da aire zabaleko guneei eskainitakoa –parkeak, bidegorria, ibaiak...–.

# "Pozik" ohiko jaiak itzuli bitartean egindakoeekin

San Migel jaietako protagonista izan ohi diren hainbat ekitaldik girotu dute iraileko azken asteburua, eta Udaleko Kultura Saileko ordezkariak zein Loramendi elkarteak kideak pozik agertu dira herritarrek egindako "harrera beroarekin"

**Mirari Altube** ARETXABAETA

Artisauen eta nekazaritza ekologikoaren 26. azokak 35 bat postu eroan zituen Durana eta Mitarte kaleetara –lehenengoz azken honetara–. Karpa txikietan banatuta antolatu zituzten postu horiek eta jeneroa "gustura" ikusi eta erosteko aukera izan zuten herritarrek. Hala adierazi du Ainhoa Cabero Kultura zinegotziak: "Pilaketa barik mugitzeko aukera izan zen, nahiz eta jende asko elkartu, eta hori eskertu egin dute gerturatu zirenek". Era berean, saltzaileak pozik agertu zirela jakinarazi du: "Pentsa, batek edo bestek itxiera ordua baino lehen kendu behar izan zuen postua, jenero guztia salduta". Iratzar taldearen emanaldira eta herri kirolak ikustera ere jende asko gerturatu zela gaineratu du. "Herriarrak normaltasunera itzultzeko gogoz dauden seinale da hori, eta jaiekin disfrutatzeko gogotsu ere bai; horregatik, eskertuta agertu dira antolatutako ekitaldiekin".

Ohiturari jarraituz, Kurtzebarri eskolako ikasleek ortuan jasotako barazkiak eta fruituak saldu zituzten. Eta Arizmendi ikastolakoek etxean egindako bizkotxoak eta pastelak, baita ezitia eta gazta ere.



Taloak egiten hainbat herritar Herriko Plazan. XABI GOROSTIDI

## 400 talo inguru

Loramendi elkarateak, oster, talo-txosna jarri zuen Herriko Plazan, eta herritarrek harrera ezin beroagoa egin zioten: "Taloen erosketa-eskaera alde aurretik egin beharra zegoen, eta 299 genituen hitzartuta. Baina horiek guztiak egin ondoren oreka geratu zitzaigun eta beste 100 bat saltzeko aukera izan genuen eskaera eginda ez zutenen artean", azaldu du Ainhoa Sanchez teknikariak. 55 bat lagunek jardun zuen horiek egiten: "Ea

hurrengo urtean taloak jan gura dituzten guztiendako egiteko moduan gauden!".

## Gaztetxoak 'paintball'-ean

Nerabeek, oster, *paintball*-ean egin zuten jolas Eskoriatzako eta Aretxabaletako udalek abian jarritako *Bixi* egitasmoari esker. 40 inguruk emana zuten izena, baina 50 baino gehiagok hartu zuten parte. "Gaztetxoekin asmatzea ez da batere samurra; hortaz, oso pozik gaude izandako erantzunarekin".



Kurtzebarriko ikasleak barazkiekin. K.E.



Arizmendiko ikasleak postuan. X.G.



Javier Etxebarrieta artisaua etxean egindako tresnak erakusten. X.G.



Hainbat gaztetxo *paintball*-ean jolasten Markoleko zelaian. MAIDER ETXANIZ

## Olio batzeko gune berriak

Erabilitako olio jasotzeko edukiontzi berriak jarri ditu Debagoieneko Mankomunitateak, eta edozein potetan birziklatu ahal izango da orain. Bederatzi edukiontzi laranja jarri dira, batzuk gune berrietan. Hona hemen kokaleku guztiak: Txarapea –bi gune–, Murubide, Errekabarren-Belorrrieta, Nafarroa, Araba ibilbidea, Santa Kurtz, Mitarte eta Iralabarri plaza.



MIRARI ALTUBE

## Algara ludotekan izena emateko epea urrian zabalduko dute

Ludoteka bertatik bertara eza-gutzeko aukera izan dute herriko umeek aste honetan egindako ate irekiei esker. Izena emateko epea urrian zabalduko dute; hilaren 18tik 29ra bitartean egin ahal izango da online –urteko kuota 90 euro da–. Argibide gehiago eskuratzeko bideak hemen: 943 79 05 81 eta 634 45 28 37 eta [ludotekaalgara@gmail.com](mailto:ludotekaalgara@gmail.com).

## Genealogia feminista eraikitzeke lehiaketa bukatze dago

Aretxabaletako emakumeen inguruko ikerketa sustatu eta herriko historia beste ikuspuntu batetik kontatzea helburu duen lehiaketara lan proposamenak aurkezteko epea urriaren 4an bukatuko da –argibideak: [aretxabaleta.eus](http://aretxabaleta.eus)–. Udaleko Berritasun Sailak eta Erdu talde feministak antolatu dute elkarlanean eta saria 1.500 euro da.

# Batuta eskuan, zuzendari Parisko Garnier jauregian

Zuzendari moduan bihar, zapatua, izango du debuta Iñaki Encina Oyon eskoriatzarrak, Garnier jauregian. Christoph Willibald Gluck konpositorearen 'Iphigénie en Tauride' opera zuzenduko du Orchestre et Choeurs osatzen duten musikariek

## Imanol Beloki ESKORIATZA

Zuzendari laguntzaile urte luzez lan egin eta gero, Parisko Opera Nazionalean egingo du debuta zapatu honetan Iñaki Encina Oyonek. Eskoriatzan jaio, Gasteizen hazi eta Frantziako hiriburuan gauzatu duen musika ibilbide luze artistak jauzi itzela emango du oraingo honetan, Garnier jauregi prestigiosoan arituko baita, denboraldi ofizialeko programazioan, zuzendari titular.

"26 urterekin piano-jole laguntzaile iritsi ostean, orkestrako zuzendari titular aritu izan naiz beste hainbat antzokitan. Kontua da Parisko Opera Nazionalean zuzendari titular debutatuko dudala zapatu honetan, Gluck-en *Iphigénie en Tauride* obrarekin, Garnier jauregian, eta abenduaren 26an eta 28an izango ditut hurrengo saioak, Bastillan, Haendelen *Alcina* obrarekin".

## Ibilbide luzean jauzia

Parisko Operak duen musikari gazteentzako programa batean lau urtez aritu zen Iñaki Encina Oyon, eta lantaldea oso ondo ezagutzen duela dio. Bertan, publiko gaztearentzako lanak zuzendu ditu, baita gazte artisten programako operak ere. Horrekin batera, opera eta oratorio ugari zuzendu ditu, hala nola Mozarten *La finta giardiniera*, Pucciniren *Madame Butterfly*, Mozarten *Bastian eta Bastiana*, Haydnen *L'isola disabitata*, Mozarten *Idomeneo*, Rameauren *Hippolyte et Aricie* eta Weberren *Abu Hassan*, besteak beste.

Mundu mailako antzoki garrantzitsuenetako batean arituko da programa ofizialean zuzendari, eta ilusioz dago. "Elkarriketetan esaten dudan moduan, Garnier jauregia mundu mailako rankingean bost antzoki onenen artean dago.



Iñaki Encina orkestra zuzendaria batutarekin. IÑAKI ENCINA OYON

New Yorkeko Metropolitan, Vienako Estatu Opera, Londresko Covent Garden... daude, baina Garnierrek xarma berezia du, sekulako aukera da niretzat, eta ondo prestatuta nago", dio Encinak.

## Ondo ezagutzen duen obra

Batutarekin zuzendari titular gisa debuta egingo duen arren, eta Garnier jauregi enblematikoa, presiorik ez duela dio Encinak. "Oso ondo ezagutzen dut *Iphigénie* opera, zuzendari laguntzaile aritu naizelako

**BIHARKO DEBUTAZ GAIN, ABENDUAN, HAENDEL-EN OBRA BATEKIN ARITUKO DA IÑAKI ENCINA OYON**

hainbatetan beste antzoki batzuetan obra honekin, eta, beraz, ez dut arazorik. Opera hau joan den urtean egin behar genuen, nik zuzendari laguntzaile orduan, baina pandemiagatik bertan behera geratu zen. Aurtentz berriz egingo zela erabaki zuten, eta oraingoan zuzendari egiteko eskaini didate. Jendarean ez naiz aritu lan honekin, baina nire ogibidea da, horretan egiten dut lan, eta, hain zuzen, pauso handia izango da nire ibilbide musikalean".

Aste bukaerako estreinaldiaz gainera, urriaren 15ean kaleratuko da, bestalde, Iñaki Encinaren bigarren proiektu diskografikoa, pianista gisa, Adriana Gonzalez soprano guatemalarrarekin batera. *Complete Songs* da, Isaac Albenizen abestien integrala.

## GORA ETA BEHERA



GOIENA

## Ezohiko osoko bilkura ezin jarraitu



Iraileko ezohiko osoko bilkura era telematikoa egin zuten Eskoriatzako udalbatzak eguaztenean. Zerbitzariko arazoengatik, baina, ezin izan zen zuzeneko jarraitu.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.

## Euskara familian transmititzeko materiala banatu dute

Mankomunitateak eta udaletako euskara zerbitzuek elkarlanean euskara familian transmititzeak duen garrantzia azpimarratzeko hainbat material banatzen dute. Ikasturte hasiera honetan HH-ko 4 urteko gelan *Biharko euskara, gaur* liburuxka banatuko da, familien artean hizkuntzaren normalizazioa bideratzen laguntzeko tresna egokia dela iritzita.

2021eko apiril amaieran, Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urteko gelaletan banatu zen Debagoieneko herri guztietan liburuxka, eta, ikasturte berriaren hasiera aprobetxatuz, 4 urteko gelako ikasleentz gurasoei banatuko zaie Aretxabaletan eta Eskoriatzan, ikastetxeetan egingo dituzten guraso bileretan. Aste honetan banatu dituzte liburuxkak Luis Ezeiza Herri Eskolan, eta urriko bigarren astean banatuko dituzte, berriz, Arizmendiko Jose Arana gunean.

## Bigarren faseko bonu guztiak saldu dituzte Ibarraundin

Dagoeneko bukatu dira *Eskoriatza bizirik* aurteko kanpainako bigarren faseko bonuak, laranja kolorekoak. Arrakasta izaten ari da herriko komertzioei laguntzeko martxan jarritako egitasmoa, eta horren adierazle da irailaren 20an jarri zituztela salgai fase berriko bonuak eta lehenengo hiru egunetan saldu direla guztiak.

Establezimendu ugari ari dira parte hartzen kanpaina honetan: estetika zentroak, fisioterapia eta osteopatia, janari dendak... Eta, bide beretik jarraitu nahian, Ibarraundi museotik jakinarazi dute fase honetako bonuak gatzatzeko azkenengo eguna azaroaren 31 dela.

## 'Kalera: kale-antzerki jaialdia' hasita, gaur eta bihar emanaldiak

Atzo, eguna, *Turistetzen* ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zuten herritarrek, eta *Kalera: kale-antzerki jaialdia*-ren barruan beste bi ikuskizun izango dira: batetik, Oinkari dantza taldeak eta Hika Teatroak elkarlanean ekoiztutako *Dantza* ikuskizuna, gaur, egubakoitza, 19:00etan, Santa Marina plazan; eta, bestetik, bihar, zapatua, 19:00etan, *Legea gu gara* saioa, Fernando Eskoriatza plazan, Basarti Teatroaren eskutik.

Eguraldi txarra egiten badu, leku aldaketak honako hauek izango dira: *Dantza* ikuskizuna kiroldegian egingo da eta *Legea gu gara* ikuskizuna, berriz, Joseba Iñurrategi pilotalekuan.


# Mendian telefonoarekin orientatzeko tailerra

Mendian ibiltzeko baliabideen saioa urriaren 9an izango da, zapatuan, 10:00etatik 12:30era bitartean, kultur etxean; bost euro da. Plazak mugatuak dira, eta, horrenbestez, aurrez izena eman beharko da; horretarako, zenbait bide daude

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Poltsikoko telefonoa oso tresna baliotsua izan daiteke mendira joatean erabiltzeko. Gaur egun, lagungarria da mendizale askorentzat, eta ezinbestekoa, zenbait kasutan, txoko berri bat ezagutzera doazen horientzat. Izan ere, jende asko mendira doa GPSarekin. Smartphoneetan mendiko GPS aplikazioak deskargatu daitezke, eta, ibilbide berriak ezagutzeaz batera, galduz gero ere izugarritzko laguntza eman dezakete. Hori horrela, mendian orientatzeko poltsikoko telefonoen aplikazioen eta GPSaren gaineko tailerra antolatu du Eskoriatzako Udalak.

Mendian orientatzeko dauden baliabideen ikastaroa euskaraz izango da eta sakelakoaren oinarriko ezagutza beharrezkoa izango da. Saioa urriaren 9an egingo da, 10:00etatik 12:30era bitartean, kultur etxean, bost euroko prezioan. Plazak muga-



Mendian sakelakoarekin. APP GPS

tuak dira, eta ikastaroan parte hartzeko honako bide hauek daude: 943 71 46 88 telefono zenbakira deituta, *kultura@eskoriatza.eus* helbidera idatzita edo Whatsapp bidez 650 49 51 66 zenbakira mezua bidalita.

**Teknologia berrien abantailak**

Gaur egun, poltsikoko telefono gehienek GNSS sistemen bidez kokatzea ahalbidetzen dute, eta horrek aukera ematen du kokapena zehaztasun handiz ezagutzeko, estaldura telefonikoa eta datu mugikorrek erabili barik. Horrek esan nahi du mugikorra kosturik gabe erabili ahal dela munduko edozein lekutan. Hala ere, lehenik eta behin, ibilbideak, mapak eta behar den guztia deskargatu beharko dira telefono-estaldurarik gabeko eremu batera irten aurretik.

**Saioan ikasiko direnak**

Mendian orientatzeko eta sakelakoa erabiltzeko hainbat argibide emango dira tailerlean; besteak beste: *app*-aren menua eta konfigurazioa, ibilbideak eta datuak grabatzea, ibilbideak eta datuak inportatzea eta deskargatzea: hau da, WPTak, *track*-ak, ibilbideak... eta mapak deskargatzeko jarraibideak.

## Urriaren 4an hasita, zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa

Ordu eta erdiko hamar saio antolatu dituzte zoru pelbikoa indartzeko ikastaroan. Alde teorikoa eta praktikoa izango dute izena ematen dutenek; teoriari dagokionez, zoru pelbikoaren anatomia, postura berreziketara eta abar landuko dira. Alde praktikoa, berriz, honako hauek: zoru pelbikoarekiko kontzientzia hartzea, perineorako ariketa zehatzak, gimnasia abdominal hipopresiboa eta postura ariketa orokorrak. Urriaren 4an hasita, astelehenetan izango dira saioak, eta izena Gizarte Zerbitzuetan eman daiteke –Ibarraundi museoa–, bertara joanda edo telefono zenbaki honetara deituta: 943 71 31 36.



RUBEN TESTA

## Testa, Europako onenekin lehian

Asteburuan Yamahako kopako Europako finalean aritu zen Aratz Testa motorzalea, Italian. Erlojupekoan, sailkapeneko 26. postuan geratu zen; eta lasterketan, berriz, bihurtu batean beste parte-hartzaile batzuekin trabatu eta azken postuan egon zen arren, hogeigarren postuan amaitu zuen lasterketa. Argazkian Jon Idigoras entrenatzailearekin agertzen da.



Artisau bat sanmilixenetan salmenta egiten. GOIENA

## Sanmilixenetako azokan postua jartzeko izena eman daiteke

Urriaren 22ra arte egongo da aukera izena emateko, baina zenbait baldintza bete beharko dituzte artisauak

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Azaroaren 14an sanmilixenetan ospatuko dituzte Gatzagan, eta, ohiturari jarraituz, artisau azoka izango da bertan. Hala, azokan postua jarri nahi dutenek udal webgunean dauden eskaeretan eta oinarrietan jasotako dokumentazioa aurkeztu beharko dute udal bulegoetan, urriaren 22a aurretik, beharrezko baldintzak betetzen dituztela ziurtatzeko.

**Bete beharrezko baldintzak**

Sanmilixenetako artisau azoka 10:00etatik 14:30etara bitartean izango da, eta postuak ordu bete lehenago hasi beharko dira prestatzen, Leintz Gatzagako pilotalekuan. Erakusgai edo salgai egongo diren produktuen egilea bertan izatea derrigorrezkoa izango da, bai eta azoka egunean langintzaren erakustaldia egitea. Artisauak berak landu ez dituen produktuak ez dira onartuko

eta Gatzagako Udalak eskatutako dokumentazioa ere entregatu beharko dute; hain zuzen, *leintzgatzaga.eus* webgunean ikusgai dago, eskaera orriarekin batera: jarriko diren erakusmahaien neurriak, aurkeztu beharrezko egiaztagirak...

**Tailer herrikoia**

Bestalde, artisautza azokak irauten duen bitartean, frontoi ondoko lokalean artisautzako tailer herrikoia egingo dute. Hamar eta hamabost pertsona arteko taldeetan banatuta, haurrei, gazteei eta helduei zuzenduta egongo da. Hala ere, eremuari eta parte hartzeko oinarri dagokienez, artisau azokan parte hartzeko berberak izango dira. Gainera, ondorengo baldintzak gehituko zaizkio: emango den tailerraren deskripzio zehatza, batetik, eta aurrekontua eta beharrezkoak, bestetik.

## Auzo-egur sortak eskatzeko epea ireki du Gatzagako Udalak

Laster iritsiko da giro hotza, eta, ordurako etxeak berotzeko egurra izateko, urtero moduan, erabilera publikoko mendieta-terekin ateratzen den auzo-eguraren aprobetxamendurako eskaerak aurkezteko izen-emate epea ireki du Leintz Gatzagako Udalak.

Bi modalitate eskaintzen ditu Gatzagako Udalak, iaz moduan:

batetik, norberak egurra moztu, batu eta garraiatu dezake, baina tasak ordaindu beharko dituzte modu honetan egiten dutenek. Bestetik, egurra etxean jaso dezake nahi duenak. Kasu honetan, baina, egur-sorta bati dagokion kantitatea izango da; tamaina edozein dela ere, lanaren kostua eta tasak ordaindu beharko ditu herritarrak. Interesa duenak urriaren 29a aurretik eman beharko du izena udaletxean, eta aukeratu duen modalitatea aipatu.

Jokin Bereziartua BERGARA

Bergarako intsumisio mugimendua protagonista duen *Intsumisioa Bergaran. Desobedientziarako bide bat* izeneko erakusketak irekiko dute gaur Aroztegi aretoan, eta urriaren 23ra arte egongo da ikusgai. Bergarako Objektore Talde Antimilitaristak (BOTA) antolatu du erakusketa, Udalaren laguntzarekin; BOTAko ordezkari batzuk 18:00etan elkartuko dira Aroztegin gaur erakusketari irekiera emateko, Udaleko ordezkariekin batera.

30 urte egin behar dira atzera Bergaran intsumisio mugimendua izan zuen oihartzuna ulertzeko. Izan ere, 1990eko hamarkada hasieran babes eta indar handia izan zituen mugimendu intsumisioak; Euskal Herri osoan, Debagoienean eta Bergaran. Soldadutza egin nahi ez zuten gazteek osatzen zuten, euren borondatearen aurka zihualako, baina gizartearen beste geruza batzuen babesa ere izan zuten. Legez behartuta zeuden zerbitzu militarra egitera, eta desobedientzia kolektibo eta baketsua egitea erabaki zuten, ondorioak ondorio: "Gogorra izan zen, baina merezi izan zuen; alde batera lagata soldaduska bukatu izana ala ez, merezi izan zuen; hain zuzen ere, konpromisoak, egin behar duzuna egin behar duzula sinistea, desobedientzia zibil eta baketsuak, borrokan beti aurrez aurre egon eta ondorioak onartzeak, horrek guztiak adorea eman zigun beste errealitate batzuen aurrean ere kontzientzia hartzen duten pertsonak izateko".

#### Markos Perezen espetxealdia

Esandako moduan, borroka luzeak izan zituen ondorioak: Bergaran, esaterako, Markos Perez intsumisioa kartzelan sartu zuten: "1990eko maiatzetik 1990eko uztaile arte egon nintzen Alcala de Henaresko espetxean. Esperientzia gogorra izan zen, luzea egin zitzaidan; ezin da ahaztu, gainera, espetxe militarra zela hura. Bitxikeria moduan, han egon zen espetxeratuta Jaime Milans del Bosch militarra, 1981eko otsailaren 23ko estatu kolpean Valentzian tankeak ateratu eta salbuespen egoera dekretatu zuena".

#### Dokumentala ere egin dute

Erakusketaz gain, besteak beste, urriaren 13an dokumentala

# Intsumisioaren transmisioa misio

1990eko hamarkada hasierako Bergarako intsumisio mugimendua islatzea eta orduko borroka eta lorpenak belaualdi berriei helaraztea helburu duen erakusketa irekiko dute gaur Aroztegin (18:00); dokumentala urriaren 13an estreinatuko dute



Begarako intsumisio talde bat epaitegiko eskaileretan kateatu zen, epaiketa salatzen. ARGAZKIAK: 'BERRIGARA' ALDIZKARIA ETA BOTA

estreinatuko dute Seminarixoa (20:00). Aitor Alberdi, Jesus Kalboetxeaga, Jone Albeniz eta Ion Andueza dira dokumentalaren zuzendariak. Perezek dio ez dela oraindik dokumentala ikusi, baina asteon sare sozialen bidez ireki den trailerra "asko" gustatu zaio: "Oso ondo dago, irrikaz nago dokumentala ikusteko". Dokumentaleko protagonistetako bat da Perez, eta uste du oso proiektu interesgarria dela bereziki belaualdi berriei begira: "Orduko borroka eta osteko lorpena ez dugu behar moduan transmititzen jakin; Lander Garrrok dokumentala egin zuenean argi geratu zitzaigun hori. Eta hor hasi ginen, erakusketa bat antolatu behar genuela... Gero, film labur bat; azkenean, dokumental bat... Hazten joan den proiektua izan da, elur bola baten antzera".



Intsumisioen kontrako epaiketak salatzeneko protesta, Bidekurutzeta kalean.



Asier Altuna Kixi, dokumentalerako testigantza bat grabatzen, kartzela zaharrean.

#### Harago joan ez izana, "akats"

1990eko hamarkada hasieran bor-bor zegoen borroka: "Gaur egun gogoratu eta gaurko belaualdiei erakutsi nahi diegun borroka hartan ausartak izan ginen, beldurra izan genuen, poza probatu genuen, tristura pairatu genuen, garaipenak ospatu genituen, porrotei aurre egin genien. Agian, ez genuen ezer berririk asmatu, baina desobedientzia zibileko mugimendua bat abiarazi genuen, arrisku batzuk zekartzan konpromiso bat hartuz. Gainera, irudimenez egin genuen, jai-giroan, eta errepresioa eta zigorra gure alde erabili genituen, eten gabe zalantzan jarriz Estatuak gure aurka hartzen zuten neurri bakoitza, ikuspuntua beti armadan jarrita". Hori bai, borroka hura desagertzen joan zen osteko urteetan: "Soldaduska desagertu egin zen, deuseztatu egin zen, milaka gazte ezetz esan ziotelako diziplina militarri, balio matxista, homofobo eta solidarioak ez ziren batzuk itsu-itsuan obeditu behar izanari. Gero, marea intsumisioa desagertu egin zen; garaipen borrokatua izan zen, baina mugimenduaren amaiera oso urrun geratu da bere helburu eraldatzaileenetik; desmilitarizazio sozialetik, hain zuzen". BOTAkoek harago joan ez izana "akats" moduan ulertzen dute: "Gure akats kolektiboa han gelditzea izan zen. Izaera militarren ospe-beherakada nahiko handia izan zen, eta beste pertsona eta talde batzuek hartu dute oinordetza gure esperientzia; baina oraindik asko falta da egiteko. Gastu militarrek gehiegizkoa izaten jarraitzen du, gure zergekin mantentzen dira kuartelak, arma-fabrikak, tiro-poliگونoa, armada profesionala. Oraindik badago antimilitarismoarako arrazoirik".

Erakusketa gaur irekiko dute eta dokumentala urriaren 13an estreinatu, eta, horrez gain, urriaren 23rako desobedientziaren gaineko mahai-inguru bat ere antolatu dute, kartzela zaharrean. Ondoren, "ospakizun txiki bat" izango dute.

**"EZ DUGU JAKIN ORDUKO BORROKA BEHAR MODUAN TRANSMITITZEN"**

MARKOS PEREZ, INTSUMISIOA



# Gai guztiak aho batez, eta zinegotzi berri bat

Zihortza Marzan Usandizagak EH Bilduko zinegotzi kargua hartu zuen astelehenean, Itsasne Luarizaristi ordezkaturatuta: "Lantalde ona topatu dut atzean, eta ilusioz eta gogotsu nago lanerako"; bilkuran landutako gai guztiak ia eztabaidarik gabe onartu ziren

## Jokin Bereziartua BERGARA

Abuztuko etenaldiaren ostean, astelehenean egin zuten iraileko ohiko osoko bilkura, eta landu ziren gai aipagarrien artean dago, besteak beste, Zihortza Marzan Usandizagak EH Bilduko zinegotzi kargua hartu zuela, ekainean kargua utzi zuen Itsasne Luarizaristi ordezkaturatuta. "Legeak hala behartuta" formula erabili zuen Marzanek zinegotzi moduan zin egiteko, eta GOIENari adierazi zion "ilusioz eta gogotsu" heldu diola erronka berriari: "Lantalde ona topatu dut, lanerako giro ederra, eta horrek asko arindu dit hasierako lana. Bergararren bizi-kalitatea hobetzen saiatzeko nire aletxo emateko gertu nago".

Gainera, EH Bilduko Kristina Markinak orain arte karguari aitortua zion dedikazioari lan arrazoiegatik uko egin diola jakinarazi zitzaion udalbatzari, eta baita ere EAJko Maite Agirrek amatasun bajaran dagoen

bitartean Irune Galarragari delegatu diola botoa eta jeltzaleen bozeramaile izateko ardura.

## Aranzadiren mailegua luzatzea

Horrez gain, Aranzadi ikastolak Udalaren jabetzakoa den eraikerako mailegua ordaintzeko epea luzatzea erabaki zuen udalbatzak, aho batez. Ikastolak ordaintzeke dituen 1.204.930 euroak 2029a baino lehen kitatu ordez, 2036ko martxora arte luzatuko da epea. EAJk, alde bozkatu arren, gaia "behar den moduan" lantzeko denbora gehiago eskatu zuen: "Gai garrantzitsua da, denboraz tratatu behar dena. Inportantea da halako gaiekin denboraz ibiltzea".

2022rako taxien hiri barruko tarifen eguneratzea ere izan zen beste gaietako bat. 2021ean indarrean zeudenei %2,9ko igoera aplikatzea onartu da. Udal Gobernua eta EAJ gertu daude zerbitzu publiko horren gaineko gogoeta egiteko.



Asteleheneko bilkura erdi-presentzialaren hasiera. ANDER MONEDERO



BERGARAKO UDALA

## Aspacekoak, Bergara Oinez-en

Osasun Sareak antolatzen duen Bergara Oinez ekimenaren barruan, Aspacekoak izan ziren protagonista joan den domekan. Ekimenean parte hartzen duten eragileetako bakoitzaren ardura da irteera bat antolatzea: Mariaren Lagundia, Aranzadi Ikastola, Pol-Pol, Duintasuna, San Joxepe, Jardun-Topagunea, Udala, Aspace, Osasun Publikoa, Osakidetza eta BPX.

Herriko dendetan  
erosteak  
**HANDI** egiten gaitu!

Bergaran erosteak SARIA du.

2.000 € SARIETAN

**ZOZKETA Urriak 15**  
1.000 € \* 250 €-ko lau sari  
DJ Pinoren saioarekin  
Irala kalea \*19:00 – 21:00

**ZOZKETA Urriak 29**  
1.000 € \* 250 €-ko lau sari  
DJ Pinoren saioarekin  
Simon Arrieta kalea \* 19:00 – 21:00








Wolfratex lantegiaren aurrean geratzen den H partzelako 18.770 metro koadroko lursaila hartuko du planta berriak. E. AZKARATE

# Jarraipena planta berriari, "berme guztiak" izateko

2023ko udaberrian Larramendin martxan egongo den paper-fabriketako hondakinak tratatzeko lantegi berriak "ingurumen berme guztiak" betetzen dituela ziurtatzeko enpresa bat kontratatuko du Udalak; urriaren 4an bisita egingo dute Alacantako Greene enpresara

## Jokin Bereziartua BERGARA

Larramendiko industrialdean eraikitzeko den paper-fabriken hondakinetak azpiproduktuak tratatzeko dituen planta berriari jarraipena egiteko batzorde bat sortzea erabaki du Udal Gobernuak. Alacanteko Greene enpresak bat egin zuen "Euskadiko hainbat inbertitzaileekin", eta Valogreene Paper BC sortu dute jarduera berri bat Bergaran kokatzeko. 20 milioiko inbertsioa egingo dute, eta, diotenez, 45 lanpostu sortuko dira. Lanak azaroan hasi nahi dituzte eta asmoa da 2023ko lehen hiruhilekoan planta berriari jarraipena abiatzea.

## Tratamendu "iraunkorra"

Joan den astean GOIENAK iragarri moduan, Larramendin kokatzeko den Valogreeneko lantegian, "modu guztiz iraunkorrean" prozesatuko diren azpiproduktuak bi dira: batetik, papera ekoiztean sortutako lokatzak; eta, bestetik, *papelotearen* errefusa izeneko azpiapro-

duktuen nahasketa bat. Bi material horiek paper-industriaren ekoizpen-prozesuan lortzen dira, eta orain arte zaborte-gira eraman izan dira. Tratamendu-instalazio honi esker, hondakinak "lehengai jasagarri berri" bihurtuko dira. Plantak balioko du urtean "122.000 tona hondakin zaborte-gian ez uzteko", eta "atmosfera-urtean 150.000 tona CO2 botatzea" saihestuko da.

## Enpresara bisita, urriaren 4an

Udal Gobernuaren arabera, informazioa eskuratzea izan da azken asteotako lehentasuna, eta informazio hori auzotarrek inpartekatzeko bilerak egin dituzte. Auzotarrek kezka hartu dute berria eta haietako batzuekin

**LANTEGI BERRIRAKO LANAK AZAROAN HASIKO DIRA, 2023KO UDABERRIAN MARTXAN EGOTEKO**

asteon ere egon da GOIENA; informazio zabalagoa izateko zain daude erantzun bateratua emateko; diote, besteak beste, urriaren 4an alkateak, auzotarrak eta adituek enpresaren egoitzara egingo duten bisita "klabea" izango dela informazio zehatzago hori jasotzeko.

Hirigintza eta ingurumen ikuspegitik ari da Udala gaia aztertzen, atzo kaleratutako ohar baten esan zuten: "Eskumenak mugatuak izanik ere, Udalak ziurtatu nahi du jardura hau Larramendin ezartzekoan ingurumen berme guztiekin egiten dela". Hirigintza ikuspegitik, proposatzen den instalazioaren erabilera bateragarria da Plan Orokorrearekin, industria erabilerarako sailkatutako eremuan kokatzen da-eta. Horrez gain, proiektuaren "konplexutasun teknikoa" aintzat hartuta, Udalak erabaki du gaian aditua den enpresa bat kontratatzea proiektua aztertu eta gertutik jarraitu dezan.



Muniben eman zuten kanpainaren berri, eguazten eguerdian. JOKIN BEREZIARTUA

## Bedelkarren kanpaina berriari, 2.000 euro banatuko dira saritan

Urriaren 1etik 29ra iraungo duen kanpaina, bi zozketa egingo dituzte herriko dendetan erosten dutenen artean

## J.B. BERGARA

Pandemiaren gordinena pasatu dela sinetsita, Bedelkarrek beste kanpaina bat abiatuko du urriaren 1etik 29ra. Erosketa txartelarekin zozketa baten parte hartzeko aukera emango die bezeroei; guztira, 2.000 euro banatuko dituzte saritan. "Sentsibilizazio kanpaina bat da. Herria bizirik mantendu behar dugu guztion artean, eta, gure komertzioak herritarrei esker daudenez bizirik, leialtasun hori eskertzeko 2.000 euro banatuko ditugu saritan urrian zehar", adierazi zuen eguaztenean egindako agerraldian Igarza mertzeriako Monika Gallastegik.

## Zozketak: hilak 15 eta 29

Bezeroek zozketan parte hartzeko erosketa-txartelak edo zozketarako papertxoak euren izen eta telefonoarekin bete behar dituzte, eta honako ko-

mertzio hauetan egongo diren kutxetan utzi: Eki-Lur, Mirari, Maka, Optika Manso, Igarza mertzeria, Zubikua, Anezka, Zare fruta-denda eta Txamonix. Kutxotan utzitako txartel guztiak jaso ondoren, zozketak egingo dira urriaren 15ean eta 29an. Zozketa DJ Pinoren emanaldian zehar egingo da, 19:00etatik 21:00etara; urriaren 15ean Irala kalean eta urriaren 29an Simon Arrieta kalean. Sarien zenbatekoa 1.000 eurokoa izango da kasu bakoitzean, 250 euroko lau saritan banatuta.

Kanpaina bisualago egiteko, bertako komertzioaren garrantzia azpimarratzen duten mezuz osatutako kartelak jarriko dituzte dendetan. Besteak beste, honako esaldi hauek: *Gure ametsak egi bihurtzen dituzue; Bedelkar bizirik, Bergara bizirik; Elkarlanean alaitzen dugu herria eta Txikitasunean handi.*

## OHARRAK

### Olinoa: puntu gehiago, eta edukiontzi laranja

Herritarrek sortutako olio kutsakorra modu egokian jasotzeko puntuak 7tik 17ra igaroko dira eta laster laranja koloreko edukiontzi berrietan bota beharko dira ontziak.

### Badator organo erromantikoaren 22. zikloa

Bihar, urriak 2, Aitor Olea organo joleak eta Bergarako orfeoak kontzertua emango dute Santa Marina parrokan (20:00).

### Txapa Irratia: bilera irekia urriaren 3an

Kartzela zaharrean elkartuko dira (18:30); [txapa35urte@gmail.com](mailto:txapa35urte@gmail.com) helbidearen bidez ere jasotzen dituzte proposamenak. Denboraldi berriaren aurkezpen jaia laster egingo dute.

# 75 urterekin, 25 aldiz 'Quebranta' jarraian egin duen bergararra

Duela 25 urte hartu zuen parte lehenengoz Quebrantahuesos txirrindularitza proban Jose Ignazio Aranburu bergararrak. Ordutik, urtero bueltatu da eta urtero bukatu du proba; aurten bi semeekin. 75 urte dituen arren, badu berriz ere saiatzeko asmoa

**Jone Olabarria** BERGARA

"Bezperan xanpaina eta txupitok hartuta", hala aurkeztu ziren Jose Ignazio Aranburu eta bi lagun lehenengoz *Quebranta*-ra: "Egia esanda, juerga moduan joan ginen, ordu biak arte han ibili ginen parrandan aurreko egunean ere. Afaltzeko jangelara sartu eta han zeuden denak makarroiak jaten, eta guk txuleta nahi genuela, edan eta edan aritu ginen".

Lasterketara joandako hiru lagunek erronka bat ere bazuten 1996. urteko lehen *Quebranta* hartan; zortzi ordu eta hamarrean egin gura zuten proba. Baina Aranburuk aurreko eguneko ondorioak igarri zituen, gutxiatik izan bazen ere: "Beste bi lagunek lortu zuten; nik, baina, minutu bakarragatik ez nuen lortu, zortzi ordu eta hamaika minutu behar izan nituen bukatzeko". Aldapa batean 10 metroko tartea atera ziotela aitortu du, eta gero, ezin harrapatu: "Itxaron, itxaron esaten nien, baina ezer, eurak aurrera [Barre]".

## 25 aldiak, jarraian

Erronka hura ezin beteta ere, zerbaitek harrapatu zuen Jose Ignazio Aranburu. Izan ere, 1996a ezker 25 aldiz hartu du parte lasterketan jarraian, hutsik egin gabe. Eta denetan lortu du helmugara iristea.

Zehazki zenbatekoa ez dakien arren, balentria hori egin dutenak gutxi direla azaldu du Aranburuk: "Duela sei urte, probak 25. aldia egin zuenean, bost ziren proba guztietan parte hartutakoak. Horretarako ere zortea behar da. Lehen hamabost aldietan tokatu egin behar zaizu, zozketan, eta zorte hori ere izan nuen".

## Proba, izugarri aldatuta

Ordutik hona proba "izugarri" aldatu dela ere azaldu du Aranburuk: "Joan ginen lehen aldietan 600-800 lagun inguru izango ginen. Jendea ez zen hain presatuta joaten, ez zen lehiatzera joaten, zikloturista estilora zen gehiago".

Lasterketa soilik ez, gaur egun, bere inguruko guztia ere ikustekoa dela azaldu du Aranburuk. Alojamentua hartzea ere kosta egiten dela azaldu du: "Lasterketa bukatu, aurtengoa pagatu eta hurrengo urterako lekua hartzen dugu beti, zuzenean".

## Aurten, bi semeekin

Mende laurdena ospatzeko, aurtengo Jon eta Ander semeak ere joan dira aitarekin proban parte hartzera, lehenengoz. "Batera

## "AURREKO URTEKO DENBORA HOBETZEKO ASMOZ JOATEN NAIZ, NEURE BURUAREN AURKAKO LEHIA DA"



Ander eta Jon semeekin beste hainbat probatan ere aritu da Aranburu. A.A.

egiteko asmoa genuen, aita laguntzeko; azkenean, batera irten bai, baina bakoitza bere aldetik iritsi zen helmugara", azaldu du Ander Aranburuk semeak.

"Irteeran bai, baina helmugara arte ez nituen gero berriro ikusi. Baina hobeto horrela, ez nuen nahi niri tiraka joan behar izatea. Bakoitza bere erritmoan. Bietakoren bat erretiratuko zela uste nuen, eta orduan ni ere erretiratuko nintzen, baina ez zen hala izan", azaldu du Jose Ignazio Aranburuk.

## Okerrena, hotza eta ura

Eguraldia tarteko, aurtengo aldia bereziki gogorra izan dela aitortu dute aranburutarrek: "Hotza egiten badu eta bustita bazaude, akabo. Lasterketa hasi baino bost minutu lehenago izugarrizko euri zaparrada egin zuen, eta irten orduko bustita geunden. Lasterketa luzea duzu aurretik, altuera handira igotzen zara, eta jaitsiera oso luzeak dituzu".

Aitortu dute "fase guztietatik" pasa direla: "Hasieran, ez duzu




Jose Ignazio Aranburu, azken 25 urteetako diploma guztiak eskuetan dituela. J.O.

nahi; gero, diozu: 'Zergatik etorri naiz hona?'. Helmugara iritsi eta diozu: 'Ez naiz bueltatuko'. Pare bat zerbeza hartu, dutxatu eta pozik zaude, harro".

Aitortu du urtero esaten duela ez dela bueltatuko, baina urtez urtez, berriz ere itzultzen da *Quebrantahuesos*-era.

## "LASTERKETA BUKATU, ORDAINDU ETA HURRENGO URTERAKO LO EGITEKO LEKUA HARTZEN DUGU"



2008ko proban parte hartzen. A.A.

## "Neure buruaren kontra lehia"

"Aurreko urteetako denbora hobetzeko egiten dut lan, neure buruaren kontrako lehia da, ez beste txirrindularien kontra". 75 urterekin, astean sei egunetan irteten da bizikletan ibiltzera Aranburu –ostiraletan egiten du deskantsua–, eta aurten, urtean 20.000 kilometro egin dituela azaldu du. Asteko, batez beste, 670 kilometro egiten ditu Aranburuk.

Probari dagokionez, 66 urte zituela egin zuen *Quebranta*-n bere markarik onena: zazpi ordu eta 34 minutu: "Orduan, baina, denbora ona egitera joaten nintzen. Orain, baina, aurreratzen banaute berdin dit, eta orduan euren bila joaten nintzen".

## Datorren urtera begira

Urteen eragina igarri egiten duela aitortu du: "Erreflexuak jada ez dira lehengoak". Baina parte hartu duen urteetan egingako lanarekin "harro" dago Aranburu.

Aurtengoa azkena izan ote den galdetuta, barre artean dio ez dakiela: "Nahiz eta sufritu, saiatu egin beharko dugu berriz". Ander semeak errietan ere egin dio: "Aurten azkena izango zela esaten zenuen eta!".

# Azken agurra Ramon Aranzabal margolariari

Domekan zendu zen Ramon Aranzabal margolaria. Azken urteotan erakusketa, performance eta ekimen ugari jarri ditu martxan, betiere, herria oso aintzat hartuta, eta bere lanekin gozaten zutenak "kolorez era magiaz liluratzeko" asmoarekin

**Jone Olabarria** BERGARA

Duela bi hilabete baino gutxiago atzeman zioten garuneko tumore gaizto baten ondorioz, domeka goizaldean –hilak 26– zendu zen Ramon Aranzabal margolaria. Arrasatearra sortzez, Bergaran bizi zen Aranzabal, eta bertan garatu zuen bere lanaren zati handiena. Azken urteotan, pintoreak zenbait performance, erakusketa eta bestelako ekimen jarri zituen abian, eta Bergaran bertan egin izan ditu horiek.

## "Herriarekin gertutasuna"

Beart elkartetik azaldu dutenez, "ohikotik harago" doan artista izan da Aranzabal: "Herriarekin gertutasun handia erakutsi du bere lanetan, Bergarako parkeak, plazak, eta jendea oso aintzat hartuta. Paretan jartzeko lientzoetatik harago joan den artista izan da Ramon".

## Munibeko margolaria

Aranzabalen estudioak San Martin plazatik eta Munibe plazatik du sarrera, eta ohikoa zen bertan, Muniben, bere lanak sika-tzen ikustea. Hain zuzen ere, bertan eskaini zituen bere performanceetako batzuk: 2010eko ekainaren 25ean, *Gau magikoak Munibe plazan* ikuskizuna eskaini zuen. "Performance haren ondorioz, urtero-urtero egin dut zerbait plaza horretan, eta kulturarentzat topaleku bihurtu da Munibe". 2017an, *Munibe blues* erakusketa jarri zuen: urtebete baino gehiagoz, plaza horretan hilabetero margolanak jarri zituen ikusgai Aranzabalek, erakusketa finko batean.

Herriarekin zuen loturaren adierazgarri, Usondo, Arrizuriaga, Santa Ana eta Errekalde parkeetan artistak margotutako tutu koloretsuak ere izan ziren ikusgai. *Lau parke, lau kolore* izeneko egitasmoak ingurumena eta artea uztartzen ditu.



Ramon Aranzabal margolaria, Munibe plazan. GOIENA

## "HERRIAREKIN GERTUTASUN HANDIA ERAKUTSI DU BERE LANETAN, OHIKOTIK HARAGO JOANDA"

### "Laguntzeko beti prest"



**KARLOS GALARRAGA**  
BEART ELKARTEA

"Azken unera arte, beti denean laguntzeko prest egon da Ramon Aranzabal. Bearteko kide oso aktiboa izan da, antolatzen genuen denean parte hartzen beti. Orain gutxi, Bearten egoitzako mural bat berritu egin genuen, eta kide bakoitzak bere zatia egin zuen; han dago Ramonena ere. Falta handia izango da Bearten, hutsune izugarria utzi du".

## "Abstraktuaz gozatzea"

Aranzabalek hainbatetan eskaini dizkio elkarrizketak GOIENARI, eta, bere hitzetan, egiten zituen margolanak "abstraktuak, oso koloretsuak eta adierazgarriak" ziren. Bere lana bisitatzen zutenek "pintura abstraktuaz gozatzea" eta "kolorez eta magiaz liluratuta" geratzea gura zuela aitortu izan du.

## Gertukoaren hitzak

Aranzabalen heriotzak erreazio ugari eragin zituen gertukoaren artean, baita Beart elkartearen baitan. Horietako hainbat sare sozial bidez partekatu dituzte Aranzabal zendu eta gutxira. "Anaia bat nuen pintore, Ramon, Bergaran bizi zena. Gaur goizaldean hil da, lasai eta bakean, berak nahi zuen moduan", nabarmendu zuen haren anaia Joxe Aranzabalek sare sozialen bidez.

Aranzabalen etxekoek ere mezu utzi nahi izan zuten sareetan: "Bi hilabete gaixorik egon eta gero, baina inolako tristura bari, atzo goizean Ramonek agur esan zozkun. Eskerrik asko heriotzai bildurra ez eukitzen erakutsi dozkozulako".



Mikel Etxeberria eta Asier Elorza, *Gure urdina* diskoa eskuetan dutela. A.E.

## Kalean da Diablues Ta Bluezifer taldearen 'Gure urdina' diskoa

Bikoaren bigarren diskoak zortzi abesti ditu, eta euskal kantuen letren eta blues doinuen nahastea da

**J.O. BERGARA**

"*Triste bizi naiz, eta hilko banintz hobe*. Bururatzen zaizue blues kantutako baterako izenburu hobetik?". Gogoeta hori izan zen *Gure urdina* diskoaren abiapuntua, eta hari horri tiraka iritsi dira Asier Elorzaren eta Mikel Etxeberriaren lana osatzen duten zortzi abestiak: "Bi kultura fusionatu nahi izan ditugu. Jaiotzatik arnastu dugun euskal kultura eta gure gustuengatik aspaldi adoptatu genuen blues afroamerikarra".

## Euskal letrak oinarri

Hain zuzen ere, euskal kantutako "oinarri eta esentzia" direla azaldu du taldeko kide Asier Elorzak: "Euskal kantutegi zaharraren letra oso ondo egokitzen da bluesera. Oso triste da, eta, azken batean, hori da bluesa, esklaboen kantutako tristea". Euskal kantutako oinarri diren arren, "beste forma

guztiz ezberdin batekin" aurkitu ditu entzuleak *Gure urdina* diskoan: "Kaxiano, Urretxindorrrak eta beste hainbat euskal musikariren letrak batzen ditu, baina kosta egingo zaie identifikatzea". Irailean, *Kristo erruki* taldearen bigarren diskoaren aurkezpen-bideoklipa aurreratu zuten, "arrakasta handiz".

## Aurkezpen kontzertua

Azaroaren 20an egingo dute aurkezpen kontzertua, Seminarixoa. "Berezia" izango dela iragarri dute, eta "sorpresa ugari" egongo direla. Hortik aurrera bailarako herrietan ere emanaldiak eskaintzea gustatuko litzaiekeela azaldu dute. Zortzi eurotan, Oskar Vicentoren diseinua daraman diskoa salgai dago Ganbara tabernan, Lazkano zapata dendan eta *diabluestabluezifer@gmail.com* helbidean.


## Izena eman daiteke oraindik sorkuntza artistiko ikastaroan

Hirugarren urtez, Beartek sorkuntza artistiko tailerra eskainiko du, Amaia Santamariak gidatuta. Egubakoitzetan izango da, 17:30etik 20:30era, eta gaurtik ekainera arte iraungo du. Hilabeteko kuota 40 eurokoa da eta oraindik ere bada bertan parte hartzeko aukera, *beart.elkartea@gmail.com* helbidera mezua bidalita.




Aurreko aldietako ikastaro batean. A.S.

# Aurtengo irabazleak!



**17. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA**  
*egin klik!*

## NAZIOARTEAN



**SARDINIA** | Argazkia: Aritz Murgia Mendizabal  
**SARIA:** Arrasateko Halcon Bidaiak-en eskutik, Toñanesko La Estela Cantabra ostatuan bi pertsonarendako bi gau eta gosaria

## EUSKAL HERRIAN



**GASTIAIN (NAFARROA)** | Argazkia: Ibernalo Iparragirre Ortega  
**SARIA:** Gure Ametsa jatetxean bi lagunendako bazkaria edo afaria

## PUBLIKOAREN SARIA



**EKAITZA HURBIL (LAREDO)** | Argazkia: Susana Gartzia  
**SARIA:** Bergarako Ereindajan-en eskutik bertako eta kalitatezko produktuen saski ederra

## PROTAGONISTAK



**ALAIA, ABARTZUZAN FRESKATZEN** | Argazkia: Iñigo Zubia  
**SARIA:** Eroski Arrasateren eskutik, LG K 51S smartphonea

Amaitu da Goienak antolatzen duen **Udako Argazki Lehiaketa**, eta honako lau argazki hauek izan dira aurtengo irabazleak. **Eskerrik asko** parte hartu duzuen guztioi. Guztira, **367 argazki** jaso ditugu, eta txoko asko ezagutzeko aukera izan dugu. Publikoaren saria aukeratzeko, 400 boto baino gehiago jaso dira.

Urriaren 5eko GOIENA aldizkarian izango duzue irabazleak ezagutzeko aukera.

ANTOLATZAILEA:

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

**EROSKI**  
ARRASATE

**GURE AMETSA**  
Restaurante • Jatetxea

BERGARA  
**EREIN DA JAN**

**GU** Travel  
Halcon bidaiak  
Arrasate

# 240.000 euro inguru jolasguneak egokitzeko

Jolasguneen gaineko parte hartze prozesuak ondorioztatu du zein den gune bakoitzaren egoera. Kasu bakoitza aztertuta, zer egin erabaki dute eragileek eta herritarrek. Horretarako, kreditu aldaketa onartu berri dute osoko bilkuran

## Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako Udalak ekainean egindako jolasguneen gaineko parte hartze prozesuaren ondorioak batu eta lanketa egin du. Hala, jolasguneak egokitzeko beharrezko inbertsioa izateko, kreditu aldaketa onartu berri da iraileko osoko bilkuran, EH Bilduren aldeko zazpi botorekin. "2017an egin zen Antzuola 2030 izeneko parte hartze prozesua. Hertia hobetzeko ekintzak planteatu ziren, eta, tartean, herriko aisialdi azpiegitura hobetzea jaso zen. Iazko aurrekontuetan sartu genuen jolasguneen azterketa eragileekin eta herritarrekin egiteko diru-partida. COVID-19ak eraginda, aldiz, egoerak eta neurriek baldintzatuta, prozesua 2021ean gauzatu da", azaldu zuen Beñardo Kortabarria alkateak.

Hala, Udalak dinamika bat abiatu zuen Idolazekin, eskolarekin, Pausokarekin eta erretiratuarekin elkarlanean. "Foro bat sortu eta lanketa egin dugu martxotik maiatzera bitartean. Kale inkesta ere egin dugu, jakiteko herritarrek nola ikusten dituzten jolasguneak eta zein proposamen dituzten. Guztia ekainean jaso eta talde eragileei bideratu genien. Hasierako zirriborro bat izan dugu,



Herri Eskola aurreko jolasgunea. MAIDER ARREGI

baina ez genekien zein kostu eta proiektu egingo ziren zehatz, gaur arte".

## Jolasguneetarako inbertsioa

Orain, ekaineko proposamen zabala aztertuta eta egin nahi diren proiektuak zehaztuta, alkateak azaldu zuen 335.000 euroko aurrekontua izango dutela aurreikusitako inbertsioek. Eta, hain zuzen ere, kopuru horren kreditu aldaketa onartu zuten egokitzapenak egiteko: "Kreditu aldaketan bi planteamendu daude: batetik,

jolasguneen egokitzapenerako eta sortu den irisgarritasun lanak egiteko 240.000 euro bideratuko dira; eta, bestetik, Eztala zelaiko argiteria berritzeko 95.000 euro bideratuko dira". Antzuolako Udalak une honetan ia 700.000 euroko kreditu globala dauka, eta hortik bideratuko da kreditu aldaketa egiteko diru kopuru hori.

Talde eragilearekin konpromisoa hartuta, uztailetik hona proiektuak lantzen jardun dute, honako adostasun hau lortuta: Errekaldeko parte hartze pro-



Hilerri alboko belardian egingo da puntrak gunea. M.A.

## Bizikletaz eta patineteaz gozatzeko

Puntrak parkeak tirolina ere izango du. Torresoroatik igarotzeko semaforoa jartzea adostu du Udalak Diputazioarekin, azken unean, eta horrek inbertsioaren kostua arindu egingo du; modu horretan hilerria irisgarri izatea ere lortuko da, gainera.

zesua aurten egitea, urtea amaitu aurretik. Antiguako gunea egonleku bilakatzea, eta gimnasia egiteko aparatuak jartzea. Kalegoi mahaiak jarri eta parkeri pare bat elementu gehitzea; eskola aurrea, ordea, ondo dagoela ondorioztatu dute. Ez, aldiz, anbulatorio aurreko parkea, eta, egokitze lanez gain, txirrista eta eskalada-gunea jarriko dira. Hilerri alboko zelaia da berrikuntza: puntrak gunea egingo da bertan. Beheko auzoko, Ibarreko eta Eguzki auzoko gunek ere txukunduko dira eta gazte txokoko horma batean rokodromoa jarriko da, hurrenez hurren.

## Eztalako argiteria

Eztalan aldagela berriak egin ziren, baina futbol zelaiko argiteria instalazioa -fokuak eta farolak- zaharkituta dago, eta

ez da bateragarria egindako lan berriekin. Ondorioz, Jaurlaritzako Industria Sailaren ikuskerak hala eskatuta, argiteria instalazio berria jarriko da.

## EAJren desadostasuna

Abstenitu egin ziren EAJko hiru ordezkariak: "Inbertsioak herritarrendako mesede dira, ez daukagu inolako zalantzarik. Baina oposizioan gaudenondako oso garrantzitsua da informazio gardena eskuratzea: zer egin nahi den, zenbat kostatuko den, zein kronograma izango duen... eta hori ez dugu jaso".

## EZTALA ZELAIKO ARGITERIA ZAHARRA ALDATU EGINGO DUTE; 95.000 EUROKO KOSTUA IZANGO DU

## Adarragan ere txapeldun


San Mateo txapelketako finala poltsikoratu du Leire Galeano antzuolarrak Belmonte bikotekidearekin batera, finala erraz irabazita (18-1). Logroñoko Adarraga pilotalekua bete egin zen zapatuan, eta pilota zaleek ikuskizun apartaz gozatu zuten. Harrobiko pilotariei ikusgarritasuna eskaintzea dela helburu adierazi dute antolatzaileek.



EMAKUME MASTER CUP

## Ondarreko iturria, martxan

Antzuolako alkateak azaldu du Ondarre auzoko iturritik ez dela urik ganoraz irten azken urteotan, karea dela eta. Horri irtenbidea emateko asmoz, iturbidean sartu berri dira udal-langileak, eta putzu bat egin dute. "Ur askorik ez dago oraindik, baina uste dugu bere mailara iritsiko dela. Iturria berriro martxan da", jakinarazi dute Udaleko ordezkariak.



ANTZUOLAKO UDALA



Makinak ur-hoditeria sartzeko hondeaketa lanak egiten, Galartzan. IOSU ITURRIZA

# Ur-hoditeria berri dute Galartzan, auzolanean

Bihar, zapatua, emango diote amaiera Uzarragatik Gorriz baserrirainoko bideko lanei. Auzolanean egindako lanak dira, eta, ur-hoditeria berriaz gain, errepidea estutzen den zenbait gune zabaltzeko lanak ere egingo dituzte Galartza auzoan

## Maidar Arregi ANTZUOLA

Bihar, zapatua, amaituko dute Galartza auzoan egiten diharduten auzolana. "Aurreko egubakoitz eta zapatuan hasi genituen lan batzuk. Egun bakarrean egiteko lanak ez dira, eta astea ere aprobeixatu dugu lanak aurreratzeko. Bihar, zapatua, amaituko ditugu lanak, ziurrenik", argitu du Nekazaritza eta Ingurumen zinegotzi Ion Aranguren.

## Ur-hoditeria, berri dute

Zelai tarte batean ur-hoditeria berri egin dute. "30 bat hodi sartu ditugu. Ur-hoditeria zaharrikuta eta buxatuta, oztopatuta, zegoen, eta hodi berriak sartu ditugu Uzarragatik Gorriz baserrira bidean, Galartza auzoan, zehazki". Errepidean bestelako konponketa lanak eta txukuntze lanak ere egiten dihardutela gaineratu du Aranguren. "Errepideko zenbait gune oso estuak dira, eta bidea ere zabaltzeko gura izan dugu. Hala,

aste barruan, bidea zabaltzeko lanak abiatu ditugu, eta bihar, apurtutako zorua hormigoiz estaliko dugu, auzolanean", nabarmendu du.

## Auzolana oinarri

Herri txikietan "duten aurrekontu txikien ondorioz" auzolana gakoa dela zenbait lan aurrera ateratzeko ere adierazi du Aranguren zinegotziak. Auzolanerako jarrera oso ona dutela herritarrek kontatu du: "Erantzun oso ona izan du auzolanak. Bizi izan dugun egoerak zaildu egin duen arren, herritarrek ulertu dute modu honetan lan egiteak dakartzen onurak zeintzuk diren. Lanak ahal bezain pronto egiteaz gain,

**ERREPIDEA ZABALDU EGINGO DUTE HAINBAT GUNETAN, ETA BIHAR AMAITUKO DITUZTE TXUKUNTZE LANAK**

diru-partida txikiagoarekin lanak egin daitezkeela, hain zuzen ere".

Auzolanerako taldea ere sortua dute: auzo bakoitzeko ordezkariak daude bertan, eta hamar lagunek osatzen dute. "Bihar, ordezkari horiez gain, auzotarrak ere izango dira bertan. Beraz, Galartza auzokoek auzolanera etorri gura badute, ongiatorriak izango dira".

Aranguren gaineratu du oro har auzoetarako bideak egoera onean daudela. "Tarteka, pistak apurtu egiten dira basolanen ondorioz, baina egoera onean daude; Diputazioaren eskumenekoak diren zenbait pista baino hobeto daude. Gainera, urtero saiatzen gara mantentzea egiten. Urte bukaera edo hasieran auzoetako ordezkariekin elkartu eta goiz batean auzoetara bisita egiten dugu horien egoera aztertzeko. Ondoren, lehentasunaren arabera antolatzen dugu auzolana", gaineratu du.



NIRE USTEZ

JON KORTABARRÍA

## Ahora, nondik eta nora

Ikertzaileek diotenez, elikadurak eragin handia du ingurumenean. Batzuen aburuz, nagusiki, animalia jatorriko elikagaiak dietatik kenduz murrizten da eragin hori; eta, horrenbestez, elikagai horien kontrako mezuak aise hedatu dira. Hala, haragia jatea iraunkortasuna kolokan jartzen duen elikadura-ohitura bakarria dela dirudi. Noski, elikagai-industriako eta saltokietako buruak ez dira tuntuak; apalategiak elikagai pseudojasangarriz josi dituzte. Horra, plastikoz bilduta 12.000 kilometro egin dituen kinoa, dudarik gabe, ekologikoa izan daiteke jatorrian, eta zigiluan argi jar dezake hori.

Alabaina, horrek ez du esan nahi herrian bertan hazitako oilaskoa baino jasangarriagoa denik. Esango nuke animaliak ere ez dituela gehiago errespetatzen. Izan ere, batek daki bilkinaren fabrikazio-prozesuko eta garraioeko albo-eraginen ondorioz zenbat animalia hil diren; asko, garrantzi ekologiko handikoak.

## Euskal zinemagintza indartzea da ikasturte berriko erronka

Filmazpit-en eskutik, domekan 'Dating Amber' filma ikusteko aukera izango da, Torresoroan, 18:30ean

## Maidar Arregi ANTZUOLA

Filmazpit-eko film emanaldiak berriro bueltan dira Antzuolan Zineuskadiren eskutik. Hainbat zinema jaialditan emandako pelikulak dira eta euskarazko azpiztituluekin eskaintzen dira. Hala, hileko lehen domeketan Filmazpitemo pelikulak eskainiko dira Torresoroan, 18:30ean hasita. Sarrerak aurrez eskuratu beharko dira, online [www.labur.eus/sarrerakantzuela](http://www.labur.eus/sarrerakantzuela)-edo liburutegian.

"Apirilera bitarteko lehen domeketan eskainiko dira. Hala,

etzi, domeka, maitasuna eta komedia oinarri dituen *Dating Amber* filmak abiatuko du Filmazpitemo film emanaldi denboraldia Antzuolan", azaldu du Kultura zinegotzi Mikel Bargielak.

Euskal zinemagintza sustatu eta indartzea ere badela asmoa gaineratu du Kultura zinegotziak. "Zehaztu gabe dagoen arren, badugu asmoa pare bat film eskaintzeko apirilera bitartean. Euskal zinemagintzako pare bat film berri izango lirateke, oraingoz", nabarmendu du.

## Pilotalekuak berriro zabalduko ditu atek aisiialdirako

Pandemia hasi zenetik egon da pilotalekua itxita. Herritarren eskariz, eta egoerak hobera egin duela ikusita, berriro irekiko ditu atek gaztetxoan aisiialdirako. "Pilotalekuan egiten diharduten lanak amaitzean irekiko dugu; ate automatikoa martxan jarri eta zabalduko dugu. 16 lagun baino gehiago ezingo dira elkartu", ohartarazi du Udalak.

## Preferenteak Eztalan jokatzeko duenean egingo dute zozketa

AKEk martxan du berriro txartelen salmenta. "Taldea etxean jokatzeko duenean egingo dugu zozketa. Hain zuzen ere, hilaren 10eko partiduen etaldian egingo da lehenengo zozketa. Txartelak ohiko guneetan erosi daitezke. Herriko komertzioetako produktuak zozketatuko ditugu", adierazi du Ibon Gezalaga presidentek.

# "Zuk egiten baduzu, umeek ikasi egiten dute"

**RAMON GEZURAGA JAUREGI** IRAKASLEA

Eguaztenean bete zituen 60 urte, eta hori izan zen azken eskola eguna Ramon maisuarendako. 38 urte egin ditu irakaskuntzan; azken hamaseiak, Elgetan.

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Herriko neska-mutiko asko pasa dira Ramon Gezuragaren gelatik. Naturarekin eta sorkuntzarekin konektatzen irakatsi die. Asteon hartu du erretiroa.

**Zer moduz azken lanegunak?**

Emozio nahasketa handiarekin ibili naiz. Urduri, fase bat bukatzen delako eta pentsatu behar-k dudalako zer egin aurrerantz; eta triste samar, badakidalako oso gustura egon naizen garai bat bukatzen dela. Egun arraroak izan dira, bai.

**Bizitza ia osoa eskaini diozu irakaskuntzari.**

22 urterekin hasi nintzen. Irakaskuntzaren barruan sortu berri zuten Euskal Filologiarekin lotutako ikasketak egin nituen. Orduan ez zegoen ez D eredua ez ezer, eta Bilboko Altamira ikastetxean hasi nintzen A ereduko ikasleei euskara irakasten. 15 bat urteko ikasleak ziren, eta inguru oso erdalduna zen. Erronka handia izan zen, ez zegoelako euskara erakusteko materialik. Nik neuk ere, hasiera batean, gazteleraz justu-justu egiten nuen. Erabaki nuen ikasle haiei zer edo zer eskaintzekotan motibazioa izango zela, eta hasi ginen abestiak ikasten, txotxongiloak egiten... 22 laguneko taldea zen, eta zikloa



Ramon Gezuraga, herri eskolako psikomotritzitate gelan, martitzenean. L.Z.L.

amaitutakoan hamahiru euskaltegian apuntatu ziren.

**Gogoan duzu lehen eguna Elgetako eskolan?**

Bai. Katalunian egon nintzen lanean sei urtez, eta ordurako gorputz hezkuntzarako zein haur hezkuntzarako ere formatuta nengoen. Bueltatzea erabaki nuen, Elorriotik gertu zegoen ikastetxe bat bilatu nuen, eta Elgeta izan zen jarri nuen lehen aukera. Haur Hezkuntzako plaza eman zidaten. Gogoan dut bi irakasle ginela Haur Hezkuntzan, Maite eta ni. 2 urteko gelarik

ez zegoen, eta 3 eta 4 urteko geletako umeak hartu nituen, elkartuta. Hemeretzi inguru ziren. Nirekin batera hasi ziren eskolan Arantxa Esparza eta Nora Olabide. Gogoan dut zuzendaritzan sartzeko proposamena egin zigutela. Eskatu genuen uzteko, behintzat, lehenengo urtea eskola ezagutzeko, eta hurrengo ikasturtean sartu ginen zuzendaritzan. Orduan sortu zen 2 urteko gela.

**Eskola txikia izango zen...**

Bai. Eta giroa ez zen gaur egun-goia. Ikusten zen gurasoak ez

zeudela eskolarekin oso konektatuta, eta zuzendaritzako lehen urteetan helburua izan zen giro ona sortzea. Denborarekin gauzak hobetzen joan dira, eta orain, giro oso ona dago. Eskolak ematera etortzen diren irakasleek errepikatu nahi izaten dute, eta hori oso seinale oso ona da.

**Ipuinak, magia trikimailuak, baratzea, birziklapena... Zure ezaugarri nagusiak dira, ezta?**

Inprobisatzea gustatu izan zait beti. Uste dut umeak bezain espontaneoak eta naturalak izango bagina hobeto funtzionatuko genukeela. Sormena lantzeari ere garrantzi handia ematen diot. Umeei gauzak sortzen erakustea gustatzen zait. Prozesu bat da eta estrategia pila bat sartzan dira hor. Zuk egiten baduzu, umeek ikasi egiten dute, eta sortzen ere ikasi egiten da. Konbentziturata nago.

**Eskola txikia izatea indargunea edo ahulgunea da?**

Sarri entzuten dugu: "Ume gutxi dituzue...". baina indarguneak ere badaude. Denok ezagutzen dugu elkar, badakigu umeak nolakoak diren. Familiak ere ezagutzen ditugu. Elkar-zaintza bat dago, umeen garapenaren jarraipena gertuagotik egiten dugu, eta umeak beste giro batean daude. Ez da berdina herriko giroa edo herriko giroa.

**Nola bizi izan duzu pandemia?**

Frustragarria izan zen etxean gelditzea umeekin egoteko aukerarik gabe. Saiatu nintzen ipuinak asmatzen eta bideo txiki batzuk bidaltzen, baina zenbat eta txikiagoa umea, orduan eta zailagoa da. Gero, burbuila-taldeetan egotea ez dator bat gure metodologiarekin. Umeak elkarrekin beharrez bakoitza bere gelan egotea ekarri du pandemiak, eta eragina dauka, bai.

**Irakaslearen figura gutxietsia dago?**

Gizartean gertatu den aldaketarekin du horrek zerikusia, nire ustez. Gizarte oso demandatzailer bihurtu gara. Eskatu eta eskatu egiten dugu, eta defentsibara moduan gaude. Oso presente ditugu gure eskubideak, baina ez hainbeste betebeharak. Ez dut uste ona denik. Hortik ere ikasi egiten dute umeek.

**Zertan emango duzu denbora orain?**

[Barre] Shinova musika taldean ari dira gure bi semeak, eta larrazko txupa erosi eta kontzertuz kontzertu hasiko naiz, akaso. Gustatuko litzaidake, baita ere, ipuinak sortzea eta bidaiatzea. Dena den, faltan igarriko ditut umeak. Gertu bizi naiz, eta etorriko naiz bisitan.

**Mezu bat irakaskuntza ikasten ari direnei?**

Sormenaren arloa ez ahazteko. Gauza estrukturatua emateko eskatzen digute, baina oso garrantzitsua da barne ekosistema ere lantzea, emozioak. Ume bat izan daiteke onena gauzak egiten, baina, ez badaki emozioak kudeatzen, gaizki ibiliko da.

**Eta Elgetako eskola komunitateari zer esango zenioke?**

Garrantzitsua umea ondo eta gustura sentitzea dela. Horretarako, eskolan harreman onak egon behar dira. Arazoak daudenean, modu produktiboan bilatu behar dira konponbideak, haserretu gabe eta denen artean. Eskolan giro ona egotea ona da denondako: umeendako, familiendako, eta herriarendako.

**"HOBETO FUNTZIONATUKO GENUKE UMEAK BEZAIN ESPONTANEOAK ETA NATURALAK BAGINA"**

## Jolaserako proposamenak

Martitzenean egin zuten *Azalerako ipuinak* tailerreko hirugarren eta azken saioa. Zortzi familiak hartu dute parte liburutegiari antolatuta eta Saroa Bikandik gidatutako tailerrean. 0-2 urte arteko neska-mutikoendako eta haien familiendako egindako proposamena izan da. Ipuinak, masajeak, abestitxoak... izan dira protagonista.



ELGETAKO LIBURUTEGIA

## OHARRAK

### Koko-batzea: lehen batzar irekia

Inauterietako koko-batzea antolatzen hasteko lehen batzarra deitu du Goibekok egunerako. Batzar irekia 19:00etan izango da, Ozkarbin. Interesatuta dauden guztiei zabalik.

### Zirku ikastaroa neska-mutikoendako

Gure Zirkuan aire akrobaziak egiten dituen Agurtzane Telleriak eskainiko du Elgetan, urriaren 18tik aurrera, 5 urtetik gorakoendako, astelehenetan 17:00etan. Argibideak: 609 55 62 10.

### Haur eskolan matrikula zabalik

Gaurtik hilaren 8ra bitartean zabalik da izen-ematea. Online zein haur eskolan hitzordua hartuta egin daiteke: 943 78 82 36.



# Pozik etxera Berlinen ikusi eta ikasitakoarekin

Alemaniatik bueltan dira Jessica Ots eta Rouse Garcia. Jokatu berri den munduko jugger txapelketan izan dira. Esperientzia aberasgarria izateaz gainera kontaktu berri asko egin dituztela eta aurrera jarraitzeko indarberrituta etorri direla azaldu dute

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Barikutik domekara bitartean jokatu zen, Berlinen, munduko jugger txapelketa. 72 talde elkartu ditu; tartean, Ots eta Garcia kide diren Arima Galduak taldea. Egunean zazpi bat norgehiagoka jokatu dituzte, eta sailkapeneko 32. postuan amaitu dute. "Pozik gaude emaitzarekin. Talde oso onak egon dira, eta sailkapenean erditik gora gelditzea oso marka polita da", esan du Otsen.

Olympiakos futbol zelaiaren ondoko instalazioetan jokatu da txapelketa. "Antolakuntza oso ona izan da. 32 jugger zelaiz zuden. Eredu ikaragarri handia zen, eta, lehen jardunaldia ordu erdiko atzerapenarekin hasi bazen ere, gainerakoetan puntualitate handiz jokatu dira partida guztiak. LGTBI kolektiboari erakutsitako babesaren handia izan da. Jokalari askok zuten ikurra jarrita, eta taldeetako batzuek kamisetetan inprimatuta ere bai".

Multzoka jokatu da txapelketa, eta Rigor Mortis talde alemaniarrak eta The Fellowship talde murtziarrak jokatu zuten finala. Murtziarrak izan dira nagusi. "Maila oso handiko taldeak dira. Ez dugu haien kontra jokatzeko aukerarik izan, baina



Jessica Ots eta Rouse Garcia jugger jokalariek, Elgetan. L.Z.L.

## "KONTAKTU BERRI ASKO EGIN DITUGU TXAPELKETAN; HOGEI BAT KAMISETA ERE TRUKATU DITUGU"

esperientzia bikaina izan da txapelketan egotea. Jende asko ezagutu dugu, kontaktu berri asko egin ditugu eta hogeitabat kamiseta trukatu ditugu. Ikasi ere asko egin dugu; batez ere, gauzak nola ez egin ikasi dugu".

Indarberrituta itzuli dira, eta Zaragozan dute hurrengo hitzordua, azaroaren 10ean.

### Entrenamenduak, domeketan

Beste txapelketa bat ere jokatu da asteburuan Valladoliden. Arima Galduak taldeko jokalariek ere izan dira bertan. 28 talde ziren, eta 23. gelditu dira. "Jokalari berriekin osatutako taldea izanik, emaitza ona dela uste dut", esan du Otsen. Domeketako entrenamenduekin jarraituko dute orain. 10:30ean elkartzen dira, Labegaraietan.

## 32. postua 72 talde izan dituen txapelketan

Hogeitahogeitako baina gehiago jokatu dituzte Arima Galduak taldeko kideek Berlinen. Aurrez aurre izan dituzte AEBetako, Australiako, Lituaniako, Suitzako, Austriako, Poloniako, Hungariako, Frantziako eta Suediako taldeak. Pandemia osteko denboraldiari ekiteko indarberrituta etorri dira. Juggerra ezagutu nahi dutenei, gerturatzeko dei egin diete.



Arima Galduak taldeko kideak partida bat jokatzen, Berlinen. ARIMA GALDUAK



Errefuxiatuak artatzeko gunea, 2018an egindako bisita gidatu antzeztuan. I.S.

## Egunotan betetzen dira 85 urte Intxortako frontea ezarri zela

37 boluntarioekin egindako bisita gidatu antzeztua eta lore eskaintza daude iragarrita domekarako

**L.Z.L** ELGETA

Mendizaleen plazatik abiatuko da, 10:00etan, bisita gidatu antzeztua. Gehienez ere, 30 lagunekin taldea izango da, eta ezinbestekoa da aurrez izena ematea, 943 79 64 63 telefono zenbakira deituta. Bisitariak, bidean, zazpi geldialdi egingo dituzte. Ozkarbipean errefuxiatuei harreara egiteko gunea eta lehen arretarako sendagileen postua ikusiko dituzte. Olatzako pagadian gudari talde baten kontrola gainditu beharko dute, eta Asentzioko baselizan tropa frankistekin egingo dute topo. Gudarien

lubakietaraino iristea lortzen dutenek babeslekua zein La Bega posizioa ezagutzeko aukera izango dute.

Salbador ermitan amaituko da bisita, Elgetako biktima zibilen omenezko oroitarrian 14:00etan egingo den lore eskaintzarekin. Intxorta 1937 kultur elkartearen Nerea Villak azaldu du herriko boluntarioez gainera Lubaki elkartearen zein Frentes de Euskadi taldeko kideek hartuko dutela parte antzezpenean. Ekitaldiok egia, justizia eta erreparazioa aldarrikatzea dute helburu nagusi.



ELGETAKO UDALA

## Lanak Azurtzako bidean

Udalak jakinarazi du Espainiako Sare Elektrikoak egin dituela lanok. "Dorre bat jasotzeko egindako lanetan, Azurtza baserrietara doan herri bidean kalteak sortu dituzte, eta, Udalaren erreklamazioari kasu eginez, kaltetutako sei gunetan konponketa lanak burutu dituzte", azaldu du Baserrietarren batzordeko buru Sebastian Arantzabalek.

DEBAGOIENENKO

# OSASUN ZERBITZUAK



## DENTISTAK

### ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

### AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

### ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.  
943 79 13 68

### ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

### ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

### BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

### CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

### DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

### GARAI HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Iralabari 15 / 943 53 42 63

### GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

### IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

### MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosari J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

### SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

### TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea  
943 79 20 18 / 620 12 48 43

## DIETETIKA

### BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

## ENTZUMEN ZENTROAK

### INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68  
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

### BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## MASAJISTAK

### AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

## NEUROLOGIA

### AGUSTIN SAGASTA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

### BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

### MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN- DIAGNOSTIKOAK

### UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Arrasate / Euskal Herria plaza 3  
943 79 44 22

## PODOLOGOAK

### ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk.  
943 79 97 46

### IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g  
943 76 07 84

## PSIKOLOGOAK

### NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

### VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

### IÑAKI MADARIAGA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11



Azkoainera eta auzoraino iritsiko da Arantzazuko Ama kaletik luzatuko duten espaloia. O.E.

## Espaloia egingo dute Lezesarri auzoraino

Lanak zeharkatuko dituzten lur pribatuen desjabetzea onartu du, aho batez, udalbatzak irailako osoko bilkuran, eta proiektuari hasiera eman dio. Arau subsidiarioen aldaketa ere aho batez onartu du, Gomiztegiko harrobiaren ustiaketa eremua ez zabaltzeko

### Oihana Elortza OÑATI

Lezesarri auzoa irisgarriagoa izateko proiektuari hasiera eman dio Oñatiko Udalak. Espaloi bat egin gura dute, eta martxan jarri dute prozesua, irailako osoko bilkuran aho batez onartuta.

### Espaloia auzoraino

Lehendik datorren proiektua da hau. Auzotarrek eurek eskatu dute auzora modu seguruan joan ahal izateko obrak egitea, irisgarritasun neurri batzuk jartzea. Bestetik, Azkoagain ingurua egokitzea ere ondo ikusten du Udalak, eta, hala, prozesua jarri zuten martxan. Aurtengo aurrekontuetan sartu zuten proiektua: 165.000 euro. Asmoa zen Azkoagain pareko bidegurutze horretan biribilgune bat egitea, eta espaloia gero auzoraino. Aldundiak, baina, ez du lehentasunen artean ikusten biribilgune hori egitea, eta, oraingoz, ez da egingo. Bai, ordea, espaloia. "Guk ikusten genuen auzorako bidea egin behar genuela, Arantzazu-

ko Ama kaletik gora, Azkoagaineraino eta aurrerago helduko den espaloi bat egitea. Horretarako, desjabetzeak egin behar dira lehenengo; lur pribatu batzuk hartuko dituzte lan horiek, eta desjabetze horiek egitea da irailako osoko bilkuran onartu dena. Gero, obraren lizitazioa aterako da, eta ondoren egingo dira lanak", azaldu zuen astelehenean, osoko bilkuraren ostean, Izaro Elorza alkateak.

Anjel Biain jeltzaleak "proiektuak osotasunean" egiteko eskatu zuen, "nahiz eta gero zatika esleitu". Lezesarrikoan, esaterako, argiteria ere hasierako proiektuan jaso beharra zegoela adierazi zuen, baita zebra-bide bat ere beharra egonez gero.

**PROIEKTUA EGINDA DAGO, ETA DATOZEN HILABETEETAN ESLEITUKO DITUZTE LANAK**

Alkateak azaldu zuen baietz, hasiera batean jaso ez bazen ere jasoko dutela argiteriaren azpiegitura egitea, "beharrezkoa" dela iritzita. Sestra enpresak egin du lan horien proiektua.

### Aldaketa arau subsidiarioetan

Udalbatzak aho batez hartutako beste erabaki bat Gomiztegiko harrobia egungo eremutatik kanpo ustiatzea debekatzea izan da. Arau subsidiarioetan aldaketa egitea onartu du Oñatiko udalbatzak, aho batez, harrobia ustiatzen duen enpresak egindako eskaerari mugak jarri. "Enpresak proposatzen zuen zabaltzea ustiapen eremua, baina, babes bereziko gunea izanda, ikusten genuen ezin zela hori horrela izan. Ingurumen txostena ere egin dugu hori argudiatzeko, eta gaurko erabakiarekin baimen hori ez da bideragarria izango, gure arauak jasotzen dutelako hori ezin dela egin", azaldu zuen astelehenean alkateak.

## Edukiontzia aurrerantzean Zubikoan aldatu beharko dira

Hilaren 6tik aurrera, beraz, goizez zein arratsaldez eskainiko dute edukiontzien banaketa zerbitzua

### Amaia Txintxurreta OÑATI

Orain artean arratsaldez udal txean eskaintzen zuen Udalak edukiontzien banaketa zerbitzua. Hemendik aurrera baina, goizez eta arratsaldez eskainiko du, Zubikoa kiroldegian.

Izaro Elorza alkateak adierazi du, modu horretara, goizez ere eskaini ahal izango dutela zerbitzua eta hasiera batean proba moduan izango bada ere, hilaren 5ean kiroldegia arratsaldez zabalduko denez, arratsaldez eman go dute zerbitzu hori egun horretan, eta hurrengo egunetik

aurrera, hilaren 6tik aurrera, goizez zein arratsaldez aldatu ahal izango dira edukiontzia Zubikoan.

Aldatzeko beharra daukan edukiontzia, sarreran bertan entregatu beharko da eta hantxe entregatuko dute berria.

Horren harira, alkateak eskaera hau egin nahi izan die herritar guztiei: "Mesedez, eskatzen duguna da aldatzera eramaten diren edukiontzia garbi eramatea, izan ere, behin baino gehiagotan nahiko zikin ekarri izan dira".

## Arregi eta Telleria etxerako bidean jartzeko eskaera

### Goiena komunitatea

Oñatiko Sare / OÑATI

*Ibilian ibilian, Joseba eta Gotzon, etxerako bidean!* Hori da urriaren 2rako, 13:00etan, plazan, Sarek antolatutako ekimena. Gotzon Telleriaren eta Joseba Arregiren –presotuzko oñatiarrak Dueson eta Martutenen– etxeratze prozesua marraztuko duen gezia osatu gura dugu herritarrekin.

## Eguenean hasiko da zineklubaren denboraldi berria

Datorren egunean, urriaren 7an, ekingo dio ikasturte berriari zineklubak. *First Cow* filma izango da eskainiko duten lehenengoa, 20:00etan. Denboraldi berriaren ere ohiko egun eta orduan emango dituzte zineklubeko filmak, egunen eta 20:00etan. Eta aspalditik egiten duten moduan, jatorrizko bertsoian eskainiko dituzte.



NIRE USTEZ

XABIER IGARTUA

## Aberastasun globalaren banaketa

Credit Suisse banketxeak argitaratu duen txostenean, munduko aberastasuna nola banatuta dagoen ikusi daiteke. Biztanleriaren %1ek munduko aberastasun erdiaren jabetza dauka. Aldiz, piramidearen oinarrian, biztanleriaren %55en ondasunak ez dira %1,5eko jabetzara iristen. Jendartearen %12k aberastasunaren %85 dauka. Edonor izoztuta uzteko moduko datuak. Norbera piramidean zein mailatan egongo litzatekeen begiratu baino, banaketaren hausnarketa bat egitea hobe. Zerk ekarri gaitu egoera honetara? Indarrean dagoen sistema kapitalista ontzat ematen al dugu? Jendarte justu bat ez, baina justuago bat izatea posible dela sinesten badugu, gauzen logikari buelta bat eman behar diogu. Izan al daiteke zerga gutxiago ordaintzeko bizilekua aldatzen duen kirolari bat eredugarri? Eta lekua aldatu ez baina iruzur fiskala baliatuz ordaindu beharrekoa saihesteko ahalagintza guztiak egiten dituzte? Piramidearen puntan daudenak idolatratuko dituzte batzuek, baina gizarte moduan eredu emateko exijitu beharko genieke. Pastelaren ertzean ez dugu zertan konformatu, pastel zatiak modu proportzionatuan banatuta guztientzako adina iristen bada.

## SANMIGELAK 2021 EZ-JAIK



El Drogas, Azoka Kultura Gunean, eguazteneko zuzenekoan. TXOMIN MADINA



Zapatuko eraso matxista salatu zuten martitzenean. ENeko AZURMENDI

# Guztientzako ekitaldiak datoz

Eraso matxista bat gaitzetsi dute Txosna Batzordeak eta Udalak martitzenean egindako manifestazioan; asteburuan ere, erasoen aurkako protokoloak indarrean jarraituko du

## Amaia Txintxurreta OÑATI

Aurreko zapatuan jakinarazitako eraso matxista izan da San Migel egunaren bueltan antolatutako ekitaldiak ilundu dituen gertakaria. Oñatiko Txosna Batzordeak eta eragile feministek manifestazio deialdia egin zuten martitzenerako, eta jende dezente batu zen gertakaria eta "herriak, oro har, izandako jarrera" salatzerako.

Txosna Batzordetik adierazi dute ez dutela halako erasorik onartuko, "ez txosnagunean eta ez beste inon". Erasoen aurkako protokoloa daukate, eta "lehenengo momentutik" aktibatu dute. "Hala ere, hutsune batzuk ikusi ditugu eta herritarren eskura telefono zenbaki bat jartzea erabaki dugu, babes feminista emateko". Hau da zenbakia: 603 36 11 57. Izaro Elorza alkateak ere gaitzetsi du erasoak: "Manifestazio deialdiarekin bat egin dugu, erasoak salatzeko eta esateko gure herrian ez dugula onartzen halako erasorik, ez ez-jaietan eta ez beste inoiz".

Gainerakoan, Udalak orain artekoaren balorazio positiboa egin du. Antolatutako ekitaldietan jendea batu dela dio; akaso,

La Basuk ez du izan espero zen erantzuna, baina pozik daude orokorrean ekitaldiek izan duten harrerarekin. El Drogas artistaren bi kontzertuetarako sarrera guztiak agortu egin ziren, eta, herritarren esanetan, "ederra" izan zen Oñatin hasi berri duen kontzertuen bira hasiera. Aipatzekoa da, era berean, mus txapelketak jende asko erakarri zuela, hainbat bikote kanpotik ere etorri baitziren parte hartzerako. Bestelakoetan ez da nabarmen izan gertakariarik izan, ezta udaltzainen aldetik ere. Gainera, zapatutik astelehenera bitartean, arratsaldeko lan-txandak luzatu egingo dituzte eta goizeko hirurak arte izango dira lanean.

Udalak, berriz, azaldu du herritarrek horrela adierazita txosnak goizeko hiruretan puntuan itxi dituztela. Batzordekoek, baina, hausnartu dute momentu

**TXOSNAGUNEAN  
EDUKIERA ZAINTEKO  
NEURRIAK INDARTU  
EGINGO DITUZTE ASTE  
BUKAERAN**

batzuetan larri ibili direla edukiera neurtzeko orduan, eta neurri bereziak hartuko dituzte asteburu honetarako: jende gehiago jarriko dute bai barrako txandetan eta baita jendearen sartu-irtenak kontrolatzeko ere. Sarreran edukiera kontrolatzeko kontadorea izango dute. Betetzen denean ezingo da inor sartu eta kanpora irten behar badute, barruan tiket bat hartu eta ordu erdi izango dute bueltatzeko.

## Astebururako ekitaldiak

Ondorengo egunetarako ekitaldiak mantendu egingo dituzte. Gazta lehiaketaz gain, dastaketa ere egongo da bihar, zapatua, berrikuntza bezala. Bertan parte hartuko du Aldai baserriko Nestor Altzelai gaztagileak, eta hauxe azpimarratu du: "Lehiakortasun bako giroa sortzen da Oñatiko gazta lehiaketan, eta gozatzea izaten da helburua, irabaztea baino gehiago". Txosnetan, berriz, Guraso Asanbladak antolatutako umeendako askotariko ekintzak egongo dira domekan, eta pandemia aurreko ekitaldi bat berreskuratzeko dute astelehenean: Dibertsioak.



Gazteek Olaiturri askotariko ekintzak izan zituzten eguaztenean. GOIENA



Jaien pregoia txosnetan; lrazan antzerki taldekoek eman zuten. MAIALEN SANTOS



Haurrek puzgarrietan jolasteko aukera izan zuten eguaztenean. GOIENA



Atsolorraren ekitaldian, domekan. I.S.



Martitzenean, kintoek dantza batzuk inprobisatu zituzten, baserriar jantzita. A. E.

## "Bizimodu oso bat eman dit niri Oñatz taldeak"

JESUS IRIZAR 'TXUTXIN' OÑATZEN SORTZAILEA ETA BULTZATZAILEA

Jesus Irizar *Txutxin* Oñatz dantza taldearen sortzailea eta bultzatzailea da, eta orain, taldearen 50. urteurrena ospatzeko egin den azken ikuskizunean, omenaldia jaso du, urte hauetan guztietan Oñatzi eman dion guztia eskertu nahi izan baitiote.

**Lore-sorta eta makila eman zituzten. Nola jaso zenuen omenaldia?**

Sorpresaz. Ez nuen espero, eta sorpresa handia eta polita hartu nuen omenaldia jasotzean.

**Urteotan alboan izan dituzun hainbat protagonistaren hitzekin osatutako bideo bat ere eskaini zizuten. Bertan esan zuten askorendako aita bat bezala zarela, belaunaldien erreleboa bermatu duzula egindako lan eredugarriaren ostean... Hunkitu egin zinen?**

Dudarik ez; gauza onak esaten dizkigutenean, gustukoa da. Baina jakin behar da honen atzean jende askoren lana dagoela eta batzuk nahiz eta atzeko atetik irten izan diren, horien lana ere garrantzitsua eta eskertzekoa izan dela.

**"Oñatz ez da inorena, baina, aldi berean, guztiona da" esaldia ere entzun ahal izan zen ekitaldian.**

Hala da. Ni dantzan hasi nintzenean, aitak irakatsi zidan guk ikasitako dantzak kalean

erakusteko zirela, eta bizitza osoan hori da egin dudana. Oñatz guztiona da. Zorionez, gure familiaren altxorra izan da 100 urtean eta gure familiak ere transmisio hori egin eta mantendu duela esango nuke. Uste dut Corpus egunekoa bezalako ikuskizun gutxi daudela horrela mantendu izan direnak, eta gurea da bat. **Ikuskizuna gustura ikusi zenuen?**

Balioa emateko modukoa da 60 dantzarik egin duten lana egun horretarako. Ez nuen espero, baina oso-oso handia izan zen zapatukoa. Gainera, izan genezakeen laguntzarik onena jaso genuen, gure alboan izan zirelako emanaldian Oñatiko Udala, Ganbara Abesbatza, Txinparta Bertso Eskola, Lizargarate Trikitizale Taldea, Aita Madina Txistulari Taldea eta Arrasateko Dultzaineroak. Eurek lan horri erantzun bikaina eman zioten, eta eskertzekoa da horren atzean egon zirenen lana.

**Zer eman dizu zuri Oñatzek?** Bizimodu oso bat eman dit niri Oñatzek, satisfazio pila bat. Beti norbait izan behar dugu alboan, pertsona batek beste baten laguntasuna behar duelako, eta nire andreak emandako laguntza guztia azpimarratu nahiko nuke.

**Nola ikusten duzu taldearen etorkizuna?**

Ez dakit zer gertatuko den pandemiaren ostean euskal

dantzarien artean. Bi urte luzetan ezer egin gabe egon gara, eta zaila da zer etorriko den jakitea. Garai batean, ez nuen pentsatu ere egingo neskak dantzan irtengo zirenik, eta begira! Orain, oso pozik eta harro nago. Ikusi da



GOIENA

**"AITAK IRAKATSI ZIDAN GUK IKASITAKO DANTZAK KALEAN ERAKUSTEKO ZIRELA ETA HORI EGIN DUT"**

posible dela aldaketak egitea, seriotasunaren barruan, eta garatzen joateko bidean lanean jarraituko dugu.

**Jende asko mugitzen du Oñatzek. Zer pentsatzen duzu ordaindu eta ordainarazi gabe lan egiteari buruz?**

Auzolanean lan egitea oso aberasgarria da. Bakoitzak duena ematen du, bakarrik emateko lan egiten du, eta hori da transmisioa; herrian ondorengoei erakustea, guk aurretik dantza taldean ikasitakoa. Dantza taldeko parte izan eta kapaz izatea irakatsi dizuten hori gero beste batzuei irakastea. Eskerrik asko taldearen bueltan lanean jardun duten guztiei.



Gipuzkoako senior kategoriako bigarren mailan lehiatuko den taldea. ALOÑA MENDI

## Lehen Mailara igotzea du helburu areto futboleko taldeak

Asteburuan hasiko du denboraldia areto futboleko goreneko taldeak, Zaldibian; infantil maila sortu dute

**Oihana Elortza OÑATI**

Etxean hasi behar zuen denboraldia Aloña Mendiko areto futboleko taldeak, baina, asteburuan kantxa okupatuta egongo denez, beste taldearekin ados jarri eta Zaldibian jokatu dute. Gogotsu daude. "Bigarren Mailara igotzea lortu genuen lehen denboraldian. Gero, pandemia etorri zen eta partidu barik egon gara. Igoera hori errespetatu egin dute, eta Bigarren Mailan lehiatuko gara aurten, eta, noski, Lehen Mailara igotzea da helburua. Edo mailari eustea", dio presiden-

teak, Santi Bernalek. Aitor Sanchez, Mikel Saiz eta Iñaki Iglesias dira entrenatzaileak. Jokalariak lehengo berak dira.

**Infantil mailako taldea**

Bernalen esanetan, indarra hartzen ari da areto futbola Oñatin. "Guraso asko etorri dira guregana, interesatuta, eta 17 mutiko taldea ere sortu dugu. Infantil mailan jokatu dute horiek, Gipuzkoa mailan. Pozik gaude". Taldearen babesleei ere eskerrak eman dizkie Bernalek: Plazaola argazki denda, Errekalde denda, Coinbroker, Ingou eta Athlon.

## San Migel pilota txapelketako finala jokatu dute domekan

Iñigo Erle pilotari oñatiarra egongo da finalean Unai Alberdi azpeitiarrarekin batera, promes mailan lehian

**A.T. OÑATI**

Azken bi eguaztenetan jokatu dituzte finalerdiak Zubikoan, uste baino ikusle gehiagorekin. Eta domekan jokatu dituzte promes eta gazte mailako San Migel pilota txapelketako finalak, Zubikoako frontoian, 17:00etan. Edozein herritar joan ahal izango da, gainera, partiduak ikustera, txapelketa osoko jardunaldietan moduan.

Promes mailan, Iñigo Erle pilotari oñatiarrarekin batera hartuko du parte Unai Alberdik, eta aurkari izango dituzte Iban

Garcia eta Gaizka Agirre. Orain artean, Erlek, Gaizka Karregal izan du lagun partiduetan, baina aurretik ere bazekiten, baldin eta finalera sailkatzen baldin baziren, Karregalek ezin izango zuela etorri, beste partidu bat daukalako. Beraz, Alberdi izango da aurrelari, Erlerekin batera domekan.

Gazte mailan, bestetik, Mikel Aranbarrik eta Martxel Izuetak Beñat Zubizarreta eta Egoi Telleria izango dituzte kontrario. Azken partiduetako faboritoak sailkatu dira finalerako.



Danel Mendizabal –ezkerrean– eta David Jauregi –eskuman– astelehenean *Harmailatik* saioan. X.U.

# "Beteranoen taldea baino gehiago, lagun taldea gara"

**DANEL MENDIZABAL ETA DAVID JAUREGI HERENSUGEAK TALDEKO KIDEAK**

**ERRUGBIA** Arrasate Rugby Taldeko Herensugeak –beteranoek– 25 urte bete zituzten iaz, baina pandemia tarteko ezin izan zuten urteurrena ospatu. Prestaketa lanetan dabilta jada

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Urteurrenak behar den moduan ospatu behar dira, eta 2022a urte berezia izango da Arrasate Rugby Taldearendako. Batetik, klubak 50 urte egingo ditu, eta, bestetik, Herensugeak 25. urteurrena ere orduan ospatuko dute.

**Aspaldiko partez, zapatuan Herensugeak Mojategin batu zineten ostera ere: entrenamendu saioa egin eta ondoren etorri ziren ondorengoak... Zer izan da gogorragoa? Biharamuna ala giharretako mina?**

David Jauregi: [Barreak] Biak. Domekan biharamuna izan zen gogorragoa, eta astelehenean, berriz, lepoko mina geneukan. **Ospakizunez betetako urtea izango da datorrena.**

**"URUGUAIARA EGIN GENUEN BIDAIA IZAN DA ORAIN ARTEKO EDERRENA, EDERTO IBILI GINEN HAN"**

D.J.: Bai; oraindik ez dakigu hilabete batzuk barru ze egoeratan egongo garen, baina pentsatu nahi dugu ordurako erabateko normaltasuna izango dugula. Batetik, Herensugeon 25. urteurreneko ospakizunak izango dira, eta maiatzean egingo dugu hori. Bestalde, klubeko zuzendaritzan beste talde bat sortu dute klubaren 50. urteurrena ospatzeko, eta horiek ere lanean dihardute. **Iaz hainbat talde gonbidatzeko asmoa zeneukaten eta orain ere**



Zapatuan, Mojategin, beteranoen talde erretratua. HERENSUGEAK

## Aspaldiko partez, entrenatzera

Hilabete askotako etenaldiaren ondoren, Herensugeak –argazkian– zapatuan elkartu ziren ostera: "Entrenamendua baino gehiago, topaketa izan zen, denbora asko generaman elkarrekin egon barik, eta egun-pasa polita izan zen". Noski, luzatu egin zen eguna.

**hasi zarete lanean. Baina herritarrendako ere antolatu nahi dituzue gauzak.**

Danel Mendizabal: Hori da. Hasteko, urteurrenari aurre egiteko aurrekontu bat beharko dugu, eta diru apur bat batzeko pentsatu dugu, udazkenean, Atresmedia etxeko zenbait bakarrizketari ekartzea Amaia antzokira. Baina oraindik ezin dugu zehaztasun gehiagorik eman, edukiera kontuak eta halakoak aldatzen dabiltzanez goiz da-eta dena zehazteko. Emango dugu daten berri aurrerago, baina herritarrendako erakargarria den zerbait antolatu nahi dugu. **Eta, bestetik, klubaren 50. urteurrena dago.**

D.M.: Hor, zuzendaritza barruan beste talde bat ere hasita dago lanean. Kontua da iazko urtea txarra izan zela kirol talde guztiendako; bereziki, arlo ekonomikoan. Guk, esaterako, ezin izan genuen Garagardo Festa antolatu, eta hori bultzada izaten da klubarendako.

**Urteurrena alde batera utzita, kontatu, apur bat, zer den Herensugeak taldea.**

D.J.: Herensugeak sortu genuen Arrasateko senior mailan jokatzeke jada nagusiegiak ginela

**"UDAZKENEAN ATRESMEDIKO BAKARRIZKETARIAK EKARRI GURA DITUGU AMAIA ANTZOKIRA"**

konturatu ginenean. Errugbiak fisikoki indartsu egotea eskatzen du, eta adinarekin, normala den moduan, erretiroa hartzea tokatzen da. Baina errugbiak jokatzen jarraitu gura genuen, eta klub askok izaten dituzte beteranoen taldeak. Hor, modu lasaiagoan, errugbiak gozatzen jarraitu dugu, eta lagunak egin ditugu han eta hemen.

**Izan ere, urte hauetan bidaia mordo egin dituzue.**

D.M.: Bidaia esanguratsuena hamargarren urteurrenean egin genuen, taldeko kideak Montevideora (Uruguai) joan ginen hango taldeekin jokatzerara, eta sekulako esperientzia izan zen. Pentsa, euren artean zen Andeetan hegazkin istripua izan zutenetako bat [1974an Montevideoko Old Christians klubeko taldekideek hegazkin istripua izan zuten Andeetan; 16 lagunek bizitza salbatu zuten, eta ondoren, gertaera hartan oinarrituta *Viven!* izeneko liburua eta filma egin zuten]. Bestalde, pandemia aurretik askotan joan izan gara Bordelera (Frantzia), hango lagunak kontra jokatzerara. **Zein da Herensugeak 25 urtean taldeari eutsi izanaren gakoa?**

D.M.: Errugbi talde bat baino gehiago lagun talde bat gara, eta ez gizezkoena bakarrik, hor daukagu-eta Aitziber Zumalde ere. Baina garrantzitsua da poliki-poliki belaunaldi askotariko jendea taldera batzen joatea, bestela ez genuke-eta etorkizunik izango.

# Aitor Otamendi, Munduko Raid Txapelketara

**RAID** Zapatuan hasiko dute, Galizian, gehienez zazpi egun iraungo duen 'non-stop' lasterketa. Raidetan egiten den munduko hitzordu garrantzitsuena da, eta 24 lurraldetako 94 talde izango dira; oñatiarrak euskaldunekin batera osatuko du taldea

**Xabier Urzelai OÑATI**

Erresistentzia proba gehienak txiki uzteko moduko datuak ditu bihartik aurrera Galizian egingo duten Munduko Raid Txapelketak. Bihar, 07:00etan, Monforte de Lemos herrian mundu osotik joandako 400 kirolari batuko dira irteera puntuan, eta 24 herrialde ordezkatu dituzte, guztira. Eta, noski, euskaldunek ezin zuten kalerik egin. Hala, Aitor Otamendi oñatiarrarekin batera Beñat Oiartzabalek (Ibarra), Imanol Garaizabalek (Elgoibar) eta Naia Quincocesek (Mendexa) taldea osatuko dute: "AE-Betatik, Kanadatik, Zeelanda Berritik eta Europako bazter guztietatik etorriko da jendea, eta raidetan erreferente diren horiek izango dira irteera puntuan", adierazi dio aste barruan Ota-k GOIENARI, Galiziara bidean zirela: "Bi furgoneta bete ditugu goraino, pentsa zenbat material daramagun.

Izan ere, halako raidetan norberak eraman behar du material guztia eta logistikak, alde horretatik, sekulako garrantzia dauka. Material hori guztia, gero, kaxa ezberdinetan sartuko dugu, eta anoa-puntuetan jakin beharko dugu zein material utzi prest. Bizikletako zapatilekin ibilitakoak gara mendian oinez, pentsa..."

**Halako probetan esperientzia**

Ez da lehenengo aldia Ota-k halako proba batean parte hartzen duena. "Euskal Raid talde-  
ra batu den azken kidea naiz, urteetan lagun kataluniar batzuekin osatu dut taldea, baina, familia izan dudanez, azken bi urteotan baztertuta izan ditut halako probak. Lehenago bai, Paraguain, Irlandan, Frantzia... eta Espainiako beste zenbait raidetan hartu dut esku; baina lehenengoz hartuko dugu esku Munduko Txapelketan".



Aitor Otamendi, artxiboko irudi batean, raid batean. JOSE PEREZ

## "RAIDETAN LIMITEAN EGOTEN GARA, ETA TALDEKIDEON ARTEAN ESATEN DIRENAK HOR GERATZEN DIRA"

### Raida, datuetan

Munduko Raid Txapelketan taldeek 610 kilometroko ibilbidea bete beharko dute; euskaldunen aurreikuspena da 100-110 orduan egitea proba.

**Lasterketako tartek:**

- 122 km mendian oinez.
- 80 km mendiko bizikletan.
- 90 km kayakean.
- 210 km mendiko bizikletan.
- 65 km mendian oinez.
- 11 km kayakean.
- 36 km mendian oinez.
- Tirolina bat.
- Padel surfean km bat.

Ondoko taulako zenbakiei begiratu bat ematea baino ez dago, jabetzeko datozen egunotan laukote horrek, eta gainontzekoek, gorriak eta bi ikusiko dituztela: "Hori da erresistentzia proba batek duen gauza polita. Paziencia handia izan behar da, *erresilientzia* berba da erabiltzen dudana. Taldekideak animatu behar dira une oro; izan ere, lehenago edo geroago, denok izango ditugu krisialdiak, eta hor taldearen babesa behar da. Gero, mapak eskuan ditugula erabaki zuzenak hartu behar dira ibilbideak erabakitzeke orduan, burua hotz mantendu behar da, estrategiarekin asmatu behar da... Fisikoki sasoi puntu onean egotea ez da nahikoa. Hor badago esaera bat: *Lasterketan zehar esaten direnak hor geratzen dira*; izan ere, momentu kritikoetan, askotan, gure arteko tonua ez da egokiena izaten. Egia da norberaren burua ezagutzeko oso ondo datozela halako bizipenak, eta bizipen horiek gero egunerokoan ere baliagarriak izaten dira. Ea lasterketa 110 ordu ingurutan amaitzeko kapaz garen, guztira 6-8 ordu lo eginda".

## Mondrak, UDAk eta Bergarak etxean dute hitzordua

**FUTBOLA** Emakumezkoetan, Leintz Arizmendik Touringen zelaian jokatu du eta bergararrak Lesakara joango dira

**X.U. ARRASATE**

Aretxabaleta da hiru jardunaldi hauetan aurpegi onena erakutsi duen Debagoieneko taldea. Calzonen mutilek hiru partidutatik bi irabazi dituzte, eta, hain zuzen, joan den astekoa izan zen lehenengo porrota, ordiziarren kontrakoa. Hala, domekan Añorgaren kontra jokatu dute (16:30). Mondrak ere domekan jokatu du (16:30); zuri-moreek ligako hiru partiduak berdindu eta gero garaipena nahi dute, behingogatik. Hain zuzen, zuri-moreek Oiartzun hartuko dute Mojategin. Zapatuan, berriz, Bergarak jokatu du (16:30). Mahoneroek etxetik kanpora bi partidu galdu dituzte jarraian, biak derbiak. Hortaz, Agorrosinen egoera horri buelta eman nahi diote. Eta, azkenik, joan den astean Azkoain gainen konfiantza emango dien partidua irabazita, Aloña Men-



Mondra eta Urola, lehian. GOIENA

dikoe Andoainen jokatu dute zapatuan (16:00).

**Emakumezkoek, kanpoan**

Leintz Arizmendik Touringen zelaian jokatu du bihar, zapatua (12:00); eta Bergarak, berriz, Lesakan (16:00).

## ESKALADA Harkaitz eskalada ikastaroa emango du Besaidek

Besaidek hastapen ikastaroa antolatu du urriaren 16rako eta 17rako. Araotzeko eskalada-gunean izango dira saioak eta izen-ematea zabalik dago urriaren 13ra arte: [besaide@besaide.eus](mailto:besaide@besaide.eus). Ezinbestekoa izango da mendian federatuta egotea. Bazkideek 60 euro ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek, berriz, 85 euro.

## ESKUBALOIA Mugarri eta Fagor Industrialek liga hasiko dute

Euskadiko Txapelketan lehiatuko diren Arrasateko Mugarri Ingou eta Oñatiko Fagor Industrial eskubaloi taldeek liga hasiko dute asteburuan. Eta bi ordezkariak kanpoan jokatu dute lehenengo jardunaldian. Emakumezkoetan ere, Construcciones Aloña Mendik kanpoan jokatu du lehenengoa; horiek, Euskadiko Txapelketan.

## SASKIBALOIA Puntu kopuru bera duen Leioa hartu du MUK

EBA kategorian, Mondragon Unibertsitateak Leioa hartuko du domeka arratsaldean Iturripen (18:30). Bi jardunalditan partidu bana irabazi dute bi talde horiek; moreek sailkapenean gora begira egon gura dute lehenbailehen. Emakumezkoetan, berriz, sortu berria den MUK Barakaldon egingo du debuta (18:00).

## MENDI LASTERKETA Hiru Haundiak proba aurkeztu dute

2018a ezker egin ez duten Hiru Haundiak proba egingo dute datorren urriaren 9an. Aurtengo edizioan, lasterkariak Murgian hasiko dute proba, eta Arian egongo da helmuga, 101 kilometro geroago. Hain zuzen, lasterketa hori 2016an irabazi zuen Iokin Garai oñatiarrak erakutsi berri du mendi lasterketak alde batera uzteko asmoa.

# Gaztetxeetako musika zikloak, "arnasgune"

Kooltur Ostegunak ekimena izango da Arrasateko gaztetxean astero; egubakoitzetan, hilean behin, Bergarakoan, Egubakoitzak Berreskuratzen, eta domeketan, Antixena gaztetxean Matinee kontzertuak egingo dituzte, hilean behingo maiztasunarekin

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE Udazkenak "piztu" egin du eskualdeko kultura eskaintza. Udaletako kultura sailek areto barruko eskaintza abiatu dute, eta gaztetxeetan ere lanean ari dira pandemiaren aurretik ziztuzten ekimenak berpizten.

**Eguenetan, Kooltur Ostegunak** Hamargarren denboraldia "behar zen moduan" borobiltzeko aukerarik ez zuen izan eguenerako Arrasateko gaztetxean kontzertuak antolatzen dituen Kooltur Ekintzak taldeak. "Gogotsu" ekin zioten hamaikagarrenari, segituan eskaintza eten egin behar izan zuten arren; domeka eguerdian kontzertuak eskaintzen hasi ziren maiatzean, eta Amaia antzokira Willis Drummond gonbidatuta bukatu zuten.

Datorren eguenean, urriaren 7an, ekingo diote hamabigarren denboraldiari, "ohiko" hitzorduaren aldeko apustua eginda: eguenean, 22:00etan. "Argi genuen gure asmoa bueltatzea zela, lagundu dezakeguna, txikia den arren, kultura gorpila ezin dela geratu uste dugulako. Taldeei eta arloko teknikariei lan egiten jarraitzeko aukera eman nahi diegu, modu sinbolikoan bada ere; izan ere, edukiera mugatuarekin musikariek ez dute



La Excavadora taldea. MAUKA MUSIKAGINTZA

irabazi handirik eskuratzen, baina ezer baino hobea delakoan gaude. Publikoa zutik egoteko aukera izanez gero, jende gehiago sartuko litzateke, baina, momentuz, ikusleok eserita jarraitu beharko dugu", azaldu du Kooltur Ekintzak ekimeneko Iker Barandiaranek, eta zera gaineratu: "Sarrerak aurrez erosteko aukera eman genuen aurreko denboraldian, baina jende batek sarrera hartzen zuen eta gero ez zen kontzertura joaten, eta, sarrerak agortuta zeudela iragartzen bagenuen ere,

kontzertuen eguenean eserlekuak libre izaten ziren gero. Irtenbide zaila dauka horrek, ilara egitea ez delako inoren gustuko, baina, oraingoan, eguenean bertan salduko ditugu sarrerak, leihatila ordu erdi lehenago zabaldua".

**La Excavadora, hasteko** Arrasateko gaztetxeke eguene-tako musika hitzorduko zaleek ekimenarekin jarraitzeagatik "esker mezuak bidali dizkietela" azaldu du Barandiaranek, musikariek ere eskaintza "oso ondo

hartu dutela" gaineratuta, Kooltur Ostegunak "ekimen sendoa" delako eurentzako: "Denboraldia gogor ekitea izaten da gure asmoa eta La Excavadora taldea gonbidatu dugu egitaraua zabaltzeko. Raul Lasa *Txiki* (Gatillazo, La Polla) eta Angel Otxoa de Eribe (Gatillazo, Rockaina, Salvate Si Puedes) gitarrak-joleak; Mikel Azpiroz *Buton* (Gatillazo, Al Karajo) baxu-joleak, Mikel Berrozpe *Pollo* bateria-joleak (Childrain, Vicepresidentes) eta Iñaki Urbizu *Pela* (Obligaciones, Sumision City Blues, Marky Ramone...) abeslariak osatzen dute. Punk-rock koktelera indartsua da, bailaran jotakoak dira, baina gurera etortzeko gogoia adierazi ziguten otsailen diskoa argitaratu zutenetik".

Euskal Herriko musikariek osatu dute urriko programa, nahiz eta ez duten bazterten nazioartekoak ere Arrasatera ekartzea. "Taldea gutxi dira, oraingoz, nazioarteko birak egiten dituztenak; horietako bat da, Danimarkako La Casa Fantom bikote bitxia. Euren eraikitako musika tresnekin sekulako burrunba ateratzen dute, pasarte pisutsuak eta soinu baxuak –grabeak– ikur dituztela. Azaroan izango dira Danimarkakoak gurean". Micek –Miren Narbaitza– hartuko du lekukoa agertokian urriaren 14an. "Nortasun handiko ahotsa du eta rocka, oso zentzu zabalean, egiten du. *Zilar printzak* bigarren lana argitaratu zuen pandemiaren aurretik eta lan hori izango du emanaldian oinarri".

90eko hamarkadako soinueta arakatzeko duen Bilboko Sonic Trash izango da hirugarren eguenean. "Taldea indartsua da, post-rock eta noise doinuen arteko nahasketa egiten duena.

Joseba Irazokik orain dela aste batzuk argitaratutako lanarekin gozatuko dugu azkenekoan".

**Bergaran, egubakoitzetan** 2019ko maiatzean abiatu zuten Bergarako kartzela zaharrean Egubakoitzak Berreskuratzen egitasmoa, gaztetxe inguruan ibiltzen diren musikazale batzuek bultzatuta. Irailaren 17an ekin zioten ikasturte berriari Andoni Ollokiegi eta Wood String taldea gonbidatuta. "50 lagun bakarrik sar daitezke, oraingo, kontzertuko. San Martin ez-jaiak ziren eta txosnagunean ere kontzertuak zeudela kontuan hartu barik programatu genuen; hala ere, eserleku guztiak bete ziren", azaldu du antolatzaile taldeko Unai Elkorok, hurrengo urriaren 29an izango dela iragarrita: "Rock gogor eta stoner doinuak entzungo ditugu. Lehenengo emanaldian izan genuen Zestoako Rodeo taldea gonbidatu dugu berriz ere, eta eurekin batera izango da Oñatiko Bizarro taldea. Hilean kontzertu bat egitea da gure asmoa".

**Antixenean, domeketan** 2018an Mursegok estreinatutako Oñatiko gaztetxeke domeka eguerdian ekimena, eta, publikoaren eta musikariaren aldetik jaso duten "harrera ona" aintzat hartuta, hilean behin kontzertu bat antolatzeko asmoa dute. Bergarako Hegazkin bikotearekin azaroaren 28an, 12:30ean, abiatuko dute denboraldia.

**LA EXCAVADORA, HEGAZKIN ETA BIZARRO, BESTEAK BESTE, ESKUALDEKO GAZTETXEETAN**

GOIENA TELEBISTA  
SASOI BERRIA



BESTELAKO  
OLATUA!

**FRANKISMOAREN  
BIKTIMEI OMENALDI  
EKITALDIA**

URRIAREN 1EAN, EGUBAKOITZEAN,  
21.00ETAN ETA 23.00ETAN

goiena  
Zu hemen zaude.





# Kulturaren alde egotetik egitera "pasatu beharra"

Debagoieneko Antzerki Plataformak (DAP) formakuntza saioak abiatuko ditu urrian Arrasaten, Bergaran eta Oñatin, eta formatu eta maiztasun askotariko eskaintza egingo du eskualdeko beste herrietan, "antzerkia tresna eraldatzailea" izateko asmoz

## A. Aranburuzabala ARRASATE

Entretentzeko tresna soila baino gehiago, gauza berriak ikasteko eta gai edo gertakari askoren gainean hausnartzeko tresna baliagarritzat dute antzerkia DAPekoek, eta, horregatik, eskualdeko herri guztietan antzerkiarekin gozatzeko eta diziplina horretan trebatzeko aukerak bermatu gura dituzte.

"Gure asmoa herri guztietan gutxienez ikastaro bat abiatzea zen, baina, oraingoz, Arrasaten, Bergaran eta Oñatin izango dira formakuntza saioak. Emaitzarekin gustura gaude, hurbilduko ez zitzaigun jende asko gureganatu dugulako, eta hori zerbaiten isla da, baina bidea egiteko dagoela ikusten dugu, bereziki, herri txikiagoetan. Izen emateak izan dira, baina taldeak osatzeko nahikoak ez; hortaz, talderik atera ez den herrietan ikastaro trinkoak eta puntualak antolatuko ditugu urtean zehar, jendeak antzerkiarekiko duen beldurrari aurre egiteko. Gai zehatz batzuk jorrazteko asmoz, arloko jende interesarekin harremanetan ari gara, eta uste dut jendeari gustatuko zaiola", dio DAPeko kide Josu Zubiak.

## Asterokoak, hiru herritan

Arrasaten Doke antzerki taldea, Bergaran Jardun Euskara Elkartearen babesa duena eta Oñatin Irazan antzerkigunea daude, eta aurreko urteetako eskaintza handitzea lortu dute hirurek. "Dokek martitzenetan, eguaztenetan eta eguenetan ikastaro bana eskainiko du; helduentzako eguaztenetan izango dira, eta haurrentzako eta gazteentzako dira besteak. Haurrentzako eta helduentzako talde bana dago Oñatin, eta asteburuko ikastarorako jendea animatu da, baina talde bat osatzeko nahikorik ez, oraingoz. Bergaran ere oso harrera ona izan du; haurrentzako eta gazteentzako



Debagoieneko Antzerki Plataformako kide batzuk. DAP

## IKUSKIZUNAK DUEN BESTEKO GARRANTZIA EMAN GURA DIO SORMENARI ETA IKERKETARI DAP-EK

izango dira egubakoitzetan eta helduentzako martitzenetan. Aretxabaletan, berriz, jende askok eman du izena, baina, ordutegiak zehazteko orduan, atzera egin dute hainbatek; hala ere, interes handia dagoela sumatzen dugu, eta baliteke Aretxabaletan antolatzea ikastaro trinko horietako bat".

Izena emateko epea amaitzear dago, baina oraindik badago aukera, [dantzerkiplat@gmail.com](mailto:dantzerkiplat@gmail.com) helbidera idatzita.

## Inkestean emaitzekin "pozik"

Antzerkirako tresnak eskaintzeaz gainera, eta bestelako arloetan eragiteko asmoz, azken hilabeteetan DAPek inkesta batzuk egin ditu eta askotariko profiletako pertsonengana heldu da. "Oso eskertuta gaude zabalkunde eta erantzun handia izan duelako, eta gure usteak errea-

litarekin bat datozela erakutsi digute. Norbanakoek, orokorrean, eta baita erakundeetan ere, ikuskizunarekin oso lotuta ikusten dute antzerkia, baina, gure ustez, kultur proiektu bategi eragiteko kapacitatea edukitzeko, ezin da erakusleho horretara mugatu. Kultura proiektu baten adar guztiak orekatuta egotea ezinbestekoa da. Ikuskizunari beste garrantzia eman behar zaio, esaterako, sormenari, ikerketari, eta baita kultura-bitartekariere; hortaz, beharrezkoa ikusten dugu aukera horien guztien berri ematea".

Antzokietara joaten den publiko ere landu beharreko arlo moduan ikusten du DAPek. "Salbuespenak dauden arren, orokorrean, 40 urtetik gorako emakumeak dira, gehienbat, eta arlo horretan ere lan egin beharra dagoela erakutsi digute inkestek. Bestetik, gure herriko eskaintzara mugatzen garela erakutsi digute, eta ez dugula, orokorrean, alboko herriko antzokira joateko ohitura handirik. Era berean, sarreren prezioa aztertzeke gaia da, ez gaude antzerkiagatik ordaintzera ohituta".

## Goienakideen txokoa

### Iraileko irabazleak!

**SPC TABLETA**  
Susana Anduaga Dorronsoro (Oñati)

**HARREMAN DENDAKO OTARREA**  
Joxe Villar Carballo (Arrasate)

**ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK**  
Jokin Blain Ugarte (Oñati)  
Igor Larrañaga Kortazar (Bergara)  
Josefina Estensoro Lasa (Bergara)

**GOIKO BENTA JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA**  
Imanol Lukas Etxarri (Oñati)

**ERREKI JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA**  
Lorea Larrañaga Arzuaga (Elgeta)

**ERUAN JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA**  
Maria Clara Jauregi Urriategi (Arrasate)

**'PETTI: MANIPULAZIO ESTRATEGIAK' MUSIKALDIRAKO SARRERAK**  
Ainhoa Bengoa Iturbe (Bergara)

**'MAESTRISIMO' IKUSKIZUNERAKO SARRERAK**  
Dorleta Elkoro Barrutia Pagoaga (Leintz Gatzaga)

### SARIAK JASOTZEKO:

Arikutzeko sarrerek, Goiena Klubeko txarteletatik, biko sarrereko bago dituzte Arikutzeko txarteletatik. Gainera hiru hilabeteko epamugaz izango dute ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK. Arrikrutz Kobetako SARRERAK: 943 25 05 05. Oidutegia: asteartetik-gandera 10:00 - 17:00 (puntuak dituzte hiruzehar egiteko) Herriaren dandako otarrea: **Otarrea** jostalako jo zuzenean, bakarka txartelarekin. Herriaren dandako Arrasateko Etxeki hipermerkatuan duen dandara. **SPC TABLETA JASOTZEKO**, txartea GOIENAKideen egutegian. Gure jostalako. **BAZKIDEAREN TNARTELA** erakutsi edote **BAZKIDE ZENBAKIA** eduzten omen behar da. GOIENA Oribes Lantegiak 31, Arrasate, 943 25 05 05. Oidutegia: asteartetik-eguzkea: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.

## Irabazi bi lagunendako sarrerak

### Arrasateko udalari esker

'Otsa' dantzaldirako sarrerak ditugu.

Arrasate | Amaia Antzokia | Urriaren 10ean | 19:30ean

### PARTE HARTZEKO:

E-postaz: [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus) WhatsApp: GOIENAKIDE "Otsa" (barkidearen zenbakia) 688 69 00 07 zenbakira

'goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzearen artean egingo da zozketa. Irabazlearen LF317995 legearen arabera jantzeri-eragilearen pertsonak Goiena Kulturako Zerbitzuen Itxuragaitza Saria izango da. Zozketaren helburua da irabazlearen laguntza gaitzeko. Zozketaren erantzuleak dira zozketaren erantzuleak. Irabazlearen izena zozketaren webgunean zuzenean argazten da. Irabazlearen izena zozketaren webgunean zuzenean argazten da. Irabazlearen izena zozketaren webgunean zuzenean argazten da.

## Irabazi bi lagunendako otordua

### ITURRIETA SAGARDOTEGIARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otordua atala eta hartu parte!

Parte hartzeko azken eguna: urriak 5

943 25 05 05 | [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus) | 'Goiena app'-a / zozketa atalean.

GOIENAKIDE Jantzeri [barkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 15€  
Datu: 943 25 05 05 | [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus)



DESKARGA TU GOIENA APP BERRIA!

goiena kide

Okm: batzen gaituen distantzia.

## IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

## 103. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Etxebizitza jantzia errentan eskaintzen da. Hiru logela, egongela, sukalde jangela eta komun bat. Iggailurik gabeko 4. solairua. Gas naturaleko berogailuarekin. Oso eguzkitsua. Beheko solairuan trastelekua erabiltzeko aukerarekin. Kontakua: 688 61 76 81 edo 656 72 60 52

## 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Errentan hartzeko etxebizitza bila dabilen bikote arduratsu baten gara. Ahal bada, erdi-gunean. 680 87 38 66

**Arrasate.** Etxebizitza hartuko genduen errentan. 641 51 13 06

## 4. LANA

## 401. ESKAINTZAK

## BERGARA

Zerbitzaria behar da igerilekuko tabernan. 943 77 70 95

**Bergara.** Etxeko lanak egiteko eta gure umea zaintzeko pertsona baten bila gabilta. Telefona: 658 70 73 34

**Bergara.** Pertsona nagusi bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko pertsona baten bila gabilta. Derrigorrezko legezko agiriak edukitzea. Astelehen zehar 9:00etatik 13:30era eta 19:00etatik 20:00etara. Asteburuetan 9:00etatik 10:00etara. 630 48 62 20

## 402. ESKAERAK

**Antzuola, Bergara edo Arrasate.** Etxeak garbitzen edo bestelako garbiketaren lanetan jardungo nuke. 632 48 72 30

**Arrasate.** Astean zehar arratsaldetan nagusiak edo menpekotasuna duten pertsonak zaintzeko gertu nago. Soziosanitario titulazioarekin. Telefona: 688 66 20 71

**Arrasate.** Nagusiak zaintzen esperientzia daukan emakumea egunean zehar lan egiteko gertu. Legezko agiri guztiak eguneratuta daukat. Telefona: 632 48 38 91

**Arrasate.** Neska arduratsua gertu orduka eta gauetan lan egiteko. So-

ziosanitario titulazioa eta legezko agiriak daukat. 680 87 38 66

**Arrasate.** Pertsonak zaintzen, etxeko lanetan edota garbiketaren lan egingo nuke. 641 51 13 06

**Bergara edo inguruan.** Emakumea nagusiak zaintzeko gertu. Horretarako ziurtagiriarekin. Telefona: 677 00 90 26

**Bergara edo Oñati.** Asteburuetan nagusiak zaintzeko gertu nago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 602 01 32 58

**Bergara.** 20 urteko neska bergararra, arratsaldetako umeak zaintzeko prest. Begirale titulua daukat. 676 83 55 68

**Bergara.** Beharrezko agiriak eta esperientzia duen neska arduraduna lan bila, etxean bizi izaten edo orduka, adineko pertsonak eta haurrak zaintzeko edo garbiketaren lanak egiteko. 631 79 81 56

**Bergara.** Emakumea hainbat lan mota egiteko gertu: etxeko garbiketaren lanak, nagusien eta umeen zaintza eta abar. 688 78 88 40

**Bergara.** Neska gertu pertsona nagusiak zaintzeko edota etxeko garbiketaren lanak egiteko. Orduka, asteburuetan, egunez, gauetz... Legezko agiriak eta titulua ditut. Telefona: 666 07 42 98

**Bergara. Goizetan haurrak zaindu.** Goizetan haurrak ikastolara/eskolara eramateko prest nago. Bergaran bizi naiz eta aurten amaitu ditut nire Lehen Hezkuntzako ikasketak. Autoa ere badut. Ordegti malguta eta egun soltetan ere lan egiteko prest. 688 84 99 79 edo 610 49 43 48

**Debagoiena.** Asteburuetan edo gauetan zaintza lanak egiteko gertu nago. Soziosanitario titulua duen neska gertu orduka. 659 90 85 13

**Debagoiena.** Emakume arduratsua naiz eta pres-tutasun osoa daukat zaintza lanetan eta garbiketaren lanetan jarduteko. 631 93 11 90

**Debagoiena.** Emakumea garbiketaren lanak eta nagusiak zaintzeko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 666 07 42 98

**Debagoiena.** Esperientzia duen neska gertu orduka nagusiak zaintzeko eta garbiketaren lanak egiteko. Telefona: 697 86 49 00

## OÑATI

Akademia batean eskolak emateko pertsona bat behar da. DBH eta Batxilergoko ikasleei. Interesatuok idatzi: irakasle42@gmail.com

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Astean zehar edo asteburuetan ere bai. Legezko agiriak daukat. 632 37 71 54

**Debagoiena.** Garbiketaren eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Baita etxean bertan bizi izaten ere. Telefona: 642 10 87 45

**Debagoiena.** Gizonezko marokarra baserriko lanetan edo erakuntzan lan egiteko prest. Deitu 690 75 61 18 zenbakira.

**Debagoiena.** Nagusiak eta umeak zaintzen, garbiketaren, etxeko lanak egiten, lisatzen edota janaria prestatzen lan egingo nuke. 641 44 16 30

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzeko gertu nago orduka eta baita gauetan ere. 603 25 79 96

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen edo etxeko garbiketaren lan egingo nuke orduka, egunean zehar zein etxean bertan bizi izaten. 603 33 18 29

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen zein garbiketaren lan egingo nuke. Orduka edo egun osoz. Soziosanitario titulazioa daukat. 691 28 53 25

**Debagoiena.** Zaintza edota garbiketaren lanetan jarduteko prest dagoen gaztea naiz. Erabateko pres-tutasuna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 37 17 30

**Debagoiena.** Zaintza eta garbiketaren lanak egiteko nitzuke, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 612 28 42 74

**Etxeko lanak egiteko gertu.** Etxeko lanak edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu dagoen emakumea naiz. Orduka eta arratsaldetako egingo nuke lan, Arrasaten. Lanerako baimena daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 653 56 61 34

**Haurrak zaindu.** Goiz edo arratsaldetan haurrak zaintzeko prest nago. Bergaran bizi naiz, 21 urte ditut eta aurten amaitu

tsatzen nagoen neska bergararra naiz. Astean zehar, goizetan, lan egiteko prest nago. Haurrekin esperientzia dut eta oso arduratsua naiz. Gidabaimena ere badut eta horren ondorioz, nire herria izan ez arren, bertara joateko aukera izango nuke. 619 50 82 13

**Zaintza lanak.** Nagusiak eta umeak zainduko nitzuke arratsaldetan edota asteburuetan. Autoa daukat eta baita legezko agiriak ere. 631 98 15 50

## 5. IRAKASKUNTZA

## 501. JASO

**Eskola partikularrak Arrasaten.** Pertsona bat behar dugu 6. mailako ikasle bati eskola partikularrak emateko. Telefona: 695 76 57 98

## 6. MOTORRA

## 602. EROSI

**Land Rover Defenderra** behar dut baserriko. Berdin dio zein egoeratan dagoen: IAT gabe, matxu-

ratua, edota kolpearekin. 623 17 95 37

## 7. ANIMALIAK

## 704. BESTELAKOAK

**Katakumea hartu.** Katakumea emea hartuko nuke. Arrasaten bizi naiz. Emateko moduan badaukazu, bidalidazu Whatsap mezu 651 89 59 16 telefono zenbakira.

**Txakur txiki bat desagertuta Oñatin.** Lezesarri auzoan txakur txiki bat desagertu da. Zuria eta marroja da eta 'Lagun' izena dauka. Ikusi baduzu deitu 943 78 24 39 telefono zenbakira.

## 8. DENETARIK

## 801. SALDU

**Korrika egiteko zinta.** Korrika egiteko zinta saltzen da. Urtebete dauka, tolesgarria da eta zararrik ez ateratzeko alfonbratxo da. Domyos T540C modeloa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 635 70 20 74

## ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

## MARITXU KAJOI EGUNAK EMANDAKOIA

'Hemen Debagoiena' Egubakoitza, 18:00, 20:00 eta 22:00



GOIENA

## FRANKISMOAREN BIKTIMEI OMENALDI EKITALDIA

'Berezia' Egubakoitza, 21:30 eta 23:00

## EGUBAKOITZA, 1

08:00 Hemen da Miru 48  
08:30 Elkarrizketa: Juanxo Zeberio  
09:00 D2030: Industria eta CO2  
09:30 Zirikatzan 19  
10:00 Hemen Debagoiena  
11:00 Erreportajea: Donostiako Zinemaldia 2021  
11:30 Harmailatik  
12:00 Hemen Debagoiena  
13:00 Hemen da Miru 47  
13:30 Elkarrizketa: Juanxo Zeberio  
14:00 Hemen Debagoiena  
15:00 Albisteak  
15:30 Aiara Igoera  
16:00 Albisteak  
16:30 Zirikatzan 18  
17:00 Albisteak  
17:30 Elkarrizketa: Juanxo Zeberio  
18:00 Hemen Debagoiena  
19:00 Hala Bazan: Herriak eta ondarea  
19:30 D2030: Industria eta CO2  
20:00 Hemen Debagoiena  
21:00 Omenaldi ekitaldia

## ZAPATUA, 2

08:00 Elkarrizketa: Juanxo Zeberio  
08:30 Hemen da Miru 48  
09:00 Zirikatzan 19  
09:30 Hemen Debagoiena  
10:30 Zirikatzan 18  
11:00 Asteko errepasoa  
12:00 Hala Bazan: Maritxu  
12:30 D2030: Industria eta CO2  
13:00 Hemen Debagoiena: Aretxabaleta  
14:00 Omenaldi ekitaldia  
14:30 Erreportajea: Donostiako Zinemaldia 2021  
15:00 Aiara Igoera  
15:30 Asteko errepasoa  
16:30 Hemen Debagoiena  
17:30 Zirikatzan 18  
18:00 D2030: Industria eta CO2  
18:30 Hemen Debagoiena: Oñati  
19:30 Tapa Pala  
20:45 Omenaldi ekitaldia  
21:15 Erreportajea: Donostiako Zinemaldia 2021  
21:30 Asteko errepasoa

## DOMEKA, 3

08:00 Hemen da Miru 50  
08:30 Hemen da Miru 49  
09:00 Hemen da Miru 47  
09:30 Zirikatzan 18  
10:00 Elkarrizketa: Juanxo Zeberio  
10:30 D2030: Industria eta CO2  
11:00 Hala Bazan: Maritxu  
11:30 Hemen Debagoiena: Oñati  
12:30 Erreportajea: Donostiako Zinemaldia 2021  
13:00 Tapa Pala  
14:15 Hala Bazan: Maritxu  
14:45 Hemen Debagoiena  
16:00 Erreportajea: Donostiako Zinemaldia 2021  
16:30 Hemen Debagoiena: Oñati  
17:30 Omenaldi ekitaldia  
18:00 Asteko errepasoa  
19:00 Elkarrizketa: Juanxo Zeberio  
19:30 Zirikatzan 19  
20:00 Hemen Debagoiena: Aretxabaleta  
21:00 Zirikatzan 18

## ASTELEHENA, 4

**ASTEBURUKO KIROL EMAITZAK**  
**'Harmailatik'**  
21:20/23:30

## MARTITZENA, 5

**'IZENEN IZANA' SAIO BERRIA**  
**'Hemen Debagoiena'**  
18:00/20:00/22:00



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: [goiena.eus/telebista](http://goiena.eus/telebista)  
Edo eskaneatu aldarmeneko qr kodea.

## MARTITZENA, 5

**'AKORDEAK' SAIOAN, AITOR REGUEIRO**  
**'Hemen Debagoiena'**  
18:00/20:00/22:00

## EGUAZTENA, 6

**ZIORTZA KARRANTZARI ELKARRIZKETA**  
**'Hemen Debagoiena'**  
18:00/20:00/22:00

## IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.


**URTEURRENA**

## Sabino Ayastuy Ayastuy

2020ko urriaren 1ean hil zen, 93 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, urriaren 2an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2021eko urriaren 1ean.



**OROIGARRIA**




## Leire Larrauri Elortegi

Bat egiten dugu senideen saminarekin.

Landerren lagunen partetik. Aretxabaletan, 2021eko urriaren 1ean.



**OROIGARRIA**




## Isabel Alzelai Solana

2019ko irailaren 28an hil zen, 91 urte zituela.

*Bi urte laga gintuzula baina zure irriparraren goxua ez dogu ahaztuko sekula.*

Konsuelo. Bergaran, 2021eko urriaren 1ean.



**URTEURRENA**


## Igor Fdz de Arroiabe Aranburuzabala

2020ko urriaren 2an hil zen, 51 urte zituela.


Urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 3an, 12:30ean, Leintz Gatzagako Dorletako Andre Mariaren santutegian.

Elizkizunera joango zaretenoi eskerrik asko, alde zurretik, familiakoen izenean.

Leintz Gatzagan, 2021eko urriaren 1ean.



**OROIGARRIA**




## Ramon Aranzabal Mendizabal


Irailaren 26an hil zen, 71 urte zituela.

*Bai prisaka alde egin dozula aurora borealen koloreak gertutik gozatzera! Agur.*

Fikti. Bergaran, 2021eko urriaren 1ean.



**OROIGARRIA**




## Ramon Aranzabal Mendizabal

Irailaren 26an hil zen, 71 urte zituela.

*Irripar batekin gogoratuko ditugu elkarrekin bizi izandako une ederrak.*

Espoloiko lagunak. Bergaran, 2021eko urriaren 1ean.



**URTEURRENA**

## Amaia Arregi Liziaga

Javier Aranzabalen alarguna


2020ko irailaren 30ean hil zen, 90 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 3an, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Arrasaten, 2021eko urriaren 1ean.



**OROIGARRIA**




## Ramon Aranzabal Mendizabal

Irailaren 26an hil zen, 71 urte zituela.

*Har ezazu zure soziedadeko bazkideen azken agurra.*

Zuloa elkartea. Bergaran, 2021eko urriaren 1ean.



**ESKER ONA**


## Ramon Aranzabal Mendizabal

Irailaren 26an hil zen, 71 urte zituela.

Emaztea: Lierni Narbaiza. Alaba: Usue. Anai-arrebak: Begoña (†) eta Jabier Larrañaga, Juan Bautista eta Lourdes Idoiaga, Joxe eta Bego Larrañaga, Fatima eta Mikel Irizar. Amaia Narbaiza, Josune Narbaiza eta Joseba Goxenzia, Julen Narbaiza eta Elisa Amasorrain. Ilobak: Larraitz, Jon, Naia, Egoitz, Miren, Aitor eta Xabi. Osaba-izekoak, lehengusu-lehengusinak eta gainerako senideak.

Familiaren partetik, eskerrik beroenak erakutsi diguzuen maitasunagatik.

Bergaran, 2021eko urriaren 1ean.



## GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE EGUNEZ**

Egubakoitza, 1 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

Zapatua, 2 ESPAÑOL: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65

Domeka, 3 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09

Astelehena, 4 ETXEBERRIA: Zaruvalde kalea / 943 77 16 30

Martitzena, 5 ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias 1 / 943 79 15 15

Eguaztena, 6 M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99

Eguena, 7 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26

**BERGARA EGUNEZ**

Egubakoitza, 1 ESTELLA: Matxibategi 5 / 943 76 19 63

Zapatua, 2 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

Domeka, 3 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

Astelehena, 4 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74

Martitzena, 5 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Eguaztena, 6 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05

Eguena, 7 ESTELLA: Matxibategi 5 / 943 76 19 63

**ORATI EGUNEZ BAKARRIK**

Egubakoitza, 1 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

Zapatua, 2 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

Domeka, 3 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

Astelehena, 4 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

Martitzena, 5 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Eguaztena, 6 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

Eguena, 7 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

**EGUNERO**

(22:00etatik 09:00etara)

Urtea bukatu arte:

ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias kalea 1 / 943 79 15 15

**EGUNERO**

(22:00etatik 09:00etara)

Urtea bukatu arte:

ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko: COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**  
edo [eskelak@goiena.eus](mailto:eskelak@goiena.eus)

- ▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 186 € / Goiena Klubeko bazkideendako 166 €
- ▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 165 € / Goiena Klubeko bazkideendako 145 €

**Goiena: irakurriena Debagoiengan.**

**BADESLEA**

# Oroilore

Maitasunez bizi,  
maitasunez agurtu

*Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.*

*Gure eskerrik beroenak gugan izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.*

**Ion, Mario, Iban eta Maribi**



Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA  
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

## TXUTXU-MUTXUAK

**1. Iker Zabala gogoan**

Irailaren 24an, 25 urte bete ziren bergararra hil zela, eta kuadrillakoek omenaldia egin zioten, Araotzera egindako ibilaldi batekin. "Eskerrik asko, Ikerren familiaren izenean".

**2. Denboraldia agurtzeko**

Oñatiko Aloña Mendiko txirrindulari saila osatzen duen familiak denboraldia agurtu zuen asteburuan. Azken entrenamendua guraso batzuen laguntzarekin egin zuten.

**3. Gary Bañosen omenez**

Otsailean hil zen oñatiarraren kuadrillakoek monolitoa ipini zuten aurreko zapatuan. Bañosen bikotekidea, aita eta arreba egon ziren ekitaldian, eta osteko bazkarian.

**4. Urrezko ezteiak**

Oñatiko Javier Guridik eta Mari Carmen Goitiak bihar, zapatua, beteko dituzte 50 urte ezkontuta. "Seme-alaben eta biloben partetik, musu handi bana".

## ZORION AGURRAK



OÑATI  
**Arhane Katarain Leibar**  
Urriaren 7an, 7 urte. Zorionak, Arhane! Ondo pasatu zure eguna. Asko maitte zaitugu. Muxu handi bat etxeko danen partetik.



ESKORIATZA  
**Eñaut Etxebarrieta Altuna**  
Urriaren 5ean, 18 urte. Zorionak, mutil! Ondo-ondo ospatu zure eguna, familia osoaren partetik. Muxuak eta besarkada potolo bat.



ARETXABALETA  
**ARIANE URIBE COVES**  
Urriaren 4an, 8 urte. Zorionak denon partetik eta egun polita pasatu.



ARETXABALETA  
**Bittor Rios Izurrategi**  
Urriaren 3an, 5 urte. Zorionak, txapelkun! Ondo-ondo ospatu eguna! Patxo handi bat danon, eta barez be, Gariren partetik!



ESKORIATZA  
**Txaro Kortazar Uribesalgo**  
Urriaren 1ean, 76 urte. Zorionak eta oso ondo pasatu zure egunean! Besarkada eta muxu handi bat, maite zaituen familia osoaren partetik.



ARRASATE  
**Xuban Etxeberria Agirreurreta**  
Urriaren 1ean, urtebete. Zorionak, Xuban! Musu erraldoi bat aitona eta amamaren partetik.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

### Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurra> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

### Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurra@goiena.eus](mailto:zorionagurra@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

### Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

**Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik argitaratuko ditugu.**


**Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.**



OÑATI  
**Eñaut Otxoa-Aizpurua Lizarralde**  
Irailaren 30ean, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako, Eñaut! Topera ospatu zure urtebetetze eguna. Muxu erraldoiak, maitte zaitugunon partetik!



BERGARA  
**Naroa Markina Urizarbarrena**  
Irailaren 30an, 6 urte. Zorionak, politx hori, denon partetik! Azkenean heldu da eguna! Ondo-ondo pasatu! Besarkada eta muxu handi bat!



BERGARA  
**Naia Gabilondo Kapilastegi**  
Irailaren 29an, 12 urte. Zorionak, Naia! Disfrutatu topera zure eguna! Muxu handi bat aitaxoren, amatxoren, Juneren eta familia osoaren partetik.




OÑATI  
**Beñat Rios Valderas**  
Irailaren 29an, 6 urte. Zorionak gure bihurtitxoari! Sei urte jada. Oso ondo pasatu. Asko maite zaitugu. Etxekoan partetik.



ANTZUOLA  
**Amets eta Oinatz Larrea**  
Irailaren 29an eta urriaren 1ean, 12 eta 10 urte. Zorionak, bikote. Zuek dakizuen moduan ospatu zuen egunak eta disfrutatu. Patxo handi bat familixa osoaren partetik.




ARETXABALETA  
**Manex eta Amaior Arana**  
Irailaren 24an, 13 urte eta 29an, 10 urte. Zorionak, bikote!! Ondo pasatu zuein egunian. Patxo erraldoi bana danon partetik!



ARETXABALETA  
**Iñintz Alberdi Jorge**  
Irailaren 28an, 9 urte. Zorionak, pitxintxo! Ondo-ondo pasatu eta asko disfrutatu familixarekin eta lagunekin. Muxu handi bat Atxabaltako eta Arrasateko etxeko danon partetik.



ESKORIATZA  
**Naroa Cabeza Jorge**  
Irailaren 28an, 11 urte. Zorionak, politx hori! Ondo-ondo pasatu eguna eta asko disfrutatu lagunekin eta familixarekin. Muxu handi bat etxeko danon partetik.



BERGARA  
**Uxue Muela Iturbe**  
Irailaren 27an, 5 urte. Zorionak, pitxintxo! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxutxo asko Jokinen, Urkoren eta Kattalinen partetik.



OÑATI  
**Alex Gonzalez Rubio**  
Irailaren 27an, 7 urte. Zorionak, Alex! Jada zappi urte. Oso ondo pasatu zure eguna. Aitaxoren, amatxoren eta Laiaren partetik, patxo handi bat. Maite zaitugu "txikitako".



OÑATI  
**Ekhi Arregi Baseta**  
Irailaren 25ean, 8 urte. Zorionak, maitia! Horrenbeste itxaron duzun eguna heldu da! Merezi duzun bezala ospatuko dugu! Izan zoriontsu eta jarraitu beti bezain noble eta jostari izaten. Patxo bat aitaxoren, amatxoren eta, batez ere, Ainhizeren partetik. Ilargira arte maite zaitugu.



ELGETA  
**Mikel Mandaluniz Fernandez**  
Irailaren 25ean, 9 urte. Zorionak, Mikel! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Patxo potolo bat familixa osoaren partetik!



ARRASATE  
**Danel eta Oihan Castillo Romero**  
Danelek 11 urte, irailaren 19an eta Oihanek 8, 24an. Zorionak, bikote! Egun zoragarri bana opa dizuegu etxeko guztiok, batez ere arreba Laiak. Pila-pila-pila maite zaituztegu!

# AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 1

**BERGARA 'Ezagutza ginkana'**  
Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailetakoko neska-mutikoendako. *Oxirondo ludotekan, 17:30etan.*

### ESKORIATZA 'Gazte' kale antzerkia

Euskal dantza abiapuntu izanda, dantza garaikidea eta dantza modernoak eta gorputz mugimendua bateratzen ditu. Hika taldea eta Oinkari dantza taldea. *Santa Marina plazan, 19:00etan.*

### OÑATI Erroaioak: kultura eskaintza

19:00etan, Kiki, Koko eta Moko pailazoak; eta 21:00etan, Talka taldea.  
21:00etan, Talka  
*Irunberri plazan, 19:00etan.*

### OÑATI Erroaioak: kultura eskaintza

Travelling Brothers taldearen emanaldia.  
*Azoka Kultura Gunean, 22:00etan.*

## ZAPATUA 2

### OÑATI Erroaioak: kultura eskaintza

10:30ean, gazta lehiaketa eta dastatzea, Azoka Kultura Gunean; 11:00etan, txosnen irekiera – txotx!–; 13:00etan, Ibilian-ibilia ekimena, Oñatiko Sareren eskutik, Foruen plazan; 14:30ean, bazkaria, txosnagunean; 16:00etan, jolasak, txosnagunean; 18:00etan, herri kirolak, Foruen plazan; 20:00etan, Erroka eta Bidean Erromeria taldeak, txosnagunean; eta 22:00etan, Trikizio taldea, Azoka Kultura Gunean.  
*Oñatin.*

### BERGARA Angiozarko memoriaren txokoa

Gaur inauguratuko dute.  
*Angiozarren, 12:30ean.*

### ARRASATE 'Gipuzkoan Gazte Tour 2021'

16:00etan, Hip-hop eta Rap ikastaroak La Basurekin; 17:30ean, Denso, Tatta eta Mutiko taldeak;



OINKARI TALDEA

### ESKORIATZA 'Gazte' kale antzerkia

Euskal dantza abiapuntu hartuta, dantza garaikidea eta dantza modernoa eta gorputz mugimendua bateratzen dituen lana. Hika taldearen eta Oinkari dantza taldearen elkarlana.  
*Gaur, egubakoitza, Santa Marina plazan, 19:00etan.*

18:15ean, Shaolin Monkey taldea; 19:00etan, Anier; eta 20:15ean, Hard Gz.  
*Herriko Plazan.*

### BERGARA 'Meri, Mari eta Lari' antzezlan, haurrentako

Eidabe taldearen eskutik, Yogurina Borova eta Olatz Pagalday oholtza gainean. Sarrerak, lau euro.  
*Seminarixoan, 18:00etan.*

### ESKORIATZA 'Legea gu gara' kale antzerkia

Basarti taldearen eskutik, Sergioren eta Erramunen arteko erlazioa kontatuko dute. Istiluen Kontrako Brigadako bi kide dira, oso desberdinak elkarren artean.  
*Fernando Eskoriatza plazan, 19:00etan.*

### BERGARA Aitor Olea organista eta Bergarako Orfeoia

Organo Erromantikoaren Nazioarteko 22. zikloari hasiera emateko emanaldia. Debalde, edukiera bete arte.  
*Santa Marinan, 20:00etan.*

## DOMEKA 3

### OÑATI Erroaioak: kultura eskaintza

09:00etan, txistularien goiz-eresia; 11:00etatik 14:00etara, herri kiroleko haur parkea, Foruen plazan; 13:00etan, musika bandaren kontzertua, Zubikoan; eta 19:30ean, bertso jaialdia, Maialen Lujanbiorekin, Andoni Egañarekin,

Aitor Mendiluzerekin, Iker Zubeldiarekin eta Aitor Tatiegirekin, Azoka Kultura Gunean.  
*Oñatin.*

### ELGETA Bisita gidatu antzeztua lubakietara

Intxorta erresistentzia. 85 urte egitarauaren harira. Irailaren 30a baino lehen eman behar da izena: infoturismo@debagoiena.eus edo 943-79 64 63. Ostean, lore-eskaintza Salbardor ermitan.  
*Mendizaleen plazatik abiatuta.*

### OÑATI Erroaioak: kultura eskaintza

11:00etan, haurrentako jolasak; 12:00etan, txosnen irekiera; 14:00etan, jolasendako atsedena; 16:00etan, haurrentako jolasak; 18:00etan, ipuin kontalaria haurrentako; 19:00etan, Mentertz eta Ibil Bedi taldeak.  
*Irunberri plazan.*

### OÑATI 'Altxorren jolasa' familiendako

Arantzazuko ibilbide irisgarrian pistak topatzeko jolasa. Izenak: arantzazu@gipuzkoanatura.eus eta 943-78 28 94.  
*Parquetxean, 11:00etan.*

### BERGARA 'Intsumisioa Bergaran: desobedientziarako bide bat' erakusketa

Hilaren 24ra arte egongo da ikusgai, martitzenetik domekara. Ostean, hilaren 13an, izen bereko dokumentala estreinatuko dute.  
*Aroztegin, 18:00etan.*



EIDABE

### BERGARA 'Meri, Mari eta Lari' antzezlan, haurrentako

Eidabe taldearen eskutik, Yogurina Borova eta Olatz Pagalday oholtza gainean. Galder Perezek idatzitako lanean kolorea, dantza eta umorea dira nagusi. Sarrerak, lau euro.  
*Bihar, zapatua, Seminarixoan, 18:00etan.*

### BERGARA Batzar irekia Txapa Irratian

Irratsaioren bat egin gura dutenendako bilera.  
*Kartzela zaharrea, 18:30ean.*

### ARRASATE 'Lirika kalean' ekimena

Estibaliz Arroyo sopranoarekin, Aitor Garitano tenorearekin, Julen Garcia baritonoarekin, eta Arkaitz Mendoza piano-jotzailearekin. Zuzendari artistikoa Josean Garcia izango da.  
*Herriko Plazan, 19:00etan.*

## ASTELEHENA 4

### OÑATI Erroaioak: kultura eskaintza

12:00etan, txosnen irekiera; 14:30ean, bazkaria; 16:00etan, bingo musikatua; eta, 17:00etan, Dibertsioak.  
*Irunberri plazan.*

### ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak aldarrikatzeko elkartuko dira.  
*Herriko Plazan, 12:00etan.*

### ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak aldarrikatzeko elkartuko dira.  
*Herriko Plazan, 12:00etan.*

### BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatuko dituzte.  
*San Martin plazan, 12:00etan.*

### ARRASATE Plazako dantza tradizionalen ikastaroak

Gaur hasiko dute ikastaroa, eta maiatzera arte eta astelehenero egingo dute, Patxi Monterok gidatuta.  
*Mesedetako ikastetxean, 17:30ean.*

## MARTITZENA 5

### OÑATI Adineko pertsonen elkarretaratzea kafe hitzordua

Begirada Adia ekimenaren baitan, erretiratuen elkartean hartuko dute kafea.  
*Pake Lekun, 17:00etan.*

### BERGARA Plan Estrategikoaren gaineko herri batzarra

Irekia, edukiera mugatuarekin.  
*Seminarixoan, 18:00etan.*

### ARETXABALETA 'Herri lagunkoi bat eraikitzen' hitzaldia

Aretxabaleto Lagunkoiaren eskutik, edukiera mugatuarekin.  
*Moien komentuan, 18:00etan.*

### ARRASATE 'Mala xena nunca muere' erakusketa

Benito Piriz, Ainhoa Lekerika eta Ander Perez artisten lanak ikusgai, hilaren 17ra arte.  
*Kulturaten, 18:00etan.*

### ARETXABALETA 'Etorkizuneko energia' hitzaldia

EH Bilduko legebiltzarkide Mikel Oterok egingo du berba.  
*Arkupen, 18:30ean.*

**ARRASATE 'First cow' pelikula**  
Kelly Reichardsen pelikula emango dute martitzenetako emanaldian. Edukiera mugatua.  
*Amaia antzokian, 19:30ean.*

## EGUAZTENA 6

**ELGETA Garbigune ibiltaria**  
Mankomunitateko langileek egun osoan jasoko dute herritarrek utzitako materiala.  
*Salbador kalean, 10:00etan.*

**BERGARA Goienagusi: ikasturte hasierako ekitaldia**  
2021-2022 ikasturtearen gaineko informazioa emango dute. Edukiera mugatua.  
*Seminarixoa, 10:30ean.*

**BERGARA Odol ateratzea**  
Urriko lehen egingo dute.  
*Oxirondo azokan, 16:30ean.*

**BERGARA Eguaztenetako azoka**  
Herriko baserriarren garaiko produktuak erosteko aukera.  
*Seminarixoa, 18:00etatik aurrera.*

**ARRASATE 'El dolor se aprende' dokumentala**  
Ostean, hitzaldia. Arturo Goikoetxeak, Maite Goikoetxeak eta Nuria Castrok egingo dute berba.  
*Kulturaten, 18:30ean.*

**BERGARA 'Queridos camaradas' pelikula**  
Zineklubean, jatorrizko bertsioan eta azpigituluekin.  
*Seminarixoa, 20:00etan.*

## EGUENA 7

**BERGARA 'Zertarako sortuko ditugu kultura plaza berriak?'**  
Gotzon Barandiaranek, Ihintza Orbegozok eta Mikel Etxaburuk egingo dute berba, Kultura Mahaiak gonbidatuta. Edukiera mugatua.  
*Seminarixoa, 18:30ean.*

**ELGETA Aratusteetako kokobatzea: informazio batzarra**  
Ekimena martxan jartzen hasteko informazio emango du Goibeko euskaltzaleen topaguneak.  
*Ozkardi elkarte, 19:00etan.*

**ARRASATE 'Cárceles bolleras' dokumentalaren aurkezpena**  
Solalsaldian, Cecilia Montagut egilea eta protagonistetako bat egongo dira.  
*Kulturaten, 19:00etan.*

**OÑATI 'First cow' pelikula**  
Kelly Reichardsen pelikula emango dute zineklubean.  
*Kultura etxean, 20:00etan.*

## EGUBAKOITZA 8

**OÑATI Odol ateratzea**  
Donostiatik mezua jasotzen ez dutenek aurrez deitu behar dute, 943-00 78 84 zenbakira, ordua hartzeko.  
*Enpresagintzan, 16:30ean.*

## ZAPATUA 9

**DEBAGOIENA Hiru Haundiak**  
Gorbeia, Anboto eta Aizkorri mendietako tontorrek zeharkatzen dituen lasterketa.  
*Bailarako herrietan, 07:00etan.*

**ARRASATE Sakelakoarekin mendian orientatzen ikasteko ikastaroa**  
App-aren menua eta konfigurazioa, ibilbideak eta datuak grabatzea, ibilbideak eta datuak deskargatzea, mapak deskargatzea eta beste hainbat irakasgai landuko dituzte.  
*Kultura etxean, 10:00etan.*

## DOMEKA 10

**BERGARA 'Kotoiaren emakumeak' erakusketa: azken eguna**  
Gaur da garaiko bateko Algodoneran lan egin zuten emakumeen testigantzen bilduma ikusteko azken eguna.  
*Laboratoriumen, 10:00etatik 13:00etara.*

**ARRASATE 'Otsoa' ikuskizuna**  
Dantza eta antzerkia bateratzen dituzte Jordi Vilasecak eta Aritz Lopezek. Egungo gizarte-mugimendu piramidalen kontrako garrasi eszenikoa.  
*Amaia antzokian, 19:30ean.*

## ZINEMA

### ARRASATE

#### AMAIA ANTZOKIA

**Dune**  
Domeka eta astelehena: 19:30.  
**Peter Rabbit**  
Domeka: 16:30.

### BERGARA

#### SEMINARIXOA

**Nora**  
Egubakoitza eta astelehena: 20:30. Domeka: 19:30.  
**Oltxiak**  
Domeka: 19:30.

### EIBAR

#### COLISEO

**Benedetta**  
Zapatua: 19:30, 22:30. Domeka: 20:00. Astelehena: 20:30.  
**El club del paro**  
Domeka: 20:00. Astelehena: 20:30.

**Maixabel**  
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30. Domeka: 17:00.

### ANTZOKIA

**Maixabel**  
Domeka: 20:00. Astelehena: 20:30.

### GASTEIZ

#### BOULEVARD

**Sin tiempo para morir**  
Egunero, martitzena izan ezik: 16:15, 19:45. Egunero: 17:15, 18:15, 20:45.

**Bella y el circo magico**  
Zapatua eta domeka: 16:25, 18:10. Egubakoitza, eta astelehenetik eguenera: 18:10.

**Dune**  
Zapatua eta domeka: 16:00, 19:00. Egunero, martitzena izan ezik: 22:00. Martitzena: 19:00, 21:00.

**Maixabel**  
Zapatua eta domeka: 16:15, 18:45, 21:15. Egubakoitza, zapatua, domeka eta eguaztana: 20:00.

**No respites**  
Egunero: 18:10,

20:20.

**La patrulla canina**  
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30. Egunero, zapatua eta domeka izan ezik: 18:30.

**Bebe jefazo**  
Zapatua eta domeka: 18:45. Egunero, zapatua eta domeka izan ezik: 18:00.

**Garcia y Garcia**  
Zapatua eta domeka: 16:00.

**Respect**  
Astelehena eta eguna: 20:00. Martitzena (jatorrizko bertsioan): 20:00.

**Free guy**  
Zapatua eta domeka: 16:20.

**Cry macho**  
Zapatua eta domeka: 21:30. Egubakoitza, astelehena, eguaztana eta eguna: 20:15, 22:30. Martitzena

(jatorrizko bertsioan): 20:15.

**Maligno**  
Egubakoitzetik domekara eta eguaztana: 22:25.

**A todo tren**  
Zapatua eta domeka: 16:00. Egunero, zapatua eta domeka izan ezik: 17:45.

**Shang Chi**  
Egunero: 20:30.

### GORBEIA

**Bebe jefazo**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:20. Domeka: 12:00, 17:20.

**D'Artacan**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:15. Domeka: 12:00, 17:15.

**La patrulla canina**  
Domeka: 12:00.

**Shang Chi**  
Egubakoitza eta zapatua: 19:20, 22:00. Domeka: 11:45, 19:20. Astelehenetik eguenera: 17:15, 19:50.

**Dune**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:20, 20:20. Domeka: 11:45, 17:00, 20:00. Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:00.

**Calamity**  
Egubakoitzetik domekara: 17:00.

**No respites 2**  
Egubakoitza eta zapatua: 18:25, 20:25, 22:25. Domeka: 18:25, 20:25. Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**Maixabel**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 19:45, 22:00. Domeka: 12:00, 17:30, 19:45. Astelehenetik eguenera: 17:30, 19:45.

**Cry macho**  
Egubakoitza eta zapatua: 19:30, 21:40. Domeka: 19:30. Astelehenetik eguenera:

17:15, 19:50.

17:20, 19:45.  
**Respect**  
Egubakoitza eta zapatua: 20:30. Domeka: 12:00, 17:00. Astelehenetik eguenera: 17:30.

**Sin tiempo para morir**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:20, 18:40, 20:30, 21:45. Domeka: 11:30, 16:55, 18:40, 20:00. Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:00.

**Benedetta**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:35, 22:10. Domekatik eguenera: 17:10, 19:45.

**Mediterraneo**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 19:45, 22:00. Domekatik eguenera: 17:30, 19:45.

**Oin handiren semea**  
Domeka: 12:00.

## KRITIKA

### Las leyes de la frontera

**Zuz.:** Daniel Monzon. **Herr.:** Espainia (2021). **Aktoreak:** Marcos Ruíz, Begoña Vargas, Chechu Salgado. **Iraupena:** 130 min.



## Amodioa eta abenturaren zirrara

### ANTONIO ZABALA

*Las leyes de la frontera*-k aurtengo Donostia Zinemaldiari bukaera eman dio. Daniel Monzonek Javier Cercasen izen bereko eleberrian zinemara egokitu du. Istorioa Gironan kokatzen da, 1978. urtean. Nacho nerabearen bizitza ez da batere erraza. Gurasoekin eta Albarekin bizi da, eta eskolako kideek *bullying*-a egiten diote. Egun baten, kasualitatez, lapurretak egiten dituen talde marjinal batekin topo egingo du, eta, handik aurrera, bizitza zeharo aldatuko zaio. Bizitza gris eta goibela izatetik, abenturaz, arriskuz eta adrenalinaz beteriko bizitza batera pasako da. Amodioren eta abenturaren zirrara sentituko ditu. Taldeko kide garrantzitsuenak Zarco eta Tere dira. Zarco taldeko lider karismatikoa da, eta Nacho babestuko du. Nacho Tererekin



maiteminduko da, eta hori izango da taldean sartzearen arrazoi nabarmenena.

Hiru pertsonaia horien artean sortzen den harremana da filmaren datatz nagusia. Hiru aktoreen artean sortzen den kimika oso berezia da. Salgadok izaera magnetikoa ematen dio Zarcori; Vargasek pertsonaia

txundigarri bihurtzen du Tere; eta Ruizek oso ondo markatzen du Chechuren aldaketa prozesua. Baina ez bakarrik hitzekin, euren keinuekin eta begiradekin egundoko bizitza eta indarra ematen diote abenturaz, arriskuz, erakarpen sexualaz eta marjinaltasunez osatutako istorioari.



AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

## Sumendia vs pandemia

Palmako kanariar uharteko irudiek bete dituzte astebetetz gure begiak. Gorri, hori, laranja, kearen beltza eta laba gori-goria dira egun hauetan pandemiari nolabaiteko protagonismoa kendu dioten irudiak. Naturaren lurpeko indarrak haserre bizian dira guantxeen lurraldean. Sumendia parerik ez duen indarra da eta magmak arnasa hartzeko bere lekua behar duenean lur plakek talka egin eta zuloa egiten dute tximinia sortuz. Aurrean harrapatzen duen guztia suntsitu eta errauts bihurtzen du. Ezin da bere aurka ezer egin.

Koronabirusaren pandemia honen azken atalean gaudela etorri zaie palmarrei ezinbesteko suntsiketa. Pandemiak ere aurrean eraman ditu milaka eta milaka pertsona, gure inguruok asko, eta bakarra hiltzea ere ez da onartu beharreko galera; baina, zorionez, sumendia ez bezala, birusa geldiarazi daiteke. Txertoa dugu horretarako eta txertoa ipini beharra dago, guztiak baikaude arriskuan.

Iritzi guztiak errespetatuz hau da errealitatea. Nola egongo ginatete gaur txertorik gabe? Zenbat eta zenbat ez lireratek gurean izango? Agian, neu, edo zeu.

GOIENA OKM GIDA

# "Nerabeek ez dute ondo jakiten ni non kokatu"

IRAIA GABILONDO HELBURU AKADEMIAKO ARDURADUNA

Ingelesa eta laguntza eskolak eskaintzen ditu, ikasleek euren gaitasunetan "konfiantza handiagoa" behar dutela sinetsita eta "herriko gertutasuna" oinarri dela

Jone Olabarria ANTZUOLA

Apurka ikasten badoa ere, zaila egiten zaio egoera jakin batzuetan *Iraia akademiakoa* izateari lagatzea. Hala ere, bereziki maite du Gabilondok herrian negozioa izateak ematen dion askatasun eta gertutasuna. "Bizilagunak benetan ezagutzeko" aukera ematen diola aitortu du Helburuko arduradunak.

**Irakasle lanetan zabilta, baina zer ikasi zenuen?**

Zuzenbidea ikasi nuen arren, ez dut inoiz arlo horretan lan egin. Bilbon nengoela, ikasle garaian, hasi nintzen laguntza eskolak ematen, eta ostean ere Urretxun aritzeko aukera irten eta aprobetxatu egin nuen.

**Dagoeneko zortzi urte Antzuolan, zure kontura...**

Saiatzea erabaki nuen, eta hasieran ez nuen ingelesa ere eskaintzeko asmorik, baina apurka-apurka eskatzen hasi zen jendea. Orain, kontrara, batez ere, ingelesa ematen dut.

**Zein da gehien kostatzen zaigun irakasgaia? Zer gorrotatzen dute ikasleek?**

Ulermena kostatzen zaie gehien beti, eta horrek lotura handia du autoestimua ere; bazuetan, ulertu egin dute, baina



Iraia Gabilondo, duela zortzi urte martxan jarri zuen Helburu akademian. M.A.

## "Eta zuk, non egiten duzu lan?"

"Haurrekin gauza kurioso bat gertatzen zait eskola orduetan; akademian gaude, ni naiz haien irakasle eta hala ere, askotan galdetzen didate ea non egiten dudan lan. 'Hemen', hau dela nire lana esaten diet, baina ez dute ulertzen. Behin eta berriz galdetu izan didate, talde askotako haurrek. Badut nire teoria azalpena emateko; esango nuke ez dutela akademia eskolarekin lotzen, eta hortaz, ez naute irakaslea bezala ikusten".

ez dute sinesten ondo ulertu dutenik.

**Ez al da zaila nerabeekin harremana? Eta umeekin?**

Pila bat gustatzen zait nerabeekin harremana. Ez dute jakiten ondo ni non kokatu: ez naiz eskolako irakaslea, ez naiz lagun bat, ez naiz gurasoa... Harreman oso polita sortzen da; herriko gazteak dira, eta orain, nirekin ibili zirenak, kalean, heldu moduan ikusita ilusioz bizi dut.

**Zure lanaren onena zer da?**

Gertuko harremana, zalantza barik, baina onerako eta txarre-rako. Adin tarte zabal batekin lan egiten dut eta hori oso aberasgarria da, eta, gainera, herriko umeak izanda are aberasgarriagoa.

**Zergatik diozu okerrerako ere badela harreman hori?**

Askotan, kosta egiten zait mugak jartzea; parkean nagoenean ez naiz *Iraia akademiakoa*, nire alabaren ama naiz. Baina banabil ikasten, apurka.

**Alaba ere etorriko da Helburura...**

Bai; zelanbait, esperimendu bezala erabiltzen dut, baina ez da nirekin etortzen, beste lankidearekin etortzen da.

**Etxean ere ingelesez egiten duzue?**

Ez dit lagatzen ingelesez egiten alabak, baina, hala ere, ez dut nahi; gure etxeko hizkuntza euskara da.

**Zer baloratzen duzu gehien herriko bizitza horretan?**

Nire egunerokoan, ikasleekin eta gurasoekin sortzen den harremana. Benetan herriko jendea ezagutzen dudala.

Goiena OKm  
Gidaren  
eskaintza  
osoa



goiena  
Okm  
gida

GOIENA TELEBISTA  
SASOI BERRIA



BESTELAKO  
OLATUA!

MARITXU KAJOI  
EZ-JAIK

URRIAREN 1EAN, EGUBAKOITZEAN,  
18.00/20.00 ETA 22.00

BABESLEA:

LIRAIN  
ARRASATE | ESTETIKA

goiena

Zu hemen zaude.

